

Hezkuntza premia bereziak: mugimenduzko ezgaitasuna duten ikasleak

Garun-paralisia duten ikasleen premiei hezkuntza
erantzuna emateko gidaliburua



Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroa (NHBBZ)

Mugimendu-arazoetarako moduluko lantaldeak egindako dokumentua. Hona taldeakideak:

M.^a Dolores Martínez de Morentin Garraza
M.^a Jesús Sanciñena Echarte
Margarita Sánchez Fontanas
Carmen Sánchez Iglesias
Sagrario Yoldi García

Título: Hezkuntza premia bereziak: mugimenduzko ezgaitasuna duten ikasleak.
Fotocomposición: Pretexto
Cubierta: ©ia Comunicación, sobre obra original de Koldo Sebastián
Imprime: Ilarcua
I.S.B.N. 84-235-2066-8
Dpto. Legal: NA-2830-2000
© Gobierno de Navarra. Departamento de Educación y Cultura

Promociona y distribuye: Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra
Departamento de Presidencia, Justicia e Interior
C/. Navas de Tolosa, 21
31002 PAMPLONA
Teléfono y fax: 948 42 71 23
Correro electrónico: fpubli01@cnavarra.es

AURKEZPENA

“Gizarteen heldutasuna, neurri handi batean, gizabanakoaren eta komunitatearen dimentsioak hezkuntza oinarri eta lanabes erabiliz integratzeko duten gaitasunaren ondorioa da” (LOGSE, Aitzinsolasa).

Pertsona guztiak ezberdinak gara eta gizarte anitz baten partaide gara. LOGSE legeak ezberdintasun hori jaso eta, hezkuntza sistemen ikuspegitik, aniztasunari eman beharreko arreta bihurtzen du lege honek proposatzen duen curriculum ereduaren ardatz antolatzaille, normalizatzaile eta integratzaile.

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroa (NHBBZ) bitartez, politika argi eta garbi batez jokatzeko du hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko, desabantaila eta behar egoera nabarmenagoa dutelako.

NHBBZk gida-material hauek sortu ditu gaitasun handiei edo mugimenduzko ezgaitasunari nahiz ezgaitasun sensorial edo psikikoei loturiko baldintzak izan eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza erantzunaren plangintza eta optimizazioa aragotzeko. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ikastetxeetan bantzen ditu baliabide didaktiko hauek irakasleei laguntzeko hezkuntza premia berezi hauetako bakoitzaren ezagutzen, haiek balioesten eta ikasleak behar duen erantzun egokia emateko erabakiak hartzen.

Gidak, bere egituran, bi helburu ditu: alde batetik, garun-paralisiaren eremu teoriko eta epistemologikoan sakontzea; bestetik, beste lanabes eta estrategia batzuk aurkeztea behar horiek balioesteko eta

hezkuntza erantzuna errazteko, hezitzaileen eta ikastetxez kanpoko adituen curriculum-eskuartzeak artikulatuz.

Eskerrak eman nahi dizkiot NHBBZko mugimendu-arazoetarako moduluko lantaldeko kide guztiei, orrialde hauetan lortu baitute haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan egunero egiten duten ahaleginaren eta lanaren sintesia antolatzea.

Jesús María Laguna Peña
Hezkuntza eta Kultura kontseilaria

AURKIBIDEA

Sarrera	9
Hezkuntza Premia Bereziak	15
I. EBALUAZIOA	21
1. Eskolaratzearen hasiera	21
2. Haur hezkuntza	23
2.1. Berriazko eremuen ebaluazioa	25
2.1.1. Mugimenduaren eremua ebaluatzeko adierazleak	26
2.1.2. Komunikazioaren eremua ebaluatzeko adierazleak	27
2.1.3. Banakako autonomiaren eremua ebaluatzeko adierazleak ..	28
2.1.4. Ikusizko hautematearen eremua ebaluatzeko adierazleak ...	29
2.1.5. Eremu sozio-afektiboa ebaluatzeko adierazleak	30
2.1.6. Eskolako eremua ebaluatzeko adierazleak	31
2.1.7. Familiaren eremua ebaluatzeko adierazleak	32
2.2. "Sakonagoko" ebaluazioa	35
2.2.1. Fisioterapeuta	36
2.2.2. Logopeda	36
2.2.3. Hezkuntzako laguntzailea	37
2.2.4. Orientatzailea	38
2.2.5. Pedagogia terapeutikoko irakaslea	38
2.2.6. Tutorea	38
2.3. Ebaluatzeko bitartekoak	39
2.3.1. Tresnak	39
2.3.2. Estrategiak	39
3. Lehen hezkuntza	43
3.1. Irakurmenaren ebaluazioa	43
3.2. Idazmenaren ebaluazioa	44
3.3. Gorputz hezkuntzaren ebaluazioa	46
II. HEZKUNTZA-ERANTZUNA EMATEKO ORIENTABIDEAK	47
1. Ikastetxean egin beharreko aldaketak	48
1.1. Ikastetxea fisikoki egokitzea	48

1.2. Ikastetxeko curriculum-egokitzea (IMP-ICP)	49
1.2.1. Helburu eta edukiak	50
1.2.2. Metodologia eta antolamendua	50
1.2.3. Ebaluazioa	51
2. Ikasgelako aldaketak	52
2.1. Tutorea egokitzea	53
2.2. Elementu materialak eta haien antolamendua egokitzea	54
2.2.1. Ikasgelako alderdi fisikoak	54
2.2.2. Altzariak eta baliabide didaktikoak	55
2.2.3. Denboraren antolamendua	55
2.3. Curriculumaren oinarritzko elementuak egokitzea	56
2.3.1. Ebaluazioa	56
2.3.2. Metodologia	57
2.3.3. Irakasteko-ikasteko jarduerak	58
2.3.4. Helburuak eta edukiak	58
3. Curriculumaren norbanakoari egokitzea (CNE)	61
3.1. Sarrera elementuetako egokitzapenak	61
3.1.1. Elementu materialak	62
3.1.2. Elementu pertsonalak	66
3.2. Curriculumaren oinarritzko elementuetako egokitzapenak	69
3.2.1. Ebaluazioa	70
3.2.2. Metodologia. Estrategiak	70
3.2.3. Helburuak eta edukiak	76
4. Ikastetxea-familia elkarreragina	78
III. ADIBIDEAK	81
1. Esku hartzeko prozesua	82
1.1. Kasua identifikatzea	82
1.2. Ebaluazioaren eta emaitzen plangitza egitea	84
1.3. Beharrak balioestea	90
1.4. Erantzuna	91
1.5. Jarraipenak	94
ONDORIOAK	99
EBALUAZIOARI BURUZKO ERANSKINAK	101
Familiarekiko elkarrizketa (I. eranskina)	103
Haur eskolari buruzko datuak (II. eranskina)	111
Eremuak ebaluatzeko gida (III. eranskina)	117
Komunikazioa behatzea (IV. eranskina)	129
Banakako autonomia ebaluatzeko gida (V. eranskina)	135
Esku-funtzioa balioesteko gida (VI. eranskina)	147
Familia eta gizarte-inguruari buruzko datuak (VII. eranskina)	155
ESKUHARTZEARI BURUZKO ERANSKINAK	161
Eskolako altzatiak egokitzea	163
Material didaktikoa egokitzea	177
BIBLIOGRAFIA	187

Ondokoa da mugimenduzko ezgaitasuna duen ikaslea: hezur-artikulazioen sistemaren, gihar-sistemaren edo/eta nerbio-sistemaren funtzionamendu okerra dela-eta, mugimenduzko asaldura bat, iragankorra edo iraunkorra, duena; betiere, egoera horrek nolabaiteko mugak, neurri ezberdinetan, ekarriko dizkio bere adinari dagozkion jardueretan.

Hezur-artikulazioen sisteman gertatzen diren asaldurek ondokoak biltzen dituzte: hezur eta artikulazioetan eragiten duten malformazioak, sortzetikoak (atrogriposiak eta agenesiak) eta hartutakoak (haurren erreumatismoak eta traumatismoak).

Gihar-sistema ukituta dagoenean, miopatiak direla esaten da. Miopatiak eskeletoko giharretako asaldurak dira, sortzetiko jatorria dutenak eta gihar boluntarioen ahultze eta endekapen progresiboa ezaugarri dutenak.

Lesioaren arrazoia *nerbio-sistemaren* funtzionamendu okerraren ondorioa ere izan daiteke. Bizkarrezur-muina ukituta egon daiteke, eria neurri handian nahiz txikian –bizkarrezur-muin noraino dagoen ukituta– gaigabetzen duen paralisi bat sortutako traumatismo, tumore edo sortzetiko malformazioengatik. Beste asaldura batzuk birusek (aurreko poliomieltis akutua) sorturiko infekzio-prozesuei zor zaie; edo, bestela, bizkarrezurra eta bizkarrezur-muina osatzeko garaian enbrioian gertaturiko sortzetiko malformazioei. Bizkarrezur bifidoa azken multzo talde horretakoa da.

Bestalde, garunetako lesioak ere gertatzen dira. Lesio horiek hiru urte bete aurretik edo hirugarren urtean gertatzen badira, Haurren

Garun-Paralisia (HGP) esaten zaie. Horixe izaten da, gehienetan, mugimenduzko ezgaitasunaren arrazoia. Ondorio hori bera –mugimenduzko ezgaitasuna– buruhezur-entzefaloko traumatismoengatik eta adinean aurrera sor daitezkeen tumoreengatik ere gerta daiteke.

Mugimenduzko ezgaitasunaren definizioak ez du inondik inora esan nahi ezgaitasun hori behin betikoa denik. Mugimenduzko ezgaitasuna duen haurrak izan ohi dituen zailtasunak onbidean jarri eta gainditu ahal izanen dira, behar diren bitartekoak –materialak nahiz psikopedagogikoak– erabiltzen badira eta ikaslearen ahalmenak ahal den guztian garatzen badira.

Lokomozio-aparatuko lesioen ondoriozko asaldurak maila ezberdinetakoak dira, haien zabalaren, kokapenaren, jatorriaren eta lesio-naturiko alderdiko garrantzi funtzionalaren arabera. Ezinezkoa haiek sor ditzaketen patologia guztien sintomak eta agerpen bereizgarriak orokorki adieraztea. Bestalde, beharrezkoa da haur bakoitza norbanako gisa hartzea, ahalmen funtzional jakin batzuekin, eta, aldi berean, argi izatea gizartean, familian eta eskolan duen inguruneak baldintzatuta dagoela.

Ezinbestekoa da jakitea lokomozio-aparatuaren funtzionamenduko asaldura horiek haurrarentzat beharrezkoak diren –eta daukan adinarengatik berez dagozkion– funtzio eta jarduera batzuk mugatzen dituztela. Desabantaila argia sortzen da, beraz.

Horrela, bada, jarrera kontuekin eta mugikortasun ezarekin loturikoak dira mugimenduzko ezgaitasuna duten ikasleengan eskolan aurki daitezkeen mugapen aipagarrienak. Zehazki, ikasle hauek arazoak izaten dituzte jarrera egokia edukitzeko, gorputzaren atalak jarrera aldatetei egokitzeko, gorputzaren alde batzuetako mugimenduak beste alde batzuetakoez bereizteko edo/eta jarduera bakoitzerako behar diren gihar-multzoak egoki koordinatzeko. Gainera, maiz askotan gertatzen da haur horiek arazoak izaten dituztela tokiz aldatzeko, eta horrenbestez laguntza teknikoen (makilak, gurpil-aulkiak...) beharra izaten dutela ikastetxe barneko toki guztietara joan ahal izateko.

Goi aldeko atalen erabilpena izaten da jarreraren kontrol eza eta mugimenduen koordinazio eza direla-eta haur hauengan aurki daitezkeen beste mugapen bat. Delako mugapen horrek neurri handi batean oztopatzen ditu ikaslearen manipulazio ahalmenak eta geldoago egiten du eskolako eduki ezberdinen garapena eta ikaskuntza; eduki horien artean, idazmena azpimarratu beharra dago. Batzuetan, zailtasun horiek larriagoak izan daitezke mugimendu ez-boluntarioak, giharren ahulezia edo sinzinesia gertatzen direlako.

Lokomozio-aparatuaren disfuntzioek ekartzen dituzten mugape-nei loturik, mugimenduzko ezgaitasunak ezinbestez sortzen ez dituen hainbat arazo gerta daitezke. Kontuan hartu beharko da horiek ere eragin nabarmena izaten dutela haurrak garatzeko dituen ahalmenetan. Azpimarratzekoak dira asaldura sentsozialak, hautematezkoak, ahozko hizkuntzari loturikoak, iraitzeko funtzioarekin loturikoak eta eremu sozio-afektiboari buruzkoak.

Antzeman ohi diren arazo sentsozialei dagokienez, ondokoak gerta daitezke: entzumenaren eta ikusmenaren galera edo murrizpena, nistagmusak, ikus-eremuaren gutxiagotzea edo/eta ukimenaren, minaren, presioaren, hotz edo beroaren sentimenak zati batean edo goitik behera galtzea.

Hautemate arazoek ondokoak biltzen dituzte, besteak beste: irudia eta fondoa bereizteko arazoak, ikusmena eta mugimendua koordinatzeko arazoak eta gorputzaren jarrera desberdinak espazioan antzemateko arazoak.

Lagunekin edo helduekin komunikatzeko arazoak ere izan ditzakete ikasle hauek. Motilitate arazoak eta fonatzeko edo/eta arnasa hartzeko giharrak kontrolatzeko zailtasunak direla eta, ahotsa ateratzeko oztupoak egon daitezke; bestela, ezinezkoa ere gerta daiteke hori egitea.

Iraitzeko funtzioa ere aldatuta egon daiteke, bai entrenamendu faltarengatik, bai haurrak komunera bakarrik joateko mugimenduarazoak dituelako; bestela, beharrak adierazteko arazoak izan ditzake haurrak, edo gernu edo kaka egitean parte hartzen duten giharretan inerbazio-eza.

Emozio-arazoak ere gerta daitezke mugimenduzko ezgaitasunen bat duten haurrengan. Antsietatea, autoestima urria, motibazio eta arreta eza edo norberari buruzko irudi irrealak edukitzea gertatu ohi dira. Haurrari buruz helduak alde aurretik daukan kontzeptuak, hari buruz jendeak dituen itxaropenek eta babes-gehiegikeriarekin loturiko jarrerak eragin kaltegarria izaten dute ikasle eta ingurunearen elkarreaginean. Pasibotasunerako halako joera bat sortarazten dute haurrengan, eta horren ondorioz, eragin txarra izaten dute eskolako etekinean.

Aipatu ditugun asaldura horiek guztiek eta haiekin loturiko beste hainbatek ezinezko egiten dute mugimenduzko hezkuntza premia bereziak dauzkaten haur hauek berezkoak dituzten jarduerak aurrera eramateko behar den autonomia eta independentzia maila gartztea.

Mugimenduzko ezgaitasunen bat duen ikasleak izan ohi dituen zailtasunak irakurri ondoren, ez da zilegi ulertzea haurrak adimena- ren ahalmenak ukituta dituenik. Hala eta guztiz ere, ezin da alde ba- tera utzi, mugimenduzko eta hautematezko arazo horiek, eta gerta daitezkeen emozio-arazo guztiek ere, eragin zuzena izaten dutela haur hauen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.

Beharrezkoa da, beraz –aintzat hartuta mugimenduzko ezgaitasu- na duten haurren garapenean dauden aurkako faktore horiek guz- tiak–, desabantailak ahal den guztian saihesteko edo murrizteko ikas- leak behar dituen aukera eta esperientzia guztiak eskaintzea.

Hain zuzen ere, mugimenduzko hezkuntza premia bereziak dituz- ten ikasleekin eskuhartzeko prozesuaren orientabideak emanen di- tuen gida bat eskaintzea da liburu honen helburua. Honako gida hau egiteko iturburu nagusiak Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabi- deen Zentroko (NHBBZ) Mugimendu-arazoetarako modulua izene- koa osatzen duten profesionalek egin dituzten azterketak eta ikaste- txeetan egunero egiten duten lanaren gaineko gogoeta izan dira.

Modulu honek ikastetxeekin egunero egiten duen lanean, biblio- grafiaren bidez ere ikas daitekeena egiaztatu ahal izan du: garun-pa- ralisia da mugimenduzko ezgaitasuna duten haurretatik % 45en diagnostikoa. Horrela, bada, Nafarroako Foru Komunitatean errol- daturiko 117 ikasleetatik, 49 dira gaur egun patologia hori dutenak.

Garun-paralisia da berekin arazo gehien ekartzen dituen mugi- menduzko asaldura.

Garun-paralisia duen haurrak izaten dituen zailtasunak eta zailta- sun horiei erantzun egokia emateko behar diren orientabideak ongi ezagutuz gero, baldintza egokietan egonen gara orientabide horiek aplikatu ahal izateko mugimenduarekin loturiko bestelako ezgaitasu- nak dituzten ikasleen curriculum-egokitzapenetan, betiere aintzat hartuta patologiek eta ikasleek berez dituzten berezitasunak.

Hori guztia dela eta, garun-paralisia da dokumentu honen gai na- gusia.

Material hau egiterakoan, zenbait jarraibide orokor eman nahi izan dizkiegu irakasleei Curriculuma Norbanakoari Egokitzeak egin ahal izan ditzaten, ebaluazio-tresnak eskura emateko eta mugimen- duzko arazoak dituzten haurrekin esku hartzeko estrategiak marraz- teko.

Lehenbiziko kapituluan ebaluazioaren atala aztertuko da: mugi- menduzko ezgaitasunak dituzten ikasleak ebaluatzeko berariazko ere-

muak zehazten dira; eremu horiek balioesteko adierazleak, tresnak eta estrategiak ematen dira; eranskinen bidez tutoreari eta bestelako adituei ebaluazio-lana erraztuko dieten protokoloak eskaintzen dira.

Bigarren kapituluan B.P. duten hurrengan aurkitu ohi diren behar arruntenak azaldu eta zehazten dira.

Hirugarren kapituluan hainbat orientabide ematen dira hezkuntza-erantzuna ebaluazioaren emaitzei eta ikaslearen beharrezanegi egokitzeko. Orientabide horiek Oinarrizko Curriculum-Dokumentua zehazteko mailen hurrenkera jarraitzen dute:

- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP).
- Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP).
- Zikloko/ikasgelako programazioa.
- Curriculum Norbanakoari Egokitzea (CNE).

Hain zuzen ere, ahal den eta banakako egokitzapen gutxien egitea da orientabideak hurrenkera horren arabera antolatzeko arrazoa.

Azkenik, kasu baten adibidea emateko atal bat ere jarri dugu. Horretan, Garun-paralisia duen neskato batentzako CNEa prestatzeko jarraitu den prozesua azalduko dugu.

Dokumentu honek ebaluazioari eta hezkuntza-erantzunari buruzko eranskinak ere baditu.

I. eranskinaren bidez, laguntza eman nahi da mugitzeko ezgaitasuna duen haurrak familiaren barrenean maneiatzeko izaten dituen arazoei buruzko datuak biltzeko.

II. eranskina Haur Hezkuntzako lehen zikloko curriculum-gaitasunei buruzko lehenbiziko informazioa biltzeko erabil daiteke; izan ere, informazio hori beharrezkoa izanen baita eskolaratze-proposamena egiteko.

III. eranskinak *Eremuak Ebaluatzeko Gida* du izenburu. Hartan, mugimenduzko ezgaitasunak dauzkaten ikasleek izan ohi dituzten berariazko arazoei buruzko itemak ematen dira. Horien bidez, laguntza eman nahi zaio tutoreari ikaslea ebaluatzeko. Item horiek guztiak erabil daitezke, edo bestela kasuan kasu interesgarrien gertatzen den eremua hautatu.

IV. eranskinak *Komunikazioa behatzea* du izenburu; ahozko adierazpenik ez duten ikasleekin erabil daiteke. Horren bidez, haurrari arreta egiten dion lantaldeko profesional guztiengandik informazioa jaso nahi da, haurrarekin komunikatzeko sistemarik egokiena zehaztu ahal izateko.

Norberaren autonomia ebaluatzeko gida eta *Esku-funtzioa balioes- teko gida* dira V. eta VI. eranskinak. Horien helburua da hezkuntzako laguntzaileek eta pedagogia terapeutikoko irakasleak haurrari buruz- ko ebaluazio xeheagoa egitea, betiere fisioterapeutaren laguntzarekin eta haren orientabideei jarraituz.

Familia- eta gizarte-inguruari buruzko datuak da VII. eranskinari jarri diogun izenburua. Horretan, mugimenduzko ezgaitasuna duen haurraren inguruan dagoen familian eta gizartean gerta daitezkeen arrisku egoerak ezagutu eta balioesteko jarraibideak eman nahi zaiz- kio tutoreari.

VIII. eta IX. eranskinetan altzariak eta material didaktikoa egoki- tzeari buruzko adibideak eskaini nahi izan ditugu. Mugimendu-ara- zoetarako moduluak mugimenduzko gabeziaren bat duten ikasle ba- tzentzat egindako egokitzapenak dira. Ordenadorea erabili ahal izateko egokitzapenak egiteko, NHBBZko Teknologia Berrien Unitate- rean laguntza eskergaitza izan dugu.

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK

Hona LOGSE legearen abiapuntuetako bat: ikasle guzti-guztiek, beren eskola-aldian zehar “hezkuntzaren helburuak erdiestea bermatuko duten” laguntzak behar dituzten beharrianak izaten dituzte. Bide horretan, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak “hain ohikoa ez den laguntza osagarri bat –aldi baterako nahiz era iraunkorrean– behar dutenak” dira. Hau da, ontzat ematen da zenbait ikasleek laguntza gehiago beharko dutela, eta laguntza hori bere adinkideek behar dutenaz bestelakoa izanen dela.

Hezkuntza premia bereziak dituen ikasleari buruzko kontzeptu berri horren arretagunea “haurraren berezko” urritasuna izatetik “ezgaitasunaren” kontzeptua izatera pasa da. Ezgaitasun hori aldaraz daitezkeen testuinguru aldagai batzuek baldintzatuko dute.

Bide horretan, Enrique G. Fernández Abascalek (1993) urritasuna, ezgaitasuna eta balio-urritasuna bereizten ditu.

Urritasunak gorputz-egituraren eta itxuraren anomaliak eta organo edo sistema baten funtzioa adierazten ditu, edozein dela ere haren arazoia; hasteko, organo mailako arazoak aipatzeko erabiltzen da.

Adibidez: garun-paralisi diplejia espastikoa.

Ezgaitasunak urritasunaren ondorioak adierazten ditu, etekin funtzionalaren eta gizabanakoaren jardueraren ikuspuntutik. Pertsonaren mailako arazoak aipatzeko erabiltzen da, beraz.

Adibidez: ibilkera autonomorik eduki ez eta gurpil-aulkia erabili behar izatea.

Balio-urritasunak urritasun eta ezgaitasunen ondorioz gizabanakoak bizi dituen desabantailak adierazteko erabiltzen da; beraz, gizabanakoak ingurunearekin elkarrekiteko eta egokitzeko dauzkan arazoak aipatzen ditu.

Adibidez: arranparik ez duen ikastetxe batera ezin iristea.

Aintzat hartu behar dugu bereizkuntza hori, haurrak curriculumera iristeko dituen gaitasunak finkatuko baditugu. Horrela, bada, GPa duen haur baten beharrezanako xehe-mehe aztertzeak bidea ematen digu testuinguru errazgarriak sortzeko; gainera, haur horiek minusbaliatu bihurtzea saihesteko balio du. Beharrezanako aztertzeak garrantzia handia du, testuingurua egokitzeko eta haurraren gaitasunak ahal den guztian erabiltzeko bidea ematen baitu.

Hezkuntza premia bereziak terminoa Warnock txostenean erabili zen lehenbiziko aldiz (1978). Gero, Britainia Handiak erabili zuen, 1981ean. Termino horren arabera, haur batek hezkuntza berezia behar du hezkuntza neurri berezia eskatzen duen ikasteko zailtasunen bat duenean.

Ikasteko zailtasunak daudela esaten da, haur batek bere adinkide gehienek baino zailtasun handiagoak dituenean ikasteko, edo/eta haur batek hezkuntza instalazioak erabiltzea galarazten dion gaigabeziaren bat daukanean.

Hezkuntza neurri berezia esaten dugu talde bateko haur gehientzat hartzen direnez bestelako hezkuntza-laguntza osagarriren bat hartu behar denean.

Gure herrian izan den azken hezkuntza-erreformak (LOGSE, 1990), kontzeptu berri horiek erabiltzen ditu, eta aurrerapauso handia ematen du hezkuntza bereziaren arloan aurreko legeekin alderatzen bada. Hona zer dioen 3.5. artikuluan, araubide orokorreko ikasketak eta araubide berezikoak aipatzen dituenean:

Aurreko idatz-zatietan bilduriko ikasketak hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarrietara egokituko dira.

Horrek esan nahi du ikastetxe guztietako hezkuntza ikasle guztien beharretara egokituko direla, eta izaera berdintzailea izanen duela. Eskola ulerkorren alde egiten du, aniztasunari irekita egonen den eskola baten alde. Beraz, ikasleen berezitasunei erantzuteko gauza

izanen den eskola bat bultzatu nahi du. Azpimarratzekoa da, era berean, bosgarren kapituluko 36. artikulua. Haren arabera, hezkuntza sistemak behar dituen baliabideak izanen ditu hezkuntza premia bereziak –aldi baterakoak nahiz iraunkorrak– dituzten ikasleek hezkuntza sistema arruntean ikasle guztientzat, oro har, ezarri diren helburuak betetzeko modua izan dezaten.

Aurreko artikuluan adierazitako helburuak betetzeko, hezkuntza sistemak behar diren espezialitateetako irakasleak eta bestelako langile kualifikatuak izan beharko ditu, bai eta ikasleek ikaskuntza-prozesuan parte har dezaten behar diren bitarteko eta material didaktiko guztiak ere. Ikastetxeek eskola antolamendu egokia izanen dute, eta behar diren egokitzapen eta dibertsifikazio curricularrak egingen dituzte ikasleek aipatu helburuak bete ditzaten. Ikastetxeetako baldintza fisiko eta materialak ikasle horien beharretara egokituko dira.

Hezkuntza premia bereziei buruzko aipamen horien arabera, ikasleak dauzkan zailtasunen arrazoiak ez daude soilik ikaslearen baitan, eta horrexegatik eskola ikaslearen beharretara egokitu beharko da, ahal den neurrian.

GPa duten ikasleek zenbait mugapen fisiko dituzte. Mugapen horien ondorioz, premia bereziak izaten dituzte. Horrek zera esan nahi du: GPa duen haur batek laguntza edo baliabide pertsonal jakin batzuk, teknikak, materialak eta zerbitzu bereziak beharko ditu hezkuntzak ezarritako helburuak erdietsiko baditu. Beraz, jarduketara pedagogiko berariazkoak eta behar diren baliabide pertsonalak eta tresnak diseinatzeko, behar horiek zein diren zehaztu beharko da.

GPa duen haur batek ondoko arloetako hezkuntza premia bereziak izan ditzake, besteak beste:

Ikastetxera joatea

Mugitzeko urritasunak dituen ikaslearen arazoetako bat, ibiltzeko autonomoak ez diren ikasleena da, izan ere gurpil-aulkian ibili behar izaten direlako. Haien errotasunez eta segurtasunez ikastetxera eramateko, garraio egokia edo aulkia gidatuko duen pertsona bat behar izaten dute. Eskola-garraio bideak mugitzeko urritasunak dituen ikasleak dituen behar berezietara egokitu gabe egotea izaten da ohikoena; hori dela eta, behar horiek daudenean, euro-taxia, udalaren gizarte-zerbitzuak edo Gurutze Gorriaren zerbitzuak erabiltzea izaten da irtenbidea.

Ikastetxera sartu eta bertako egoitzak erabiltzea

Mugimenduzko ezintasunak dituen ikaslea ikastetxera joaten den une beretik, beharrezkoa da eraikuntzan arkitektura-oztoporik ez edukitzea. Ikastetxean daudenak hartuko ditugu arkitektura-oztopoztat: mailak, korridore eta ate estuak, igogailu txikiak, komun txikiak edo egokitu gabeak...

Bereziki azpimarratu behar da zein garrantzitsua den mugimenduzko arazoak dituen haurrari ikastetxera sartzeko erraztasunak ematea. Garrantzi horrek eragin betea dauka hezkuntza ezku-hartzean bertan; izan ere, lehenbiziko baldintza hori betetzen ez bada, ikaslea ezin izanen baita ikastetxeko leku guztietara iritsi, ez eta ikastetxera bertara ere.

Benetan funtsezkoa da ohartzea beharizan horiek egon badaudela eta arkitektura-oztopoak deuseztatu egin behar direla. Gainera, horren beharra dutenak ikasle bakar batzuk badira ere, hobekuntza probetxugarria izan daiteke hori gainerako ikasleentzat ere. Lehendik dauden ikastetxe askotan, oztopo horiek kendu behar izan dituzte mugimenduzko ezgaitasunak dituzten ikasleak sartu direnean.

Altzari egokituak

Behin ikastetxeak arkitektura-oztopoak kendu dituenean eta ikaslea berez mugitzeko gauza denean –alde batera utzita mugitzeko zein laguntza teknika behar duen–, ikasleak ikasgelan egoteko dituen arazoak aztertu beharko dira. Ikasle bakoitzaren beharretara egokituriko eskola-altzariak edukitzeko beharra sortuko da orduan, altzari estandarrek ez dutelako balio izanen. Ikasle bakoitzak nolako beharrianak dituen aztertu beharko da, beraz.

Ondokoa da mugitzeko autonomiarik ez duen GPadun haurraren lehenbiziko beharra: gurpil-aulkitik eskola-aulki egokitura aldatzea. Ez da komenigarria izaten mugitzeko erabiltzen duen gurpil-aulki berean egotea ikasgelan; izan ere, aulki horiek ez ohi dute bide egokirik ematen irakaslearekin, ikaskideekin eta eskolako materialarekin behar den elkarreragina edukitzeko. Aulki egokituarekin, beraz, integrazio-lana erraztuko dugu. Aulki eta mahaiak egokitu behar diren eta errehabilitazio saioetarako aparatuek erosi behar ote diren, fisioterapeutak balioetsi eta orientatu behar dituen gauzak dira.

Material didaktikoa

Behin ikasgelara iristeko eta bertan behar bezala eserita egoteko beharrak aztertu eta gero, haurrak “eskuak erabiltzeko” modua baduen zehaztu beharko da. GPa duten ikasle askok gauzak “hartzeko” jardun boluntarioa mantsoago edo zailtasunekin egiten dute. Hori dela eta, material didaktikoak egokitu behar izaten da.

Gauzak maneiatu ahal izateko, material didaktikoa erabili behar izate horretan, modu guztietako ikasleak aurkituko ditugu: beren goiko atalak ezertarako ere erabiltzen ez dituzten ikasleak, eskua gauzatarazuzendu bai baina horiek hartzeko gauza ez diren ikasleak, gauzak hartzeko gai izan bai baina gero haiek askatzeko modurik ez duten ikasleak eta pintza ezohiko bat erabiliz gauzak hartzeko gai diren ikasleak.

Eskuhartzeari buruzko ondoko kapituluan behar horietarako zenbait orientabide aurkituko dituzu.

Langile espezializatuak

Mugimenduzko ezgaitasuna duen haurrak langile espezializatuak behar ditu, irakasle tutoreaz gainera.

- Errehabilitazio fisikoaz arduratuko den fisioterapeuta bat. Fisioterapeutak, gainera, jarraibideak emanen dizkie taldekide guztiei jarrerari buruz, ibiltzeko arauari buruz, protesiak erabiltzeari buruz eta altzariak eta material didaktikoa egokitzeari buruz.
- Logopeda bat. Garuneko lesioak fonazio eta artikulazio organoetan eragin duen kasu guztietan beharko da halako bat. GPa duten haur guztiek ez dute espezialista honen beharrik.
- Hezkuntzako laguntzaile bat; haurrak berez bete ezin dituen oinarrizko beharretan, haurrari laguntzeko edo haurraren beraren orde aritzeko eginkizun nagusia izanen du: higiene pertsonala, irazpena, elikadura, janzteia eta jantziak kentzea.
- Pedagogia terapeutikoko irakasle bat, banakako edo talde txikitako hezkuntza behar duten haurrentzat, bai ikasgelako curriculumean bai curriculum egokitu batean aritzeko.

Curriculum-egokitzapenak

Kapituluaren hasieran hezkuntza behar berezien kontzeptua azaldu dugu: hezkuntzaren helburuak erdiesteko ikasle batek behar dituen aparteko laguntzak dira. Bada, curriculum-egokitzapenak garun-paralisia duten ikasleek behar dituzten laguntza modu batzuk dira.

Motibazioa

Eremu sozio-afektiboari buruzko ebaluazioaren emaitzei esker, ondokoen berri izanen dugu, besteak beste: ikaslearen interesak, gehien maite dituen errefortzuak, bere buruaren hautematea, lan egiteko segurtasun maila, motibazio-maila. Egiaztatu ahal izan da, askotan, ikasle horiek errefortzuak behar izaten dituztela eskolako lanean.

Gizarte-elkarreraginak

Ikasle hauek dituzten mugimendu-mugapenak eta ingurunearen bestelako faktoreak direla eta, berdinekiko gizarte-elkarreraginak murriztagoak izanen dira patioko jarduera eta jolasetan. Argi dago estrategiak planifikatu behar direla elkarreragin horiek normalizatzeko.

Ingurunearen azterketa

GPa duten haurren kasuan, ingurunea aztertzeko dituzten esperientzien kopurua murrizta da, aukera gutxiago izan baitituzte ibiltzeko eta komunikatzeko. Esperientzia horien gabezia oztopo nabarmena da oinarrizko zenbait kontzeptu eraiki ahal izateko. Haurrak esperientzia horiek norbaitek eskuratzeko beharra sentitzen du unero; beraz, gabezia horiek orekatzeko balioko duten egoerak eta estrategiak planifikatu behar dira.

I. EBALUAZIOA

1. ESKOLARATZEAREN HASIERA

Mugimenduzko ezgaitasunen bat duen haurra lehenbiziko aldiz ikastetxe batera joatekoa denean, aurreneko balioespen bat berehala egin beharra suertatzen da. Eskolaratzeko modalitatea zehaztea helburu nagusi duen balioespen horrek bidea emanen du lehenbiziko beharrak antzeman eta behar diren baliabideak prestatu eta antolatzearen hartu beharreko erabaki egokiak hartzeko.

Ikastetxeko orientatzaileari dagokio lehenbiziko ebaluazio hori egitea; izan ere, bera izan da haurra eskolaratzeko eskaera jaso duena. Ebaluazioa egiteko, Mugimendu-arazoetarako Talde Bereziaren laguntza izanen du.

Orientatzaileak, lehenbizi, ondokoei buruzko informazioa bilduko du:

- Familia.
- Haurra.
- Ikastetxea.

Familiarekin elkarrizketak eta galdetegiak (I. eranskina) erabiliz, ondokoei buruzko datuak lortuko dira: diagnostiko klinikoa, familiaren egitura eta dinamika eta haurra etxe barnean nola maneiatzen den.

Haurrari dagokionez, zera da egokiena, ahal izanez gero: haurra joaten den haurtzaindegira joan eta zuzenean egiaztatzea ikasleak di-

tuen gaitasunak. Gainera, hezitzaileek ematen duten informazioa bildu ahal izanen da. Informazio hori biltzeko, komenigarria izaten da mugimenduzko ezgaitasunak dituen haurrari buruzko zenbait alderdi biltzen dituen gidoiren bat erabiltzea (II. eranskina).

Mugimendu-arazoetarako moduluko fisioterapeutak berariazko miaketa puntuala egingen du ikastetxean bertan, tratamendu fisioterapikoa behar den ala ez zehazteko eta mugitzeko gaitasunei buruzko eta haurrak beharko dituen laguntza eta bitartekoei buruzko informazioa emateko.

Ikastetxeari dagokionez, orientatzaileak idatziz jasoko du arkitektura-oztoporik dagoen ahal ez, eta baliabide pertsonalak (hezkuntzako laguntzaileak, pedagogia terapeutikoko irakaslea, logopeda, fisioterapeuta) eta haur hezkuntzako lehen mailako ikasgelen antolamendua aztertuko ditu. Horretara, haur bakoitzarentzako talde egokiena aurreikusi ahal izanen da.

Aurreko datuak aztertzerakoan, orientatzaileak haurraren beharrak balioetsi eta hezkuntza-erantzuna ematen hasteko lehenbiziko egokitzapenak eta baliabideak proposatuko ditu.

Haurraren tutorea nor izanen den aldeztetik jakiteko modua badugu, balioespenaren berri emanen zaio, izan ere ikasturtearen hasieran lehenbiziko ebaluazio bat egiteko datuak izan ditzan.

A.C.R. hiru urteko neska bat da, garun-paralisi atetoidea duena. Ikastetxe arrunt batean eskolaratzea eskatu du. Bi urte dituenetik haur eskolara joan da. Garapen kognitibo egokia antzeman zaio. Gauza da arreta mantentzeko ahozko azalpenetan, ipuin eta jolasetan. Ingurunea ezagutzeko jakin-mina du, eta etengabe miatzen du ingurua begiradarekin; gauzaren bat hurbiltzen diotenean, hura eskuztatzen eta erabiltzen du.

Ez du hitz egiten. Keinu naturalak eta artikulatu gabeko soinuak erabiltzen ditu hurrekin eta helduekin komunikatzeko.

Esfinterren kontrol pasiboa egiten du.

A.C.R. aulkitxoan joaten da eskolara. Ez du oraindik ikasi gorputz-enborra kontrolatzen.

Gauzak adierazteko bere modua badu ere, KSA (Komunikatzeko Sistema Handigarri edo Alternatiboa) bat erakustea oso lagungarria izanen zaio eskola-curriculumean sartzeko.

Kasu honetan, lehendik azaldutako prozesuari jarraitu genion. Orientatzaileak familiari, neskatoari eta ikastetxeari buruzko informazioa bildu zuen. Balioespena egin eta gero, aurreneko erabaki hauek hartu genituen:

- Arranpa bat jartzea patiorako irteeran.
- Logopedak arreta egin beharko diola aurreikustea.
- Fisioterapeutak arreta egin beharko diola aurreikustea.
- Hiru urteko haurrak bi taldetan banatzea: batean, 16 ikasle; bestean, 21. A.C.R. 16 ikasleko taldean sartzea.
- Irailean mahai eta aulki bat egokitzea haurarentzat.
- Lurreko eserleku bat erostea.

Baliabide horiek prestatuta, lehenbiziko erantzun bat antolatu da haurra irailean eskolaratzeko.

Une horretatik aurrera, mugimenduzko ezgaitasuna duen neskatoren ebaluazioa hasiko da, taldekideekin.

2. HAUR HEZKUNTZA

Ez dugu ebaluazioari buruzko eredu teorikorik emanen, irakasleak, gero, eredu horrekin koherentzia gordetzeko moduan ebaluazioaren praktika nolakoa izan behar den esaten ibiltzeko. Bere taldean, mugimenduzko ezgaitasunak dituen ikasle bat daukan Haur Hezkuntzako irakasle-tutorearen ikasturte hasierako tokian jarri nahi dugu gure burua. Hasiera batean, tutore horri honelako galderak bururatuko zaizkio egokitu zaion taldea dela eta:

Nolakoa ote da talde hau?

Horietatik zenbat egonen ziren lehendik haur eskola batean?

Norainoko autonomia izanen du talde honek?

Izanen ote da bakarren bat hezkuntza premia bereziak dituen?

Seguraski, informazio pixka bat jaso izanen du ordurako –bai ikastetxeak emanda, bai familiek emanda– ikasleen ezaugarriei buruz.

Hala eta guztiz ere, aurreneko asteetan taldea begiratuta, tutoreak informazio aski bilduko du taldearen curriculum-helburu nagusiei buruz. Horixe da hasierako ebaluazioa.

Taldea bere horretan begiratzeaz gainera, hainbat zailtasun aurkituko zituen irakasleak haiengan, baita ere gaitasun ezberdinak, mo-

tibazio ezberdinak... Segur aski, irakaslearen kezka nagusia garun-paralisia duen ikaslea izanen da. Ikasle horren inguruko galdera ugari bururatuko zaizkio:

Nolako informazio berezia behar dut?

Non lortuko dut informazio hori?

Zer ebaluatuko dut?

Nork lagunduko nau?

Nola mugi naiteke?

Nola eragiten dio ezgaitasunak adimenean eta nortasunean?

Nolako laguntza behar du eskolako jardueretarako?

Zer ulertuko du edo zer egin ahal izanen du?

Nola ebaluatuko dut?

Nolako adierazleak erabiliko ditut irizpide gisa?

Nola lortuko dut lankideek hura ebaluatzea, mugimenduzko kon-
tuak alde batera utzita?

Nolako motibazio-atribuzioak erabiliko ditut?

Nola landuko dut haren autoestimaren garapena?

Ondotik galdera horiei erantzuten dieten hainbat iradokizun emanen ditugu; izan ere, ikaslearen hasierako ebaluazioak bidea eman diezaion tutoreari ikasketa-prozesuari ekiteko.

Garun-paralisia duen haur baten tutoreak jakin egin behar du zer den garun-paralisia eta zer-nolako arazoak ekartzen dituen berekin. Jakin egin beharko du lesioaren ondorioz garunaren heldutasun eskasak eta mugitzeko gabeziek ikasteko prozesua baldintzatu-ko dituzten asaldurak sortaraziko dituela ikaslearengan. Asaldura horiek ondoko gauzeekin lotu behar dira: ikusmenaren gorabeherak, arreta-arazoak, hautemate arazoak, arazo emozionalak eta lengo-aiaren arazoak.

Garun-paralisia duten haur guztiek ez dituzte asaldura horiek guztiak, baina aintzat hartu behar da zein den arazo hauetako ezau-
garri nagusia: arazoak ez dira banaka ematen, batzuekin batera bes-
teak baitatoz.

Adimenari dagokionez ondokoa ohartarazi behar da: mugimen-
duzko gabezia batek, berez, ez du zertan ekarri adimen gabeziarik.
Uste oker hori oso zabaldua dago. Hala ere, garapen kognitiboan
antzeaman ohi da ikasleak ingurunea aztertzeke zailtasunak ditue-
la.

Gaiari buruzko informazioa jasotzeko, Mugimendu-arazoetarako moduluko fisioterapiako aditu bat izanen da ikastetxean: horrek emanen dizkio irakasleari behar dituen azalpen guztiak, eta erantzunak aurkituko ditu sortzen diren galderetarako. Horri dagokionez, komenigarria da ikasturte hasierako zenbait saiotan fisioterapeuta tutorearekin batera egotea ikasgelan. Horrela, tutoreak modua izanen du aztertze garuneko lesioak nolako agerpenak dituen ikasle horrengan. Aintzat hartuko da, betiere, garun-paralisia duen ikasle orok bere berezitasunak dituela. Zail eta arriskutsu suertatzen da adierazpen orokorrak egitea.

Haur Hezkuntzako bigarren zikliko lehen ikasturteko tutorearentzat, lehenbiziko hiruhilekoa funtsezkoa da ebaluazio prozesuan, ikasle bakoitzak curriculumaren hiru eremuetan dituen gaitasunak ezagut ditzan.

Garun-paralisia duen haurren kasuan, curriculum ebaluatzerakoan, poliki eta sakon aztertu beharko dira irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar gero agertuko diren zenbait alderdi. Hartara, une bakoitzeko aukerak eta premia bereziak antzeman ahal izanen dira.

Premia berezi horiek ondoko eremuetakoak izanen dira, batez ere:

- Mugimendua.
- Komunikazioa.
- Banakako autonomia.
- Motibazioa.
- Hautematea-ikusmena.
- Familia.
- Eskola.

Gelako tutoreak eremu horiek guztiak banaka ebaluatuko ditu, haurrak hobekien nola ikasten duen eta zer-nolako laguntzak behar dituen ezagutzeko. Ebaluazio horren ondorioz, hezkuntza-erantzuna itxuratuko duten zenbait erabaki hartuko dira.

2.1. *Berriazko eremuen ebaluazioa*

Eremu guztiak ebaluatzeke lana tutorearentzat errazteko asmoz, ondotik azalduko ditugu eremu horiei buruzko zenbait adierazle. Adierazle horiek ikaslearen gaitasunak azalduko dituzten hainbat

item izanen dira; tutoreak berak ebaluatu ahal izanen ditu gaitasun horiek, nahiz eta gero adituek ebaluazio “sakonagoa” egin beharko duten. Tutoreari adierazle horien erabilpena errazago egiteko, hainbat erregistro-orritan bildu ditugu, III. eranskinean.


2.1.1. Mugimenduaren eremua ebaluatzeko adierazleak

Mugimenduaren eremua jarrerari eta mugimenduari dagokiona da. Mugikortasun orokorra eta mugikortasun fina biltzen dira bertan. Garun-paralisia duten haurrek, lesioaren jatorria eta haren ondorioak zein diren, aukera eta gabezia aunitz dituzte jarrerak eta mugimenduak kontrolatzeko garaian. Haurra independentea izateko ikasgelako jarduera guztietan, ondokoak baldintzetan egon beharko du:

- Jarrera egokia, pausatua dagoenean nahiz funtzio guztietarako.
- Tokiz aldatzeko gaitasuna.
- Gauzak eskuan erabiltzeko trebeziak.

Pausatua eseririk egoteko jarrera egokiak ondoko ezaugarriak bete beharko ditu: gorputzean simetria izatea, belaunak eta aldaka 90°-ko flexioan, oinazpiak lurrean eta pixka bat berezirik, eta bizkarrak aulkiaren bizkarraldean bermaturik.

Jarduerak mahaian egin ahal izateko, jarrera funtzionala erabiltzen da. Horretan, enborra pixka bat makurtuko da aurrera eta besoak mahaian bermatuko dira; horretarako, mahaia ukondoaren parean egon beharko du.



Pausatua

Funtzionala

Hauxe da lurrean lan egiteko jarrera zuzena: iskion-tuberositate-aren gainean eserita, hankak pixka batean zabaldua eta kanpo alde-tik biratuak, edo hankak “mairu” moduan jarrita.

Garrantzitsua da tutoreak atal hauek ongi begiratzea hezkuntza-erantzuna behar bezala doitzeko. Lan hori errazte aldera, ondoko adierazleak ematen ditugu:

- Nola egoten den eserita: aulkia, aulki egokitua, haur-gurpila...
- Nola leku-aldatzen den: arrastaka, eskorga batekin, eskuz la-gunduta...
- Nahi gabeko mugimenduak egiten ditu, beste gauza batzuekin lotu beharrekoak.
- Nolakoa den bere jarreraren gainean duen kontrola: burua eror-tzen zaio, aurreko aldera makurtzen da, aldeetara makurtzen da...
- Nola erabiltzen duen material didaktikoa: berak bakarrik har-tzen du materiala; hurbildu egin behar izaten zaio; bi eskuak ibiltzen ditu; zein material erabiltzen duen hobekien...
- Eskuekin nolako abilezia duen:
 - Bi besoak erabiltzen ditu.
 - Bi eskuak biltzen ditu gorputzaren batez besteko lerroan.
 - Eskuak gorputzaren atal guztietara eta gauzetara zuzentzen ahal ditu.
 - Ukabilak nahi duenean zabaldu eta ixten ditu.
 - Gauzak hartzen eta garraiatzen ditu.
 - Pintza gordinarena edo finarena egiten du.
 - Hatzak bereizten ditu.
 - Hatz batez edo puntzoi batez seinalatzeko gauza da.
 - Hatz batez edo puntzoi batez tekleatzeko gauza da.

2.1.2. *Komunikazioaren eremua ebaluatzeko adierazleak*

Garun-paralisia (GP) duen haurrak, arazoak izaten ditu ahozko hizkuntzaren eremuan edo arnasa kontrolatzeko, fonazio-aparatu-aren funtzionamendu eskasarengatik.

Adierazteko zailtasunak modu askotakoak izan dituzte: geldotasu-na hitz egiteko orduan, intonazio-aldaketak, ahots-aldaketak... baita ahotsik ez izatea edo eztarriko hotsak baizik ez egitea ere.

Keinuen bidezko adierazpena ere ukituta dago eta gorputzaren bidezko keinuen laguntza behar izaten du nahi duena adierazteko.

Komunikazioari buruzko lehenbiziko ebaluazio bat egiteko, ondokoen antzeko adierazleak begiratu eta erregistratzea gomendatzen dugu:

- Familiako pertsonen eta kanpokoaren arteko bereizkuntza egiten du.
- Familiarenak diren gauzak ezagutzen ditu.
- Familiaren, bere buruaren eta gauza batzuen irudiak ezagutzen ditu.
- Gauza bat beste gauza batekin eta gauza bat dagokion irudiarekin lotzen ditu.
- Mezu errazak ulertzen ditu.
- Ahozko hizkuntza du.
- Ulermenaren eta adierazpenaren arteko esateko moduko bereizkuntza gertatzen da.
- Mugimenduzko arazoak izaten ditu hitz egiteko: mingaina atara, lerre-jarioa, aho itxia...
- Haren hizketa ulertezina da kanpokoentzat, eta baita hurbilekoentzat ere.
- Ondokoak ibiltzen ditu komunikatzeko: soinuak, hitz solteak, begirada, seinaleak, keinu naturalak (burua, eskuak).
- Ahozko mugimenduak, soinuak, silabak edo hitzak imitatzen ditu.
- Bere oinarrizko beharrak adierazten ditu: elikadura eta higiena.
- Bere sentimenduak adierazten ditu: poztasuna, tristezia, haserrea.
- Hitz egiteko zailtasuna dela-eta frustrazioa agertzen du.

2.1.3. *Banakako autonomiaren eremua ebaluatzeko adierazleak*

Banakako autonomiaren eremuan eguneroko hiru ekintza ohikoak sartu behar dira: janztea eta jantziak kentzea, garbitasuna eta jatea.

Mugitzeko eta jarrerak kontrolatzeko zailtasunek eguneroko jarduera horiek baldintzatzen dituzte, eta modu horretan garun-paralisia duen haurren autonomia murriztu ere egiten dute. Garrantzi handikoa da maila horretatik ikaskuntza prozesuari ekiteko lan bakoitzean haurrak dituen independentzia eta laguntza-beharrak ebalua-

tzea. Gero, laguntza horiek kentzen joan beharko da –lortutako arrakasten arabera–; gero, beste jomuga batzuk programatu beharko dira.

Ondotik adierazten ditugun adierazleak ere –eskolako testuinguruari dagokionez– aintzat hartu, alderatu eta familiako testuinguruan zabaldu beharrekoak dira. Adierazle horiek ere aplikatzeko eremu zabalak dute, haurrak mugitzen ikasteko prozesuan duen garapenaren eta gauzak maneiatzeko duen gaitasunaren arabera.

Horrela, bada, eskolan dauden prozesu guztietan –baina batez ere Haur Hezkuntzako bigarren zikloan–, adierazle horiek erabili ahal izanen dira. Ondokoak dira eremu horretan aipatu beharrekoak:

- Kazadora berak bakarrik kentzen du.
- Laguntza ematen du kentzeko orduan.
- Bata, kazadora... berak bakarrik janzten du.
- Badaki botoiak lotzen.
- Badaki zapatiletako sokak askatzen.
- Esfinterrak kontrolatzen ditu.
- Ez du laguntzarik behar izaten komunera joateko.
- Badaki eskuak berak bakarrik garbitzen.
- Hamarretakoa berak bakarrik jaten du.
- Ogitartekoa zabaltzen badaki.
- Badaki berak bakarrik pitxer batetik edaten.
- Hamarretarako ondokoak jaten ditu: yogurra, gailetak, Ogitartekoa...
- Lerdea dariola egoten da.

2.1.4. *Ikusizko hautematearen eremua ebaluatzeko adierazleak*

Haurren garun-paralisiarekin batera, askotan, begietako asaldurak izaten dira. Bi modutakoak izan daitezke:

1. *Begien estatikako asaldurak*: geldotasuna eta ezegonkortasuna izaten da begirada finkatzeko orduan; begien dantza izaten da. Dantza horiek aldakorrak izaten dira; batzuetan, koordinazio eza izaten da nagusi begietako mugimenduetan.
2. *Asaldurak begien dinamikari lotutakoak*. Honako zailtasunak dira sail honetakoak: begiekin jarraipenak egitekoak, begirada jasotzekoak eta begien konbergentzia lortzekoak (estrabismoa).

Arazo horiek asaldurak sortarazten dituzte ikusizko hautematea eta ikasketak garatzeko garaian. Hori dela eta, beharrezkoa eta garrantzitsua da jakitea haurrak nolako hautematea izaten duen. Lan horretan laguntzeko hainbat adierazle jarri ditugu ondotik:

- Jostailu, pertsona eta laminekin begirada mantentzen du.
- Asko hurbiltzen da gauzei haiek begiratu ahal izateko.
- Barritze-mugimenduak egiten ditu buruaz lamina bat begiratzeko duenean.
- Hobeki bereizten ditu ziluetak marrazkiak baino.
- Gauzei begiratzen die haiek eskuekin maneatzen ari denean.
- Saio bat baino gehiago egin behar izaten ditu gauza bat hartu edo hura harrapatzeko orduan.
- Ongi daki marrazki bat lamina batean aurkitzen.
- Ongi izendatzen ditu horizontalki kokatutako marrazkiak.
- Ongi izendatzen ditu goitik behera kokatutako marrazkiak.
- Mahaiaren zein aldetan izaten duen hautemate hobeagoa: goian, behean, eskuinean, ezkerrean.
- Zein jardueretan eta zein materialekin izan dituen arazoak.

2.1.5. *Eremu sozio-afektiboa ebaluatzeko adierazleak*

Eremu honetan, ondokoei buruzko alderdiak sartu ditugu: haurrak helduarekin, berdinekin, izaten duen elkarreragina, ezaugarri afektiboak, lehentasunak edo interes eta motibazioak, eta ikastetxe-ko duen estiloa.

Afektibitateari dagokionez, GPa duten haurrek halako ezegonkortasun emozional bat agertzen dute. Ezegonkortasun horren iturria akats neurologikoan eta inguruneko faktoreetan dago.

Ikaslearen eskuhartzea doitu ahal izateko, lagungarri gertatuko zaio tutoreari ongi ezagutzea haurarentzat interesgarrien suertatzen dena, hain zuzen ere haren motibazioak ongi ezagutzeko. Eremu honetan, ondoko adierazleak erabil daitezke, besteak beste:

- Pozik joaten da eskolara.
- Beste hurrekiko harremana: bakarrik jolasten du, talde txiki batean jolasten du, besteekin konpartitzen ditu jostailuak...
- Helduekiko harremana: onarpena, menpekotasuna...
- Gehien maite dituen jarduerak, materialak eta tokiak.

- Nolako aldartea izaten duen: pozik, triste, aldakor, antsietatez, oldarkor egoten da; bestelako erreakzioak...
- Jakin-mina erakusten du.
- Bere asmo eta desioak komunikatzen ditu.
- Iniziatiba izaten du gauza berrietan hasteko.
- Egin beharreko irtenbidea emateko erabiltzen dituen estrategiak: saioa-akatsa, gauzak aztertu egiten ditu, plangintzak egiten ditu...
- Jarduerak burutzeko erritmoa.
- Nolako jardueretan izaten duen arrakasta eta zeintzuetan porrot egiten duen.
- Laguntza eskatzen du, halakorik behar duenean.
- Ez du laguntzarik eskatzen, baino eskaintzen diotenean onartu egiten du.
- Besteren laguntza errefusatu ohi du.
- Errefortzuen aurrean izaten dituen erreakzioak.
- Errefortzuak behar izaten ditu lanak bukatu ahal izateko.
- Pozik gelditzen da egiten dituen gauzekin.
- Askotan “ezin dut” esaten du, eginbeharrei ekiteko garaian.
- Hitz ezkorrak erabiltzen ditu bere lanei buruz hitz egiteko orduan.
- Hitz baikorrak erabiltzen ditu bere lanei buruz hitz egiteko orduan; bere burua sendotzen saiatzen da.

2.1.6. *Eskolako eremua ebaluatzeako adierazleak*

Beharrezkoa da tutoreak gogoeta egin eta hurbileko ingurunea –ikasgela– eta ikastetxeko alderdi orokorrak ebaluatzea, mugimenduzko hezkuntza premia bereziak dituen ikasleari dagokion neurrian. Aldagai horiek eragina izaten dute mugitzeko, elkarreragiteko eta –orokorrean– ikasteko haurrak dituen gaitasunak erabili eta garatzerakoan. Hona kontuan hartu daitezkeen zenbait aldagai:

- Ikasgela behar bezain zabala da haurra gurpil-aulkiarekin, aulkitxoarekin, ibiltariarekin, hiruhankakoarekin edo antzekoekin ibiltzeko.
- Ikasgela barneko tokien antolamenduak bidea ematen du mugitzeko ezgaitasunak dituen haurra haietara iristeko.

- Dagoen materiala egokitzea.
- Materiala kokatzerakoan, haurraren irispidean jarriko da, bertiere haren autonomia norainokoa den. Altuera egokian jarrita daude gauzak.
- Modu berezi bat dago eginbeharrekoak azaltzerako, ikasleak hobeki uler ditzan.
- Laguntza-jarduerak modu arrazoizkoan eta orekatuan banatuta daude.
- Zein egoeratan izaten duen atarramentu hobeagoa: biribilean jarrita, talde txikitik, banaka...
- Zein lanekin nekatzen den gehiago.
- Eguneko zein unetan ateratzen duen atarramentu hobeagoa.
- Taldean ongi txertatzea erraztuko duen toki batean kokatuta dago.
- Ikasgelan izaten duen tokiak aukera ematen dio egiten den guztia ikusi eta entzuteko.
- Ikasleak erdietsiko dituen emaitzei buruz laguntza-taldeak dauzkan itxaropenak.
- Taldeak haurrarekiko erakusten duen jarrera: haren ondoan esertzea gustatzen zaie; patioan bat-batekotasunez jolasten dute harekin; laguntza ematen diote materiala eskuratu ahal izateko; laguntza ematen diote batetik bestera mugitzeko; haren txanda errespetatzen dute, itxaron behar badute ere...
- Ikastetxeko leku komunak egokituta ote dauden: komunak, jangela, korridoreak, patioa...
- Mugimenduzko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei arreta egitea jasota dago ICPan.
- Hezkuntzako laguntzaren unitatea (HLU) aldiro-aldiro biltzea aurreikusten da.
- Profesional guztien lana koordinatzeko bilerak aurreikusi dira.

2.1.7. *Familiaren eremua ebaluatzeko adierazleak*

Ondokoek osatzen dute familiaren eremua: etxean bertan mugimenduzko ezgaitasunak dituen haurrarekin izaten diren harremanak eta familia ikastetxearekin izaten dituen harremanak.

Maiz askotan, mugitzeko ezgaitasunen bat duen haurraren gurasoek hainbat etapatatik pasa behar izaten dituzte haurraren onarpena, sentimenduak eta perspektibak direla eta.

Prozesu bat izaten da haurra bere horretan onartzea, dauzkan muga eta aukera guztiekin. Prozesu hori garatzeko berebiziko garrantzia dute guraso eta haurren arteko harremanak. Eskola bera lagungarri gerta daiteke gurasoentzat, errealitatera egokitzeko prozesuan eta seme-alabari laguntzeari buruzko orientabideak emateko orduan.

Lan hori egin ahal izateko, ezinbestekoa da familia-harreman horiek eta eskolarekin izaten dituztenak ere balioestea. Horretarako, zenbait adierazle erabiliko ditugu:

- Etxean nola esertzen den.
- Nola mugitzen den.
- Nola komunikatzen den.
- Elikatzea:
- Nahiago izaten dituen jolasak.
- Norekin jolasten duen.
- Etxetik kanpo, zer-nolako jolasetan hartzen duen parte.
- Gurasoek ezgaitasunaren aurrean agertzen duen jarrera.
- Familiarekin kolaboratzea.

Aurreneko ebaluazio hori oinarritzkoa izanen da beharrianak zehaztu eta finkatzeko eta etengabe balioetsi beharreko doikuntzak edo egokitzapenak egiteko. Horrek guztiak ebaluazio jarraitua egin eta gero erabakiak hartzeko behar den prozesua osatzen du.

I.J. GP espastikoa duen hiru urteko haurra da. Ikastetxe arrunt batera joaten da haur eskolako lehen mailara. 14 ikasle daude ikasgelan.

Tutoreak I.J.ren premia bereziak lehen hiruhilekoan balioetsi zituen. Hona horren emaitza:

Mugimenduaren eremua (jarrera eta mugimendua):

I.J. aulkitxo bat erabiliz iristen da ikastetxeko atarira; han, ibiltari bat hartzen du ikasgelara joan eta bere tokira iristeko. Ikasgela, une honetan, belaunekin arrastatzen da, ipurditxoarekin eta eskuekin

bultzadatxo txikiak eginez. Gelditzen denean, ipurditxoa hanken artean jarrita esertzen da. Ez du zutik jartzeko modurik, zeri eutsi edukita ere. Aulki arrunt batean esertzen ahal da, baina hankak aurreko alderantz joaten zaizkio lan egiten ari denean. Lurrean kuxin batean esertzen da, horman bermatuta, “mairu”aren jarrera erabiliz.

Ongi maneiatzen ditu sukaldeko txokoko materialak. Eraikuntzen txokoan, berriz, piezak erori egiten zaizkio zerbait egin nahi duenean. Pintzelez margotzeko jardueretan, pintzela sobera motza da, eta pinturak finegiak; ezin izaten ditu kontrolatu. Hobeki moldatzen da enkajeak egiteko, pibotak baldin badituzte.

Komunikazioaren eremua:

Bere adinari dagozkion agindu eta mezuak ulertzen ditu. Beharri-zanak eta sentimenduak ahozko lengoaiaz adierazten ditu.

Komunikatzeko funtzioak erabiltzen ditu gauzak eskatu edo errefusatzeko. Bizikizunak bat-batekotasunez kontaktzen ditu. Esaldiak zuzen erabiltzen ditu, eta testuinguru egokietan. Talde handi batean hitz egin nahi duenean, kikildu egiten da, eta oso baxu hitz egiten du, hitz gutxi erabiliz. Heldu batekin bakarrik dagoenean ozenki hitz egiten du, hitz ugari erabiliz.

Banakako autonomiaren eremua:

Badaki hamarretakoa eta sukaldeko tailerrean egindakoak berak bakarrik jaten.

Ez du autonomiarik jantzeko edo jantziak kentzeko; gauza da, ordea, berokiaren bigarren mahuka atera eta berokia kakoetara eramaten. Laguntza behar du berokia kakoan zintzilikatzeko.

Esfinterrak kontrolatzen ditu. Laguntzailearekin joaten da komu-nera; haren laguntza behar izaten du irazitako eta garbitzeko lanetan.

Ikusizko hautematearen eremua:

Ez du batere zailtasunik entzumenean. Ikusmenari dagokionez, zalantza larriak ditugu, ez baitu begirada eskatzen zaion tokian finkatzen.

Eremu sozio-afektiboa:

Ikastetxean ongi egokitu da. Arauak errespetatzen ditu. Gauzak, tokiak eta helduen arreta konpartitzen ikasten ari da. Badaki gauzak ikasgelaren barrenean non dauden. Laguntza eskatzen du, halakorik behar duenean; gehienetan, helduei. Badaki bere txanda itxaroten.

Beste haurrekin hobeki erlazionatzen da talde txikietan; batzutan, bakarrik egotea gustatzen zaio. Lasai eta pozik egoten da. Ongi onartzen ditu helduek proposatutakoak. Bat-bateko hartu-emanak izaten ditu.

Eskolaren eremua:

Ikasgelako luze-zabala eskasa da ibiltari batekin eroso mugitzeko. Materiala egoki antolatuta dago txokoetan, I.J.k eskuratzeko moduan.

Ez dago egokitutako material didaktikorik. Zailtasun handienak arkatz eta paperarekin mahaian egin beharreko lanetan izaten ditu.

Ezin du pintzelaz astoen gainean margotu.

Ikaskideek ez dute jarrera deigarririk I.J.rekin tratatzeko orduan.

Ikastetxea Mugimenduzko ezgaitasunak dituzten ikasleentzako lehentasunezko zentroa denez, sarbideek eta gainerakoek ez dute arkitektura-oztoporik.

HLUa astean behin elkartzen da.

Gainerako hiru curriculum-eremuetako edukien ebaluazioari dagokionez, I.J. gainerako ikaskideak bezala ari da.

2.2. "Sakonagoko" ebaluazioa

Arestian azaldutako eremuak aztertuz tutoreak lortu dituen emaitzen arabera, beharrezkoa izan daiteke emaitza horietako batzuei buruzko ebaluazio sakonago eta xeheagoa egitea.

Horretarako, tutoreak adituen taldearen laguntza izanen du. Talde hori ondokoek osatu ohi dute: fisioterapeuta, pedagogia terapeutikoko irakaslea, logopeda, hezkuntzako laguntzailea eta orientatzailea.

2.2.1. *Fisioterapeuta*

GPa duen haurren kasuan, beharrezkoa izanen da beti fisioterapeutak berriazko ebaluazioa egitea. Ebaluazio horren emaitzaren arabera aukeratuko da haurrari egin beharreko arreta fisioterapeutikoa eta profesional horrek tutoreari, logopedari eta hezkuntzako laguntzaileari eman beharreko orientabideak.

- Gihar-tonua: espastizitatea, hipertonia, hipotonia eta tonu aldatkorra.
- Pausatuta dagoeneko eta mugitzen ari deneko jarrera.
- Gihar eta artikulazioei buruzko balantzea: uzkurtzeak eta haiek murriztekoak.
- Mugitzeko garapenaren maila: erreflexu primitiboak daude, nahi gabeko mugimendu anormalak, zuzentzeko erreakzioak, orekatzeko erreakzioak, jarreraren kontrola, jarrera-aldaketak, ibilera, presioa eta atzipena.
- Autonomia maila: jantzeko eta jantziak kentzeko, garbiketa, elikadura eta irazketa.

Ebaluazioaren ondorioz, fisioterapeutak arinki ukituta dauden haurrak, neurritz ukituta dauden haurrak eta larriki ukituta dauden haurrak bereizten ditu.

Ondokoak dira kasu arinak: ibilkera independentea dagoenean edo/eta batere laguntza fisikorik edo laguntza fisiko txikia behar denean eskolako eta egunerako bizitzako jardunetan.

Neurritz ukitutako haurren kasuetan, laguntza teknikoak edo/eta pertsonen laguntza behar izaten dute ibiltzeko edo/eta eskolako eta egunerako bizitzako jardunetan.

Kasu larrietan, ez dago ibilkera autonomorik, alde batera utzita goiko atalak asko ala gutxi txikian ukituta dauden.

2.2.2. *Logopeda*

Garun-paralisian hainbat asaldura gertatzen dira komunikazioaren eta hizkuntzaren eremuan; haur guztiek ez dituzte izaten, hala ere. Zenbait kasutan, ez da logopedaren balioespen berriazkorik behar. Tardieu-ren (Chevrie-Muller, 1979) arabera, GPa duten haurretatik % 75ek asalduraren bat izaten dute. Hori dela eta, arazo sorta zabalagoa dago: hasi artikulazioko, ahotseko eta intonazioko arazoetatik eta komunikatzeko ezintasunera bitarteko guztiak.

Baldintza horietan, logopedak balioespen sakonagoa egingen du ondoko alderdiei buruz:

- Aurretik logopedengandik jaso duen tratamendua.
- Elikadura: irenste ez-ohikoa, lerdek...
- Arnasa.
- Fonazio-aparatuaren gihar-tonua.
- Praxiak.
- Fonazioa.
- Artikulazioa.
- Prosodia.
- Lengoiaren garapena, alderdi ezberdinetan.

Ikasle batek hitz egiterik ez duenean edo hizketa ulertezina duenean, logopedak erregistratu eta aztertu egingen ditu komunikatzeko erabiltzen dituen beste lengoia-mota horiek: keinu naturalak, soinu ulertezinak, gauzak begiradaz zein eskuez seinalatzea...

Ikaslearekin komunikatzeko ahal den eta modu gehien eta ugarien –testuinguru ezberdinetan erabiltzekoak– biltzeko, logopedak irakaskuntza-taldeko gainerako profesionalen laguntza beharko du, balioespena osatu ahal izateko. (IV. eranskina: “Komunikazioa behatzea”).

2.2.3. Hezkuntzako laguntzailea

Hona hezkuntzako laguntzailearen eginkizun nagusia: ikasleari bere behar oinarrizkoetan eta banakako autonomiarekin eta gizarte-autonomiarekin zerikusia duten eskola-jardueretan laguntzea. Ondoko atal hauetan laburbil daitezke haren eginbeharrak:

- Banakako autonomia: janzteia eta jantziak kentzea, garbiketa, elikadura eta iraizketa.
- Gizarte-autonomia: ikasgela, jangela, patioa eta txangoak.

Programa hauek garatzeko, beharrezkoa izanen da aldez aurretiko balioespena egitea. Hezkuntzako laguntzailea fisioterapeutarekin eta tutorearekin arituko da langintza horretan. Haurraren komunikazioa behatu eta erregistratzeko gida gisa, V. eranskineko adierazleak erabil daitezke: “Banakako autonomia ebaluatzeko gida”.

2.2.4. *Orientatzailea*

Orientatzailea izanen da ebaluazio prozesuari eta haren eremu ezberdinei batasuna eta orokortasuna ematen ahal dien profesionala. Haren lan berariazkoena ondokoan datza:

- Behaketari buruzko plangintza.
- Behaketarako materialak jartzea.
- Alderdi zehatzak zuzenean behatzea.
- Proba estandarizatuak erabiliz, garapen kognitiboa eta haute-matearen eta ikusmenaren alderdiak behatzea, NHBBZko Ikusmene-ko Ezgaituen Moduluaren berariazko taldearen laguntzarekin.

2.2.5. *Pedagogia terapeutikoko irakaslea*

Ikasgela barruan, PTko irakasleak ebaluazio sakonagoa egin dezake fisioterapeutak hasitako esku-funtzioari buruz, ikasgelako jardue-
ren inguruko atalak osatu ahal izateko. (“Esku-funtzioa balioesteko gida”, VI. eranskina)

2.2.6. *Tutorea*

Arestian azaldutako eremu eta alderdiak ebaluatuta, tutoreak goi-
tik behera ezagutuko ditu GPa duen ikaslearen gaitasunak. Hala eta
gutziz ere, arazoak izan ditzake psikomotrizitateko saioko jarduera
zehatzak egiteko. Komenigarria izanen da fisioterapeutarekin eta
hezkuntzako laguntzailearekin lan egitea, ikasgelako programa azter-
tu eta jarduera guztiak edo haietako batzuk balioesteko; izan ere, ho-
rrela zehaztu ahal izanen baita nolako laguntzak behar dituen hau-
rrak taldearekin lan egin ahal izateko.

Haur Hezkuntzako curriculumaren gainerako ebaluazioari dago-
kionez, tutoreak gainerako ikasleekin erabiltzen dituen irizpide ber-
dinak erabiliko ditu.

VII. eranskina erabil daiteke familiaren inguruneari eta gizarte-
inguruneari buruzko zenbait alderdi jaso eta balioesteko.

2.3. Ebaluatze bitartekoak

2.3.1. Tresnak

Ikasgelako jarduerak egiterakoan eta probatuko egoeretan behatzea da ebaluazioa egiteko gomendatzen dugun lehen prozedura.

Behaketa hori egiteko tresna egokienak eranskinetan adierazitako adierazleak eta irakaslearen egunkaria izanen dira; azken horretan, irakasleak haurren eta taldearen jokamoldeak jasoko ditu. Ezin dira ahaztu ikus-entzunezko teknikak; horiek ebaluatze tresna baino, behaketa erregistratzeko prozedurak dira. Erabiltzen errazak dira, informazioak iraun egiten duela eta informazio hori jasotzeko daukaten ahalmena dira haien alderdi onena.

Badaude izan garun-paralisia duten haurrentzako berariazko proba estandarizatuak. Garapen kognitiboa balioesteko Columbiako Adimen Heldutasunari buruzko eskala dago. Zenbait egokitzapen egiten ari dira gaur egun eskala eta testetan, hura mugimenduzko ezgaitasunak dituzten hurrei aplikatu ahal izateko, ordenadorearen pantailaz baliatuta. Ondokoak dira aipatzekoak: Leiterren Nazioarteko Eskala, Ravenen testari buruzko Matriz Progresiboak (Irudia Kolorea) eta M^a Victoria de la Cruzen Eskolaurreko Testa.

2.3.2. Estrategiak

Mugimenduzko ezgaitasuna duen ikaslea ebaluatze, irakasleari lagungarri izanen zaizkion moduak aipatu nahi ditugu estrategiak azaltzerakoan.

Komentatuko ditugun estrategien bidez zera bilatu nahi da: haurrari aurkezten zaizkion lanak egoera baliagarria izatea ikasleak bere gaitasun mailarik handiena erakusteko. Estrategia guztiak ez dira baliagarri izanen GPa duten hurrekin lan egiteko. Beharrezkoa izanen da horietatik haur bakoitzarentzat eta lan bakoitzerako egokienak hautatzea. Ondokoak dira, besteak beste, aintzat hartu beharreko estrategiak:

- Ahal den guztietan, ebaluatze jarduerak ikasgelako egoera normalizatuetan egingen dira.
- Ebaluatu beharreko helburuak eta edukiak hobekien islatuko dituzten jarduerak hautatu behar dira.
- GPa duen ikasleak izaten duen artegatasun handia. Arreta berezia jarri beharko da ingurune-baldintzetan, eta ongi begiratu

beharko da ebaluatu behar den unean haurrak berak duen tentsio-maila. Urduritasunik sumatzekotan, komenigarriagoa izanen da haurra erlaxatzea ebaluazio jarduera burutzea baino.

- Ebaluazio-jardueretan, ikasleak egunero ikasgelan erabiltzen dituen materialak erabili beharko dira. Haien material egokituak probatuko dira, haurrak haietako zeinekin ateratzen duen etekin handiagoa jakiteko.

A.Y.G. gauzak maneiatzeko arazoak dituen lau urteko haurra da. Bost piezako puzzle bat egitean zetzan ebaluazio-lana eman zitzaion, eta ez zen gauza izan piezak hartzeko ere. Seinaleak eta helduaren laguntza erabili ziren piezak kokatzeko. Gero, pibote bat jarri zitzaion pieza bakoitzari. Horrela, ikaslea gauza izan zen puzzlea modu autonomoan egiteko.

- Kontuan hartu behar da GPa duen ikasleak lan bat egiteko behar duen denbora. Gehiago izaten da beste ikasleek behar izaten duena baino. Haren erritmoari egokitu beharko da. Erantzuna ez da aurreratu behar.
- Jarduera pausu txiki-txikitan zatitu beharko da; zati horien zailtasuna progresiboa izanen da.
- Ebaluazioak eskuhartzerako abiapuntu bezala balio dezan, laguntza mota deskribatu beharko da: fisikoa, aldi bereko eredia ematea, imitatu nahi den jarduera-eredua aurkeztea, jarraibide partzialak ematea jarraibide orokor bat ematea baino, ikusizko laguntzak ematea...
- Garbiketa eta janzteia ebaluatzeko orduan, aproba egin daiteke jantzien egokitzapen-modu ezberdinekin: belkroak, botoi handiak, uztaiak kremailetan...; komunak ere egokitu beharko dira, beharrezkoa bada.
- Elikatzeko autonomia balioesterakoan, elikagaiak eta jateko tresnak ere aintzat hartu behar dira.
- Ahozko produkzioa dagoenean, nahiz eta akatsak izan ahoskatzekoan eta manipulazioetan, ahozko erantzunetan oinarrituko da behaketa.

- Hizketarik ez badago, haurrak begirada edo eskuak erabiltzen ditu seinalatzeko.
- Burua mugituz erantzuteko moduko galdera itxiak ere erabil daitezke.
- Ahoskatzeko arazo larriak baditu, haurrak ahozko emisioak edo seinaleak erabil ditzake erantzuteko. Ez da komeni bi moduak aldi berean erabiltzea, elkarri loturiko erreakzioak saihesteko.
- Alde banatik ebaluatzea haurra adierazteko gauza dena eta ulertzeko gauza dena.
- Eskuen erabilpen funtzionala egiteko, mahaian lanak egiteko orduan, beharrezkoa izanen du gorputza eserita mantentzea jarrerara zuzenaz. GPa duten haurrei hori erraztu egin behar zaie, ahal den neurrian.
- Haurra eserita egotea ezinezkoa bada, ahoz beherako etzanera erabiliko da, arrabol edo hiruangeluko ziri bat erabiliz.
- Jarduerak egiterakoan, hala lurrean nola mahaian, jarrera zuzena lortzeko eta haurrari egonkortasun eta segurtasun handiagoa emateko, altzariak egokitu egingen dira, eta jarrera mantentzea erraztuko duten materialak probatuko dira (kuxinak, zingilak, ziriak...).
- Haurrari aurrez aurre eta begien parean hitz egin behar zaio, jarreraren egonkortasuna galaraziko dion lepoaren hiperestensioa saihesteko.
- Batzuetan, beharrezkoa izanen da lehentasuna ematea lan bat egiteari jarrera erabat zuzena mantendu ez arren; betiere, egoera horrek gutxi irautea bilatu beharko da.
- Buruaren kontrol eskasa duten haurren kasuan, hobe izaten da egin beharrezkoa goitik beherako planoan aurkeztea (atrilela, arbela, ohola...).
- Bi eskuak mahai gainean jarri behar dira; bietatik ukituena dagoenak lagun egingen dio besteari. Eskuak itxi samar baditu haurrak, eraginkorra izaten da masaje batzuk ematea esku-gainean.
- Eskuak oso ukituta daudenean, "irakaslearenak izanen dira haurraren eskuak": haurrak adierazi beharko dio lana nola burutu.

- Materialak ikusizko-eskuetako koordinazio onena ematen den mahaian jarriko dira.
- Hautemate arazoak dituzten haurren kasuan:
 - Animua eman behar zaie eskuei eta haiekin maneiatzen dituzten gauzei begira diezaieten.
 - Tamaina erdiko marrazkiak eta laminak aurkeztu behar zaizkie, eskematikoak, oinarritzko xehetasunak dituztenak eta fondo konplexurik gabekoak.
 - Lamina bat aurrean duela, galderak eginez egiaztatzea haurrak guk nahi duguna hautematen dutela.
 - Ongi kokatzea ikusmenaren eremuko zein aldetan perzzibitzen duen hobekien. Horretarako, egin beharrekoa mahaian batetik bestera mugituko dugu.
 - Kontrastea egiten duten koloretako marrazkiak aurkeztuko ditugu.
 - Horma-irudiekin lan egiterakoan, ikasleak tamaina txikiagoko marrazki berdin bat eduki dezake mahaian.
- Haurrak alde batera edo bestera joateko joera badu, gauzak kontrako aldean aurkeztuko zaizkio.
- Helduak ebaluazio-jarduera egiteko ematen dituen jarraibideak argiak eta zehatzak izanen dira, eta batetik bestera tarte egokia utziko da, mezuak prozesatzeko erritmoa errazte aldera.
- GPa duen haur bat ezin bada bera bakarrik mugitu, behar duen materiala eskuratuko zaio; bestela, ikasgelako behar diren txokoetara eraman beharko da.
- Pizgarrien sistema ezberdinak erabiliko dira: jakiak, edariak, ikusizko kontaktua, kontaktu fisikoa, gehien gustatzen zaizkion gozokiak edo hitzezko errefortzu positiboa. Gero, eraginkorrenak hautatu beharko dira.
- Garrantzitsua da haurraren egoera emozionala adieraziko diguten hitzezko edo keinuen bidezko adierazpenez ongi ohartzea.
- Ordenadorea erabiltzea lagungarri gerta daiteke ebaluazio-jarduera batzuetarako; bestela, haien ordeez ere erabil daiteke.

3. LEHEN HEZKUNTZA

Haur Hezkuntzaren aroko eremu berariazkoak ebaluatzeko prozesuak Lehen Hezkuntzako curriculumeko eremu berrietan ere jarraituko du. Ebaluazio horrek arazo handiagoak ekarriko ditu irakurmena-idazmena eta matematikaren lengoia bezalako gaitasunak neurtzeko eta ikasgelak gorputz hezkuntzarako duen programa garatzeko. Ezinbestekoa izanen da, beraz, ebaluazioa berriz ere egokitzea.

A.J.L. sei urteko neska ba da; GP tetraparesikoa du. Haren hizketa ulertezina da. Haur Hezkuntzako bigarren mailan, komunikatzeko sistema alternatibo bat ikasten hasi zen, Komunikaziorako Sistema Piktografikoa (KSP); horrek lagundu egiten dio komunikatzen.

Eskuarekin marrak egiten ditu, bizkarra bereizi eta hurbiltzeko mugimenduak eginez. Beste batek eskumuturra hartzen badio, goitik beherako mugimenduak ere egiten ditu eskuarekin. Ezin du eskumuturra biratu.

Gauza bat hartzeko, erpurua beste hatzen aurka jartzen du. Bartzuetan, kosta egiten zaio gauzari eusten, kontrolik gabeko mugimenduak direla eta.

A.J.L. Lehen Hezkuntzako lehen mailan ari da; beraz, irakurtzen idazten ikasteko prozesuan hasi berria da.

Irakasleak ondoko galdera egiten dio bere buruari: Nola ebaluatuko dut Laura, irakurtzen besteak bezala ikasten ari ote den? Nola neurtuko dut noraino ikasi duen idazten?

3.1. Irakurmenaren ebaluazioa

Hitz egiten ez duen edo hitz egiteko zailtasunak dituen ikasle batek irakurtzen nola ikasten duen ebaluatzeko, irakasleak haurrarekin komunikatzeko kode bat ezarri beharko du. Horretarako, hainbat estrategia erabil daiteke:

- Galdera itxiak egin. Adibidez: *pato - palo - pelo - pata* hitzen segida emanda. Irakasleak galdera sail bat egingen du aurreko hitzei buruz: pata jartzen al du hemen... Haurrak buruari eraginez erantzunen du.

- Artean ere, irakurtzen ikasi aurreko bitarteko gisa, komunikatze-ko sistema alternatibo bat erabiltzen duten haurren kasuan, sistema hori erabil daiteke irakurritakoaren ulermena ebaluatzeko.

Adibidez: Idatzizko esaldi baten aurrean, *“mamá come pan”*, irakasleak ondoko galdetuko du: zer jartzen du hemen? Irakasleak (Komunikaziorako Sistema Piktografikoa) esaldia osatzen duten hitzei dagozkien hiru irudiak seinalatuko ditu KSPko oholean.

- Ordenadore programak ere erabil daitezke irakurritakoaren ulermena ebaluatzeko.

Adibidez: hitz edo esaldi bakoitzari bere marrazkia eman.

Lauraren irakasleak ikasgelan lantzen ziren letra eta hitzekin txartelak egiten zituen. Lan egiteko material berezi bat sortu zuen haiekin. Galdera irekiak eginez, neskari erantzuna seinalatzeko eskatzen zion. Horrela egiaztatzen zuen Laurak bere ikaskideak bezala ari zela irakurtzen ikasten.

KSPn seinalatzeko sistema ere erabiltzen zuen, *“zer jartzen du hemen?”* estiloko galderak egiten zituenean.

3.2. Idazmenaren ebaluazioa

Goiko ataletan arazoak izateak idazmenean ere bere eragina izaten du. Idazmenean, eskuzko kontrola behar duten gainerako jarduerak bezala, bere funtzioetan arazoak daudenean ezezik tonuan eta jarrearen kontrol orokorrean arazoak daudenean ere izaten da eragina.

Idazmena eskolako lan konplexu bat da, non oso garrantzitsua izaten baita mugimenduen funtzionamendu zuzena eta gorputzeko jarrera zuzena izatea. GPa izan eta goiko atalak ukituta dituen haur batek idazten ikasteko, haren baldintzak eta ikasketa hori errazteko zenbait neurri eta estrategia sartzeko aukera aztertu beharko dira.

Idazteko arazoak ondoko faktoreen arabera izaten dira, besteak beste:

- Gabezien jatorriak eta norainokoa.
- Ukituta ez dauden egituren heldutasuna.
- Aurretik egin dituen jarduera grafomotrizak.
- Gabeziak berdintzeko gaitasuna.
- Arazo afektiboak izatea ala ez izatea.

- Arazo sensopertzeptiboak leku-denboraren antolamenduaren arlokoak izatea ala ez izatea.

Zailtasun hauek asko aldatzen dira haur batetik bestera, eta horien ondorioz arazoak izaten dira idazten ikasteko garaian. Ondokoa dira, besteak beste, maizen gertatzen diren arazoak: idazteko ezintasun funtzionala, marrak egiteko geldotasuna, arazoak mugimendu finak egiteko, oztopoak progresio grafikoan eta tresnari eusteko zailtasunak.

Eskuz idazteko aukera ebaluatu behar da lehenbizi: haurrak daukan gabeziaren larritasunak zehaztuko du hori. Haur Hezkuntzako etapan, jarduera motrizak behatu behar ditu tutoreak, aukera horri buruzko zenbait orientabide izateko.

Goiko ataletan ezintasuna duten haurrak agertuko dira. GPak ondorio handiak ekarri dituen haurrak dira. Haien aurka dago gorputzenborrean euskarri ahula izatea. Kasu horietan, beharrezkoa izaten da aurrena aulkia egokitzea, besoak eta zingilak jarriz, oin-euskarria edo/eta belaunak bereizteko ziri bat. Haurra lor daitekeen jarrera onenean jarri denean, tutoreak ondoko bitartekoak erabili ahal izanen ditu idazmena ebaluatzeko:

- Eskuaren atzipenaren arabera doitutako inprentatxoak.
- Oholtxo edo txartel lodituak, letra, silaba edo hitzetan piboteak jartzea.
- Burdinezko arbelak, imandun letrekin.
- Ordenadorean idazteko programak ere erabil daitezke, teklatuan behar diren egokitzapenak eginda.

Ebaluaziorako material hauek ikasleak berak erabiltzen ahalko ditu, eskuzko funtzioaren hondarrek horretarako bidea ematen dutenean; edo, bestela, tutoreak berak erabiliko ditu, ikasleak seinaleak egin eta ondoren, haurra erabat ezinduta dagoenean.

Beste zenbait kasutan, idazteko erabiliko den eskua hautatzea izanen da arazo nagusia. Behaketa zehatza egin beharko da bi eskuetan trebeena zein den finkatzeko. Ez da sekula erabiliko lesio handiena duen eskua, nahiz eta horrekin ariketak egitea komenigarria dela irudi. Hemiplegien kasuetan, arazoa ez da hautaketa hori izaten, izan ere, ikasleak berak modu naturalean erabiltzen duelako ukituta ez dagoen eskua. Hala ere, aintzat hartu beharko dira jarrerekin loturiko alderdi orokorrak eta ukituta dagoen aldearen kolaborazio eza.

Haurrak maneiatzeko dituen arazoak arinak direnean, materialean egindako egokitzapen txikiek (arkatzak loditzea, egokitzaileak, bel-

krozko euskarriak...) modua emanen digute idazmenaren ikasketa baliosteko eta ikasketa horri ekiteko biderik onena zein den jakiteko.

GPa duen haurrak zailtasunak izaten ditu abiadura eta zehaztasuna batera eskatzen dituzten jardueretan. Ongi gogoan hartu behar du hori tutoreak. Beraz, aski izan daiteke lan ez oso zabal bat ebaluatzea, kontuan hartzen bada GPa duen ikasleak lanak egiteko behar izaten dituen denborak.

Laurak idazten nola ikasi duen egiaztatzeko, haren irakasleak oholtxo lodituak erabili zituen, haietan neskak idazten ikasteko erabiltzen zituen letrak grabatuta. Hitz bat idazteko eskatzen zion irakasleak; Laurak behar zituen oholtxoak hautatu eta idazten hasten zen. Irakasleak lagun egiten zion oholtxoak kokatzeko mugimenduak bukatzen.

Momentuz, Laurak ikasgelako gainerakoen erritmoan ari da irakurtzeko-idazteko ikasketetan, eta bere ikaskideen jarduera berdina egiten ditu; hori bai, papera eta arkatza erabili partez, seinaleak eta oholtxoak erabiltzen ditu.

3.3. Gorputz hezkuntzaren ebaluazioa

Eremu hau ebaluatzeko oinarria fisioterapeutaren azterketaren emaitzak izanen dira. Aditu horrek, GParen eta eragin mailaren arabera, ikasleak gorputz-hezkuntzako klaseetan parte hartzea komeni den ala ez erabakiko du. Ebaluazioaren emaitzan oinarrituta, haurrak eskola-ordu horietan gainerakoekin batera parte hartzea erabaki bada, fisioterapeutak jarraibide batzuk emanen dizkio irakasleari ebaluatu beharreko jardueri buruz.

Adibidez: oreka mantentzeko eta hanka-puntetan mugitzeko aritek kontraindikazioa dute "zaldi-oinak" dituzten haurrentzat.

Jarduera horiek ebaluatzeko, aintzat hartu beharko da ikasleak ematen duen laguntza fisikoa.

Fisioterapeutak zenbait saio egingen ditu gorputz hezkuntzako irakaslearekin batera. Mugimenduzko ezgaitasuna duten ikasleek jarduera horietan izan ditzakeen aukerak eta nolako parte hartzea eduki dezakeen behatzea izanen da helburua, bai eta horretarako zer-nolako laguntza behar duen zehaztea ere.

Aldian-aldiko bileretan, fisioterapeutak eta G.H.ko irakasleak aurrera egingen dute ebaluazio prozesuan, ikasgelako programazioaren arabera.

II. HEZKUNTZA-ERANTZUNA EMATEKO ORIENTABIDEAK

GPa duen haurra ikastetxe arrunt batean sar daiteke eta sartu ere sartu behar da. Nahiz eta ikasle horiek zenbait zailtasun eduki ikasteko, balioespenean bildutako informazio guztiaren azterketak hezkuntza premia bereziak finkatzeko balioko du. Behin horiek finkatu direnean, erantzun berdintzaile egokia prestatzeko moduan egonera. Mugimenduzko ezgaitasuna duten ikasleek curriculumera iristeko behar izaten dituzten laguntzak gainerako ikasleek behar dituztenez bestelakoak dira; beraz, berariazko eskuhartze pedagogikoak sortu beharko dira, erantzun pedagogiko arruntaz bestelakoak. Eskuhartze horiek curriculum-egokitzapenaren behar den maila guztietan hartu beharko dira aintzat.

Eskuhartze pedagogikoak, gainera, haurrarekin lan egiten duen lantaldeak hartutako erabakiak diren aldetik, Ikastetxeko Curriculum Proiektuan, ikasgelako programazioan eta banakako egokitzapenetan azaldu beharko dira. Beraz, eman beharreko erantzunean, ikastetxea bera da eskuhartzearen lehenbiziko maila; ikastetxeak, izan ere, LOGSEren integrazio eta ulermen printzipioak bereganatzen ditu Hezkuntza Proiektuan, eta printzipio horiek erdiesteko behar den hezkuntza-egitura ezartzen du.

Tutoreak eta ikaslearekin lan egiten duten gainerako langileek aintzakotzat hartu beharko dituzte curriculumaren hurrengo zehaztapen-mailetan behar diren jarduketa pedagogikoen gaineko erabakiak. Ikaslearen eta eskola-ingurunearen aukera eta mugapenen egoera jakin eta errealari buruzko balioespena izanen da erabaki haien oinarrian. Baliabide material edo/eta pertsonal jakin batzuk erabiliz gero, erraztasunak emanen zaizkio ikasleari plangintza baten ondo-

rioz irakatsi nahi zaion guztia ikasteko. Zehatzago izateko, eta kon-tuan hartuta aurretik esandakoa, eskuhartzeko egokitzapenak ondo-koak egitera bideratuko dira:

- Ikastetxeko aldaketak.
- Ikasgelako aldaketak: garrantzi handirik gabeko egokitzapenak.
- Garrantzi handiko egokitzapenak: ACI.

1. IKASTETXEAN EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Ikastetxeko aldaketatzat hartzen dira ikastetxearen ingurune fisi-koan eta Ikastetxeko Curriculum Proiektuan egin beharreko egoki-tzapenak.

1.1. *Ikastetxea fisikoki egokitzea*

Ibiltzeko autonomiarik ez duen haur baten hezkuntza premia be-reziei eman beharreko erantzuna ikastetxera joateko moduari irten-bidea bilatzen zaionean hasten da. Hori dela eta, NHBBZk, ikastetxe-ak berak eskatuta, behar diren izapideak egiten ditu erakunde edo zerbitzu egokietan, behar den garraiobidea eskatzeko.

Sarbidea. Gurpil-aukiak erabiltzen dituzten haurrak ikastetxera sartzeko desnibelak daudenean, ikastetxeak Arranpa bat jarri behar-ko du. Arranpa horrek, gehienez ere, % 8ko inklinazioa izanen du; bestalde, 90 cm zabal izan beharko da, gutxienez. Zoruak material la-bainezina izan beharko du.

Ibilkeria egonkorrik ez duten haurrentzat, sarbide hori errazteko 60 eta 80 cm-ko barandak jarriko dira eskaileretan edo sartzeko arranpan.

Ateak. Gurpil-aukia duen haur batek ikastetxeko atea erabiltze-ko modua izan dezan, atea palanka itxurako heldulekua edo barra horizontal bat –presio bidez atea irekitzekoa– izan beharko dituzte. Atea, gutxienez, 90 cm zabal izanen da.

Korridoreak eta eskailerak. Beharrezkoa izanen da esku-banda biribilduak jartzea, paretatik lau cm-tara jarriak eta bi altuera ezber-dinetan kokatuak, ibilkeria egonkorrik ez duten adin ezberdinetako haurrek erabil ahal izan ditzaten. Esku-bandaren azpiko aldetik bi-ratzeko aukera duen barra bat jarriko da; horren bidez, izan ere, ko-

rridorea zeharkatu ahal izanen dute aurkako aldean diren ikasgeletara sartu nahi duten ikasleek.

Aisialdirako patioan, eusteko barra bat jarri ahal izanen da eraikinetik ateratzeko atletik jolasteko eremu ezberdinetara bitarte.

Igogailua. Solairu bat baino gehiago duten ikastetxeetan, igogailu bat instalatu beharko da ikaslea toki guztietara (ordenadoreetako aretoa, laboratorioak, liburutegia...) iristeko modua izan dezan. Izan ere, zaila izaten da horrelako toki guztiak beheko solairuan izatea.

Fisioterapia aretoa. Ikasleak mugitzeko gaitasunak eskuratu eta garatuko baditu, ikastetxeak fisioterapiako material berariazkoa duen areto bat eduki beharko du. Mugimendu-arazoetarako modulua da material hori Nafarroako Gobernuaren Erosketa Bulegoan eskatu duena.

Komuna. Ibilkera egonkorrik ez duten ikasleentzat, komunean eusteko barrak jarri beharko dira, fisioterapeutak emanen duen irizpidearen arabera kokatuta. Gurpil-aulkia duen ikasleak maniobra egiteko behar hainbateko zabalerako komuna beharko du. Gainera, zabaltasuna beharko da bertan mahai bat ezartzeko, ikasleari haur-oihalak aldatzeko beharra dagoen kasuetan.

Konketak behar bezain altuak eta oinik gabekoak izanen dira, gurpil-aulkia azpitik sartzeko modua izateko; monomandoak eta ispilua ere behar bezain altu jarri beharko dira.

Haurrek manipulatzeko zailtasunak dituztenean, irtenbide ezberdinak bilatu beharko dira xaboia, esku-oihala, komuneko papera eta zisternari eragitekoa kokatzeko orduan. Horrela, ikasleak laguntza handiagoa eman ahal izanen du garbiketa kontuetan.

Komunak oinik ez izatea eta gurpil-aulkiaren altuera berdinean egotea komeni da, transferentzia -hau da, aulkitik komunera eta komunitik aulkira aldatzea- erraztu ahal izateko.

Etengailuak. Gurpil-aulkian dabilen ikasleak erabiltzeko moduko altueran jarri beharko dira.

Laboratorioak. Mahaiak eta piletak behar den altueran jarriko dira, gurpil-aulkian dabilzan ikasleek erabiltzeko moduan.

1.2. *Ikastetxeko curriculum-egokitzea (IMP-ICP)*

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektu orok ezaugarri hauek bete beharko ditu: malgutasuna, funtzionaltasuna, partaidetza eta komunikazioa. Ezaugarri horiek bidea emanen dute mugimenduzko ezgaitasuna du-

ten ikasleen hezkuntza premia bereziei behar den erantzuna emanen dien hezkuntza diseinatzeko. Mugimenduzko hezkuntza premia bereziak aintzat hartuko dituen Ikastetxeko Hezkuntza Proiektu batek:

- Ikasleak ikastetxean integratzea eta parte hartzea errazten du.
- Baliabideak aurreikustea, antolamendu egokia izatea eta baliabideen erabilera optimoa errazten ditu.
- Eskolako komunitate osoak mugimendu urritasunak dituen ikaslearekiko aldeko jarrerak izatea sustatzen du.
- Irakasleen talde osoak hezkuntza premia bereziei erantzuten parte hartzea bideratzen du.
- Erraztasunak emanen ditu curriculum-egokitzapenak ahal bezain txikiak izateko; horrela, normalizazio handiago bilatu nahi da.
- Ikasleak nahi ez dituen aldagaietatik etor daitezkeen ikasketasaldurak saihesten ditu.
- Bidea errazten du behar diren garrantzizko egokitzapenak egin ahal izateko.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan adierazitako asmo horiek errealitatean gauzatzeko, behar-beharrezkoa da ondokoei buruzko erabakiak hartzea Ikastetxeko Curriculum Proiektuan:

1.2.1. *Helburu eta edukiak*

- Helburu orokorrak berritik zehaztea, mugimenduzko hezkuntza premia berezien arabera.
- Fisioterapiako helburuak eta edukiak sartzea.
- Lehenetasuna ezartzea helburu eta edukietan, eta gutxienezko batzuk zehaztea.
- Helburu eta edukien sekuentzia eta denborei buruzko irizpideak ezartzea, betiere mugimenduzko hezkuntza premia bereziak kontuan harturik.

1.2.2. *Metodologia eta antolamendua*

- Metodologi estrategiei buruzko irizpideak ezartzea. Adibidez: komunikazio sistema alternatibo bat (KSA) lantzeko metodo berariazkoak.

- Irakasle tutoreen eta adituen eginkizunak ezartzea.
- Ikasleak taldetan biltzeko irizpideak eta mugimenduzko hezkuntza premia bereziak dituen haurra talde bati atxikitzeko irizpideak zehaztea.
- Eremu komunak erabiltzeko irizpideak ezartzea.
- Laguntzak banatzeko irizpideak ezartzea.
- Ikasgelan bertan edo ikasgelatik kanpo laguntza jasotzea egokia den ala ez zehazteko irizpideak ezartzea.
- Orduak banatzeko moduan, kontuan hartzea fisioterapiako programa curriculumean sartu behar dela.
- Ikasgelatik kanpoko laguntza emateko une egokienak zehazteko irizpideak ezartzea.
- Jarduera komunetan eta eskola-irteeretan baliabideak antolatu eta erabiltzeko irizpideak ezartzea; betiere, aintzat hartuta mugimendu urritasuna duten ikasleen hezkuntza premia bereziak.
- Mugimenduzko ezgaitasuna duten haurrentzat bereziki onak diren material eta baliabide didaktikoak hautatu, prestatu eta erabiltzeko irizpideak zehaztea.
- Aldaketa fisikoak eta inguruneak egitea instalazioen erabilera errazteko (ikasgelen banaketa).
- Zikloko eta etapako promozioari buruzko irizpideak ezartzea.
- Hezkuntzako laguntzaren unitatearen (HLU) funtzionamendua zehaztea.
- Ikastetxeak eta Mugimendu-arazoetarako moduluak lankidetzan aritzeko testuinguruak ezartzea.

1.2.3. Ebaluazioa

Zer:

- Testuingurua ebaluatzeko irizpideak ezartzea.
- Zikloa eta etapa ebaluatzeko orientazio-irizpideak ezartzea.
- Mugimenduzko hezkuntza premia bereziak kontuan hartuta, Gorputz Hezkuntzako ebaluazio irizpideak ezartzea. Adibidez: fisioterapiako helburuak ebaluatzea gorputz hezkuntzakoak ebaluatu partez.

Nor:

- Haurrarekin lanean diharduen langile bakoitzaren ebaluazio-eginkizunak zehaztea.
- Mugimendu-arazoetarako moduluko langileek eta fisioterapeutak eskuhartzeko irizpideak ezartzea (orientatzailea, PTko irakaslea eta Gizarte Langilea).

Nola:

- Ebaluazio tresnak eskuratu, prestatu edo/eta egokitzea (ordenadorea, triptikoa, KSP, taulatxoak...).
- Ebaluazioari buruzko informazio-dokumentuak prestatu edo/eta egokitzea, ikasle guztiak hartzeko modukoak izan daitezten.

2. IKASGELAKO ALDAKETAK

Ikastetxeko Curriculum Proiektuan erabakiak hartzerakoan kon-tuan hartzen badira hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, ikasle horiek curriculum arruntean egoteko bidea erraztuko da. Ikastetxe mailan egokitzapenak egiten badira, txikiagoak izanen dira ikasle-talde baten programazioa egiterakoan ikasle batentzat egiteko diren egokitzapenak.

Litekeena da ez Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan eta ez Ikastetxeko Curriculum Proiektuan aintzat ez hartzea garun-paralisia duen haurra, edo, bestela, horri buruzko azterketa azaletik baizik egin ez izana. Horrek ez du zertan oztopo bat izan ikasgela eta ikasle mailan behar diren aldaketak egiteko. Kasu horretan, zehaztapen maila horietan egindako aldaketak etorkizunean Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan eta Ikastetxeko Curriculum Proiektuan egin beharreko aldaketen oinarri izanen dira, ikastetxeko mugimenduzko ezgaituen arretari dagokionez.

Arestian aipatu egokitzapenak, ikastetxeari dagozkion horiek, hezkuntzako eskuhartze integratzailea erraztu nahi dute. Ikasgela mailan -hau da, zehaztapeneko hirugarren mailan- definitu beharko da programazio ezberdinetako hezkuntza lana. Programazio horiek -zabal eta malguak izaki- tokia izanen dute banakako egokitzapenak biltzeko.

2.1. Tutorea egokitzea

Ikasle-talde baten tutorearen eginkizunak ongi zehaztuta daude *Lehen Hezkuntzako Orientabide eta Tutoretzari* buruzko dokumentuetan eta *Haur Hezkuntzako Gurasoekin Lankidetzan* izeneko dokumentuan. Eginkizun horiek berdin aplikatu daitezke garun-paralisia duen haur bat dagoen taldeari ere. Hala ere, beste dimentsio bat hartuko dute eginkizunek; izan ere GPdun haurra dagoen taldeak hala-ko berezitasun bat izanen baitu. GPdun ikasle batekin egin beharreko tutoretza lanak berekin ekarriko du tutorea haur horri egokitzea, hezkuntzako erantzuna haren beharretara moldatzeko eta eskola-komunitatea osatzen dutenen arteko harreman egokia laguntzeko: irakasleak (adituak), ikasleak eta gurasoak. Bide horretan, komenigarria izanen da tutoreak ondoko baldintzak betetzea:

- Ezagupen orokorrak izatea garun-paralisiaraz eta ikasketan dauzkan ondorioez.
- Taldeak haurrarekiko jarrera positiboa izan dezan estrategia egokiak erabiltzea (taldekatze ezberdinak, tutoretza jarduerak, taldearentzako errefortzuak...).
- Une jakin batzuetan beste irakasle bat (hezkuntzako laguntzaila, fisioterapeuta, logopeda...) ikasgelan egon dadila onartzea.
- Adituen jardunari buruzko orientabideak onartzea.
- Bere burua egokitzea berariazko materiala erabiltzera eta altzari egokituak edukitzera.
- Teknologia berriak (ordenadoreak, konmutadoreak, komunikator kanona...) ezagutu eta erabiltzea.
- Adituekin bilerak edo lan saioak egitea ordutegiak zehazteko, baterako programazioak egiteko, materiala prestatzeko...
- Programazioa praktikan jartzerakoan, kontuan hartzea GPdun haurra ikasgelatik kanpo egon ohi dela, gainerako adituekin bakarkako laguntza jasotzeko.
- Gainerako adituek ikasleari buruz duten informazioa koordinatzea.
- Hartu-eman errazak ezartzea mugimenduzko hezkuntza premia bereziak dituen ikaslearen familiarekin, ondoko helburuak betetzeko:
 - Informazioa biltzea (onarpen prozesua, egoera emozionala, kontuan hartu beharreko inguruabarrak...).


- Hezkuntza prozesuari buruzko eta egin beharreko egokitzapenei buruzko informazioa ematea.
- Ikasketak orokorragoak izateko laguntza eskatzea (banakako autonomia, KSA-aren erabilpena, motrizitatea lantzeko jolasak...).
- Orientabideak ematea aisialdiko motrizitate-jarduerei buruz.
- Laguntza eskatzea materialetan egokitzapen txikiak egiteko.

2.2. Elementu materialak eta haien antolamendua egokitzea.

2.2.1. Ikasgelako alderdi fisikoak

Garun-paralisia duen haur bat eskolaratzeko orduan, ikasgelak dituen zabalera eta akustika aztertu behar dira, baita ikasgela hautatzea bera eta ikasgela barneko elementuen kokapena ere. Ondokoak hartu beharko dira gogoan:

- Ikasgela behar bezain zabala izatea ikaslea gurpil-aulkiarekin batetik bestera ibiltzeko eta biratu ahal izateko.
- Txoko guztietara ibiltariarekin eta gurpil-aulkiarekin iristeko modua izatea.
- Kanpoko zaratek eragin txikiena duten gela hautatzea.
- Ikasgelako zarata-maila ahal den guztia murriztea GPa duten haurrengan urduritasunik ez sortzeko. Zoruan alfonbrak jar daitezke, aulki-hanketan goma edo fieltro takoak, haurrak ohi-tu daitezke atek poliki zabaldu eta ixtera, GPa duen haurrari zarata handi bat (txirrina, musika tresna...) eginen denean abisatzen ahal zaio.



- Ikasleak ikasgelan duen tokia aldatzea. Optometria funtzionaleko adituen arabera, komenigarria da haurra ikasgelan mugiaraztea halako zeharkako zortzi bat eginez.

2.2.2. *Altzariak eta baliabide didaktikoak*

Altzari eta baliabide didaktikoei dagokienez, ondokoak esan daitezke:

- Arbelen, ispiluen, pertxen, armairuen, apalen eta pintatzeko as-toetan altuera egokitzea ikasle guztiek, gurpil-aulkian dabilzainak barne, erabil ahal izan ditzaten.
- Esku-barra bat jartzea arbelaren azpian haur hemiplegikoak edo egonkortasunik ez dutenak hari heldu ahal izateko.
- Aulki eta armairuetan manipulazio-arazoak dituzten haurrek haiek erabili ahal izateko moduko tiratzaileak hautatu eta jartztea.
- Erabili ohi diren materialak: pintzel luzeak, tamaina, itxura eta ehundura ezberdinetako jostailuak, tamaina ezberdinetako bloke logikoak, guztiek erabiltzeko moduko heldulekua duten puzzleak, irakurtzen eta idazten eta zenbakietan ikasteko oholtxoak lodiagoak egitea, abako horizontala eta bertikala hautatzea... betiere, manipulazio aukeren arabera.
- Mota askotako materialak erabiltzea oinarrizko eduki bakoitzeko.
- Gorputz Hezkuntzako gelan errulo, ziri eta kuxinak jartzea.

2.2.3. *Denboraren antolamendua*

Ikasgelako denbora banatzeko orduan, garun-paralisia duen ikaslearen beharretatik abiatu beharko da. Beraz, ondokoak egin beharko dira:

- Eremuetako ordutegia egiterakoan, kontuan hartzea haurrak laguntza fisioterapikoa edo/eta logopedaren laguntza jasotzera zein ordutan joan behar izaten duen.
- Ikasgelaz kanpoko laguntza-orduak ez izatea tresna-teknikak, jarduera kolektiboak eta abar landu behar diren orduetan.
- Ahal den guztia egitea ikasgelaz kanpoko laguntza-orduak ez tokatzeko beti eremu bera landu behar den asteko orduetan.

- Eragin metodiko larria duten haurren kasuan, fisioterapiako laguntza-orduak Gorputz Hezkuntzako saioen aldi berean izatea, zati batean behintzat.
- Taldekako jardueren ordu-banaketa antolatzeko orduan, aintzat hartzea tutoreak denbora behar duela GPa duen haurrari bakarkako arreta eskaintzeko.
- Lan denborak taldekatze ezberdinetan orekatzea, GPa duen haurraren eta taldeko haurren elkarreragina errazteko.

2.3. Curriculumaren oinarritzko elementuak egokitzea

Ikasgelako programazioko curriculum-egokitzapenaren kontzeptuak curriculum arrunta malguarazi eta ikasleen aniztasunari –GPa duen haurra barne harturik– erantzuteko moduko tresna izateko behar adinako aldaketak ekarri behar ditu berekin. Ikasgelako programazioaren oinarritzko elementuen aldaketa horrek GPa duen haurraren premia bereziei erantzuten ez badie, ordea, ACI bat prestatuko da. Ondotik ebaluazioa, metodologia, irakasteko-ikasteko jarduerak eta helburu-edukiak egokitzeari buruzko zenbait gogoeta eskaintzen dizkizugu:

2.3.1. Ebaluazioa

- Bakarkako ebaluazioa egitea ikasketa berri bati ekin baino lehen.
- Testuinguruaren aldagaiak beti ebaluatzea programazioa praktikan jartzeko orduan.
- Ebaluazioari buruzko berariazko tresnak prestatzea, halakorik behar izanez gero.
- Era askotako prozedura eta tresnak erabiltzea.
- Sortzen diren zailtasunak xehekiago aztertzea, adituengana jo baino lehen.
- Hezkuntza prozesuaren ebaluazio jarraitua bideratuko duten jarduerak programatzea.
- Inguruabar eta egoera ezberdinak ebaluatzea.

2.3.2. Metodologia

- Lehentasuna ematea esperientzia zuzena errazten duten metodoei, GPa duen ikasleak ingurunearekin elkarreraginean aritzeko dituen zailtasunak berdintzeko asmoz.
- Ikasketa kooperatiboko estrategiak bultzatzea:
 - Taldekako antolamenduak.
 - Taldekide guztien parte-hartzea eskatzen duten lanak eta jarduerak hautatzea.
 - Ikasgelako lan ezberdinetan, arduradunen dinamika ezartzea. GPa duen ikasleari ardura egokia ematea.
 - Ikasleen arteko laguntza-dinamika bat ezartzea.
- Edukiak informazioa sartzeko bideen arabera aurkeztea. GPa duen haurrak hautemate-arazoak dituenen, entzumenaren eta ukimenaren bidezko informazio-sarrerak lehenetsiko dira.
- Ikasteko berezko motibazioa errazten duten estrategiak erabiltzea:
 - Bakarkako egitura ezlehiakor baten barnean lan egitea, non ikaslearen arrakasta bere gaitasunetan bilatu ezezik egindako ahaleginean ere bilatu beharko den.
 - Kooperazio egitura batean lan egitea; egitura horretan GPa duen haurrak taldearen arrakastaren partaidea izanen da, alde batera utzita lan horretan zer ekarpen izan duen.
 - Ikasleen autoestimua areagotuko duten ahozko mezuak erabiltzea.
 - Itxaropen baikorrak izatea ikasleen etekinari buruz, konprobatuta baitago horrek eragin handia duela ikasleen motibazioa garatzerakoan.
 - Era askotako pizgarriak erabiltzea.
- Arreta fokalizatzeako era askotako estrategiak erabiltzea:
 - Ikasgelako ingurugiro baldintzak kontrolatzea; izan ere, eragin handia baitute GPa duen haurraren arretarengan. Bat-bateko zarata eta soinuak saihestea.
 - Ahaleginak egitea lanak, laminak eta horma-irudiak kokatzerakoan eta material didaktikoak erakusterakoan, giro lasaia egon dadin eta ez dadin gehiegizkoa izan ikusizko estimulazioa.

- Marrazki argiak, ongi perfilatuak eta fondoarekin kontrastea dutenak erabiltzea lamina eta horma-irudietan.
- GPa duen ikaslearen aurrez aurre hitz egitea irakasleak ahozko azalpenak emateko garaian.

2.3.3. Irakasteko-ikasteko jarduerak

- Zailtasun maila ezberdineko jarduerak programatzea.
- Unitate didaktiko berarako jarduera ezberdinak programatzea, helburuak bete ahal izateko.
- Burutzeko modu ezberdina duten jarduerak programatzea.
- Talde eta ikasle ezberdinekin jarduera ezberdinak egiteko aukera ezartzea.
- Bakarkako jarduerak, eta talde txiki eta handientzako jarduerak programatzea, modu orekatuan.
- Ikasleek jarduerak aukeratzeko uneak ezartzea.
- Ikasgelaz kanpo eta eskola inguruan egitekoak diren jarduerak programatzerakoan, hezkuntzako laguntzailearen laguntza behar ote den eta GPa duen haurarentzat garraiobideren bat behar den aurreikustea.
- Ikastetxeaz kanpo egitekoak diren jarduerak programatzerakoan, garraiobide egokitua eta hezkuntzako laguntzaileak behar diren aztertzea.
- “Irteerak” antolatzerakoan, haur guztiek egiteko moduko ibilbideak eta jarduerak diseinatzerakoan.

2.3.4. Helburuak eta edukiak

Tutorearen eginkizuna da ikasgelako programako helburuak eta curriculum-edukiak egokitzea, GPa duen haurra ez dadin gera programa horretatik kanpo. Haien aldatu beharko dira, beren horretan –hasieratik formulatuta zeuden bezala–, erabiltzeko balio ez badute.

Tutoreak ondoko aukerak izanen ditu bere programazioko helburuak eta edukiak egokitzeke:

- *Denborak ezartzea*: aurreikusitako helburura iristeko ikasle baten behar duen denbora luzatzeko aukera dago.

- *Lehentasunak jartzea*: taldearen hasierako ebaluazioaren ondorioz, tutoreak egoki jo dezake helbururen bati lehentasuna ematea.
- *Birformulatzea*: helburuan adierazitako gaitasuna mantendu, baina hura adierazteko modua aldatuta.
- *Sarrera*: garun-paralisia duen ikasle bat dagoen taldean, aldaketa horrek KSA bat ezartzeko aukera adierazi nahi du, bereziki. KSA hori talde osoak ikas dezake, baina erabilpen maila ezberdinekin.

C.N.Y. 4 urteko neska bat da; GPa diagnostikatu diote, eta agerri koreoatetosikoak eta anartria distonikoa ditu.

Heldu baten beharra du ibiltzeko.

Ulermen egokia du bere adinerako.

Ez du hitz egiten. Keinu naturalen sistema bat erabiltzen du, eta gizarte-elkarreragin egokia sortzen du, hala bere berdinekin, nola helduekin.

Haren garapen kognitiboa normala da.

C.N.Y. ikastetxe arrunt batean eskolaratu zuten, 3 urterekin, 20 ikasle zituen Haur Hezkuntzako ikasgela batean.

Tutoreak, ikaslea ikasgelako programan tokia izan zezan, ondoko aldaketak egin zituen zenbait helburutan:

- Haur Hezkuntzaren helburuan: “Ahozko hizkuntza modu...” *formulatu ordez*, “Hizkuntza modu...” formulatu zuen. Horrela, helburu berbera erdiets zezakeen ikasleak, komunikatzeko beste modu bat erabiliz, alde batera utzita ahozko hizkuntza erabiltzen duen.
- Talde osorako beste helburu bat *sartu zuen* programazioan. “KSP (Komunikatzeko Sistema Piktografikoa) ikaskideekin erabiltzen jakitea”.
- Eskolako bigarren urtean, tutoreak iritzi zuen *lehentasuna ematen* ahal ziola irakurtzen-idazten ikasteko helburu-edukiari. Haren ustez, neurri hori bideragarria zen talde osoarentzat, eta bereziki onuragarria zen C.N.Y.rentzat. Bide horretan, komunikatzeko, ikasleak sistema alternatiboa irakurketa-idazketarekin ordeztan has zitekeen.

Arreta berezia eskaini behar zaio Gorputz Hezkuntzaren eremuko edukien egokitzapenari. Gorputz Hezkuntza egokitua esaten denean, irakaslearen egokitze prozesu bat dago atzetik; prozesu horretan, irakasleak planifikatu eta jardun beharko du ikaslearen beharrezko erantzuteko bidea aurkitu arte. Beharrezko horien arabera, lanaren programazioa egingen da: GPa duen ikaslearen egokitzapen modua bilduko da bertan; garrantzi berezia eman ahal izanzen zaie alderdi metodologikoei eta jarduerari (kasu arinetan) edo helburu eta edukiei (kasu larriagoetan).

GPa duten ikaslearen kasuan -ibiltzeko autonomiarik badute behintzat-, gerta daiteke G.H.ko jarduerara asko doitu gabe egotea, eta, beraz, ikaslea horiek zuzen egiteko gauza ez izatea. Ikasle horientzat, ondoko oharpenak hartu beharko ditugu gogoan:

- Jarduera zabalak diseinatzea, zailtasun eta betetze maila ezberdinekoak.
- Helburu bat bera lantzeko jarduerara ezberdinak diseinatzea.
- Talde handian, talde txikian edo bakarka egin beharreko jarduerak modu orekatuan diseinatzea.
- Ikasleek libreki hautaturiko jardueren plangintza egitea.
- Jarduera fisikoak planifikatzea eskola-orduez kanpo, fisioterapeutaren jarraibideei jarraituz eta gurasoen onarpenarekin.
- Ikaslearentzat nolabaiteko erronka diren jarduerak sartzea, eta ikaslearentzat onuragarri ez diren jarduerak edo ikasleak parte har ezin daitekeenak kentzea.

Gaixotasunaren eragin larria duten eta ibiltzeko laguntza fisiko edo/eta tekniko behar duten ikaslearen kasuan, beharrezkoa izaten da helburuak eta edukiak sartu, kendu edo lehenestea, izan ere irakaslearen ustez ikasgelako taldearekin lantzen ezinak edo desegokiak badira.

M.J.I.: zortzi urteko neskatu bat, GP diplejia espastikoa duena.

Aulkitxoan mugitzen da. Zutik ere egon daiteke laguntza fisikorekin.

Besoak eskola-jardueretan eta eguneroko bizitzan modu funtzionalean erabiltzeko gauza bada ere, arazoak izaten ditu mugimenduak koordinatzeko.

Kasu honetan, ondoko erabakiak hartu zituen ikastetxeko profesionalen taldeak:

- Lehentasuna ematea bipedestazio autonomoa eta ibilkera lantzeko helburu-edukiei.
- Aurreko gaitasunak edukitzea eskatzen duten jarduera guztiak kentzea.
- Mugimendua garatzeko jarduerak banaka egitea, eta haiek irakasteko ardura fisioterapeutaren esku uztea.
- Taldeko Gorputz Hezkuntzako saioak eta M.J.I.ren fisioterapeutarenak eskola-ordu beretan jartzea.

3. CURRICULUMA NORBANAKOARI EGOKITZEA (CNE)

Behin ikastetxe eta ikasgela mailako aldaketak egin direnean, mugimenduzko ezgaitasuna duen ikaslearen behar guztiei erantzun ez bazaie, Curriculumua Norbanakoari Egokitzea (CNE) egingen da.

Ikaslearengan zentraturiko CNE, beraz, irtenbideak aurkitzeko erabakiak hartzeko prozesu baten amaierako ondorioa da, premia bereziak dituen ikasle batek ikastetxean bere tokia izan dezan. Irtenbide normalizatuenak aurkitzea izanen da kontua.

Irakasleen talde batek CNE bat egitea erabaki duenean, curriculumaren irispide-elementuetan nahiz oinarritzko elementuetan egin ahal izanen ditu aldaketak.

3.1. *Sarrera elementuetako egokitzapenak*

Irispide-elementuak ez dira, berez, curriculum-egokitzapenak, baina haien izenak dioenez, haiek aldatzea ezinbestekoa izaten da mugimenduzko ezgaitasuna duen ikasleak oinarritzko curriculumera iritsiko bada. Aldaketa horien garrantzia ondokoan datza: gure eskarmentuari jarraituz, askotan elementu horiek curriculumera iristeko beharrezkoak diren bakarrak izaten dira, baita aldaketa handirik egin gabe ere.

Irispide-elementuak bi ataletan bana daitezke:

Elementu materialak.

Elementu pertsonalak

3.1.1. Elementu materialak

Ondokoak sartzen dira elementu materialetan: eskolako altzariak eta material didaktikoa, eta ikasgelari buruz *Ikastetxea fisikoki egokitzea* eta *Elementu materialak eta haien antolamendua egokitzea* atal-letan aipaturiko aldaketak.

Irispide-elementu gisa, berebiziko garrantzia dute mugimenduzko ezgaitasuna duen ikasleak eskola-jarduerak zuzen egiteko behar dituen *altzari egokituek*. Ikasleak bere jarduerak eginen dituen toki ezberdinetako aulkiak eta mahaiak sartzen dira hor.

Altzarien egokitzapenak haur bakoitzaren beharren arabera egin beharko dira. Kasu guztiak banaka aztertu eta egokitzapenak probatu beharko dira. Fisioterapeutaren figura da behar diren egokitzapenei buruzko orientabideak emateko pertsonarik egokiena. (*Eskuhartzeari buruzko eranskinak: Eskolako altzariak egokitzea*)

Komeni izaten da fisioterapeutaren jarraibideak familiarekin alderatzea, diseinaturiko egokitzapen horiek etxean ere erabili ahal izateko.

Egokitzapenak, betiere, ahal den sinpleenak izanen dira. Ahal izanez gero, taldeko gainerako kideek erabiltzen dituzten altzariak ere aldatuko dira.

Haurrak gelan hartzen duen jarrera ere kontrolatu beharko da, nahiz eta behar zen egokitzapena egin. Bereziki begiratu beharko da aldaketak, haurra haztea, ebakuntza kirurgikoak eta abar gertatzen ote diren, eta altzariak horietara egokitu.

Hona eskolako altzarietan maizen egiten diren egokitzapenak:

- Kontrol zefalikorik ez duten haurrentzat, aulkian buruko biguna jartzea.
- Eserlekuan eta bizkarrean, ez irristatzeko tirak jartzea, erreflexu hiperestensorea izateko joera duen haurra aurrerantz irrista ez dadin.
- Aulkiaren eserlekua okertzea, ziri bat sartuta, pelbisaren flexioa sortu eta belaunak igoarazteko; horrek iskionaren tuberositatean hobeki bermatzea bideratzen du.
- Aulkiaren eserlekuan bereizteko tako bat jartzea, aduktoreetako erreflexua (belaunak elkarri hurbiltzea) saihesteko.
- Gorputz-enborrean hiperestensioa duten haurren kasuan, ziri ezberdinak jartzea omoplatoen atzean, sorbalda aurrerantz mantentzeko.

- Aulkietan beso-euskarriak jartzea, bizkarrezurraren kontrol gutxi daukan haurra alde batera eror dadin saihesteko.
- Oin-euskarriak jartzea, oinak ongi bermatzeko eta oinen zaldipatroia gerta ez dadin kontrolatzeko.
- Bizkarrezurra kontrolatzen ez duten haurrentzat, muxarradura egokia duen mahai bat jartzea.
- Eskuen kontrolik gabeko mugimenduak dituzten haurrentzat, gauzak lurrera etengabe erortzea saihesteko, ertzak jartzen ahal dira mahaiaren hiru aldetan.
- Mahai gainean bentosak eta euskarriak jartzea lagungarria izan daiteke haurraren jarrera kontrolatzeko. Ikaslea esku batez eutsiko die. Horrek bidea emanen dio libre duen eskuarekin hobeki manipulatzeko.
- Itxura ezberdinetako lurreko eserlekuek modua ematen dute haurra ikaskideen altueran eserita egoteko, halakorik eskatzen den jardueretan.
- Material labainezinak jar daitezke haurraren mahaian, materiala irrista ez dadin.
- Plano okerreko mahaiek, okerdura graduatzeko modua duteenez, errazago egiten dute haurrak burua zutik edukitzea eta egiten ari dena ongi ikustea. Batzutan, helburu bera lortuko da mahaian atrile bat jarrita.
- Igeltsuzko karkasak edo moldeak jar daitezke aulkitxo eta aulkietan, gaixotasunaren eragin larria duten haurrek enborra hobeki kontrolatzeko.
- Hankabikoak. Haurra zenbaitetan zutik jartzea behar denean erabiliko dira.

Mugimendua errazteko beste elementu batzuek ere haurra curriculumera iristea bideratuko dute; izan ere, mugimenduzko ezgaitasuna duen haurrak ibiltzeko erabiltzen dituenak: bitutoreak, lau hankatan ibiltzekoak, makuluak eta era askotako gurpil-aulkiak.

Behin behar bezala egokituriko altzariak dauzkagunean, hauxe izanen da ondoko urratsa: *material didaktikoan eta eskolako tresnetan* haurraren manipulazioa erraztuko duten alternatibak eta irtenbideak aurkitzea. Egokitzapen txikiak eginda, ikaslearen manipulazio-ahalmenak areagotu egiten dira, eta hori oso lagungarria gertatuko da jardueretan gainerako ikaskideekin batera parte hartzeko eta haiekin elkarrenergina izateko. Haur bakoitzak atzitzeko dituen ahalmenak ezagutu beharko da, eta bai zein atzipen modu egin dezakeen ere

(ukabilez, zilindrikoa, esferikoa...), edo zein modutako pintza egitea lortu duen (hatzekin, esku-ahurrarekin, hatzen artean, alde batekoa). Horren arabera, egokitzapen egokia egingen da. (*Eskuhartzeari buruzko eranskinak: Material didaktikoa egokitzea*)

Hona egokitzapen horien adibideak:

- Aurreidazketarako eta idazketarako tresnen atzipena hobetzeko, tresna horien lodiera eta itsasgarritasuna handitzeko, gomazko tutuak eta burlete itsaskorrek erabiltzen dira; bestela, arkatzean goma-espumako pilotak edo haurraren eskuaren arabera moldeaturiko egokitzaileak jarriko dira.
- Haurrak atzipenik ez badu, tresna eskumuturrari edo eskuari eusten zaie, belkro bandak erabiliz.
- Besoak egonkortasunik ez duela ikusi bada, besaurrekoari eusteko oinarri bat erabiliko da. Haur koreoatetosikoekin, lastredun eskumuturrekoak erabiltzen ahal dira. Horrela, normalak ez diren mugimenduak nabarmen murriztuko dira.
- Eraikuntza piezetan belkroak jartzeak bidea emanen du kontrol gabeko mugimenduak dituen haurrak eraikuntza lanak hobeki egiteko.
- Puzzle, domino eta abarreko piezetan, piboteak jartzen ahal dira, haurrak material horiek hobeki hartu eta erabili ahal izateko.
- Arestiko materialak kartoi gogorrez edo okumen txapaz loditzea izan daiteke manipulazioa hobetzeko beste modu bat.
- Aurreidazketako trazuak dituzten zulodun oholtxoak erabiltzeak ere trazu horien ikasketa erraztuko du.
- Haurrari produkzio plastikoetan muga batzuk gordetzea bideratzen ez dioten kontrol gabeko mugimenduak gertatzen direnean, egokia izaten da topea egiten duten erliebedun plantillak erabiltzea; izan ere, horrela, muga horien kontzientzia hartuko baitu ikasleak.
- Modu askotako guraize egokituak saltzen dira GPa duen haurraren ebakitzeko moduarentzat lagungarri suerta daitezkeenak. Gaixotasunaren eragin larria duten haurren kasuan, badaude grapagailu baten antzeko guraizeak, atzipen mugimendu soilaz ebakitzen dutenak.
- Ikasleak zorrozkailea modu autonomoan erabili ahal izanen du, mahaiari finkatuta badago.

- Lerde-jarioa duten haurren kasuan, eta atzitzeko moduarengatik fitxak, papera, laminak, argazkiak eta abar zimurtzen dituztenen kasuan, lagungarria gertatzen da material horiek plastifikatzea.
- Mugimenduzko ezgaitasuna duten ikasleen hezkuntzaren eremuan, ordenadoreak aukera handiak zabaltzen ditu haurra curriculumera iristeko.

Noiz izaten da egokia ordenadorea sartzea?

Mugitzeko arazoak ikasleari hitzezko eta idatzizko produkzioa galarazten diotenean, irudi edo sinboloen sistema (KSP, Bliss, piktogramak, PIC...) batez komunikatzeko ahalmena ematen dio ordenadoreak. Ahots eta soinu txartela erabiltzeko aukerak ere elkarreragina areagotuko du, idatzitakoa soinuaren bitartez emanen baitu (komunikatzailea).

GPa duten zenbait haurren kasuan -manipulaziorako dauzkaten mugak direla eta-, ez da funtzionala izaten tresna arruntak erabiltzea lan grafikorako. Ordenadorea funtsezko elementua izanen da kasu horietan. Aldi berean, grafomotrizitatea lantzen jarraitu beharko da.

Eskuzko funtzioan arazoren bat daukaten haurren kasuan, ordenadorea idazketa eta marrazketa lantzeko errefortzua ere izan daiteke, baliabide horrek dauzkan abantailak direla eta. Hona abantaila horietako batzuk:

- Ikaslearen lan egiteko erritmoa errespetatzen du.
- Produkzio garbiak lortzen dira.
- Denbora gutxiago behar da lan egiteko.
- Ikasleak autonomia gehiago du lan egiteko.
- Ikaslearen arreta zentratzen du.
- Motibazio gisa ere balio du.
- Porrotaren zentzua deuseztatzen du.

Ikasleak mugitzeko dituen aukera eta muga guztiak bakarka aztertuta beharko dira ordenadorea sartu baino lehen, erantzun egokia eman ahal izateko teklatura erabiltzeko behar dituen egokitzapenak egin aurretik. Praktikan, zenbait aldakuntza egin beharko dira. Hona arruntenak:

- Metakrilatozko karkasa zuloduna.
- "Sagu" egokituak.

- Bi tekla bakarrik erabiltzea, espazio-barra eta intro; gainerakoak, belkroz eutsitako oholtxo batekin estaliko ditugu.
- Presio bidezko konmutadoreak, putz egitekoak...
- Eskumuturra eusteko oinarria (harea-zaku txikiak, hiruki itxurako ziriak, kuxin txikiak...).
- Komutadoreak eskuari eusteko belkroak.
- Metakrilatozko lerre-zapiak, komutadoreei eusteko.
- Tekleatzeko punteroak.
- Teklak finkatzeko gailuak.

3.1.2. *Elementu pertsonalak*

Elementu pertsonalak tutorearekin eta gainerako irakasleekin, lantaldean, ikaslearen mugimenduzko hezkuntza premia bereziei arreta egiten dieten langile adituen multzoari esaten zaie (fisioterapeuta, logopeda, orientatzailea, hezkuntzako laguntzailea eta pedagogia terapeutikoko irakaslea). Profesionalen aniztasun horrek bidea ematen du erantzun onena emateko; betiere, bakoitzaren espezialitatea aintzat hartuta, haien eginkizunak lan kooperatiboaren bitartez osatuko duen antolamendua eduki beharko dute.

Fisioterapeutari, II. kapituluan azaldutako ebaluazio-eginkizunaz gainera, mugimenduzko ezgaitasuna duen haurraren errehabilitazio fisikoa egiteko tratamendua eta jarraipena dagokio. Berariazko teknikak erabiliz, mugimenduaren patroia normalak modu onenean lortzen eta garatzen ahalegindu behar da: erreflexuen inhibizioa eta postura ez-ohikoak, kontrakturen eta forma-anormaltasunen prebentzioa, eta jarrera patroia normalak lortzeko laguntza.

Eguneroko bizitzako jardueretan eta ingurunea zuzentzeari dagokionez, hobekuntza funtzionalak lortzen ahalegindu behar da, ikaslearen segurtasuna indartzeko eta haren autonomia garatzeko.

Fisioterapeutak ondoko lanak bete beharko ditu beste profesionalentzat: eskolako jarduerak egiteko jarrerako jarraibideei buruzko orientazioa, eta altzari eta materialen egokitzapenari buruzko eta ikasketen orokortzeari buruzko orientabideak ematea.

Logopeda mugimenduzko asaldurak dituzten ikasleen komunikazio-ahalmenak ebaluatu eta garatzen dituen aditua da. Komunikatzeko ahalmenean fonazio eta artikulazio sistemak ezezik gorputz

osoak ere esku hartzen du. Hori dela eta, GPa duen haurrak norainoko asaldura duen kontuan hartuta, halako edo bestelako arazoak izanen ditu komunikazio mailan. Hori horrela izanda, logopedaren eskuhartzea adierazpen-lengoiarekin lotura duten mugimendu alderdien asaldura-mailak zehaztuko du.

Zenbait haurrek arazoak dituzte aho-aurpegiaren edo aho-fonazioaren aparatuen motrizitatearekin. Kasu horietan, ondoko alderdi nagusiak landu beharko ditu logopedak: lerdea kontrolatzea, mastekatea era iresketa, arnasa eta erlaxazioa hobetzea, eta ahozko produkzioaren aurretiko praxiak.

Programa horiek betetzeko, fisioterapeutaren laguntza izanen du logopedak, hizketaren produkzioaren jarrera-kontrolerako baldintza egokienei buruzko aholkuak emateari dagokionez. Logopedak, bere aldetik, jarraibideak emanen dizkie lantaldeko gainerako kideei eta familiari, egindako lanak jarraipena izan dezan bai eskolan eta bai etxean.

GPa duten zenbait haurrek artikulazio arazoak dituzte. Artikulazioa mihiaren, ezpainen eta masailaren mugimenduen indar, zehaztasun eta koordinazioaren baitan dago. Organo horien edozein arazok artikulazio zuzena ezin egitea ekar dezake. Adibidez, GPa duen haur batek ezpainak ezin baditu elkartu, ezin izanen du "P" ahoskatu. Haur hauekin esku hartzerakoan, fonemak lortzeko eta praxiak lantzeko programa berariazkoak erabili behar dira.

GPa izan eta ohiko adinean ahozko produkzioa ez duten haurrek komunikaziorako sistema handitzaile edo alternatibo bat (KSA) erabili beharko dute. Logopeda da ikasleari KSA bat erakusteko ardura duena. Sistema horren bidezko komunikazioa orokorragoa izan dadin, profesional guztiek ezagutu eta praktikatu beharko dute, eta ikasgelan erabili beharko dute; horrela, GPa duen haurrak bere ikas-kideekin komunikatzeko erabili ahal izanen du.

Zenbait kasutan, sistema horiek aldi baterako sartuko dira eta tarte batez hizketaren ordeztu erabiliko dira, ikaslea bere bilakaerari eta logopedaren lani esker ahoz komunikatzeko gauza den arte. KSA-a lagungarria izanen da, gainera, ikasleak lengoia garatzen jarraitzeko.

Haurrek beren eguneroko bizitzan beren kasa egin ezin dituzten jarduerak egiten laguntzea izanen da **hezkuntzako laguntzailearen** helburu nagusia. Halaber, ikasgelako jardueretan eta patioko jolasetan ikasleak behar dituen laguntza fisiko guztiak ematea ere; betiere, ezin izanen ditu bere laguntzarekin ordeztu ikasleak bere kasa egiteko gauza den ekintzak.

Profesional honen eskuhartzeak haurrarekin harreman oso pertsonal eta zuzena izatea ekartzen du berekin; beraz, oso ere garrantzitsua da hezkuntzako laguntzailearen jardun guztiek hezteko helburua izatea eta ez “zaintze” hutsezko helburua.

Lantaldeak ondoko arloetan prestatzen dituen programetan laguntzea eta direlako programa horiek betetzea da langile honen zeregina:

- Ikasleren ibilera eta mugigarritasuna: korridoreetan, ikasgelan...
- Janztea eta jantziak kentzea: bata, bufanda, kazadora...
- Elikadura: solidoak, mahai-tresnak erabiltzen ikastea...
- Elkarreraginak errazteko jolas kolektiboak.
- Garbitasun pertsonala: aurpegia, eskuak, orraztea...
- Esfinterren gaineko kontrola.

Programaturiko helburuak erdiesteko ikasleari eman beharreko hezkuntza-laguntza ematea da **pedagogia terapeutikoko irakaslearen** lan nagusia. Hona PTko irakaslearen eginkizunak:

- Ebaluazio prozesuan parte hartzea.
- Tutorearekin eta lantaldeko gainerako profesionalekin curriculum egokitzea.
- Bakarkako arreta eskatzen duten Curriculum Norbanakoari Egokitzearen alderdi zehatzak egin eta betetzea, bai ikasgelan eta bai ikasgelaz kanpo ere, bakarka nahiz talde txikitik.
- Material didaktiko egokituak prestatzea.
- Ikasgelako irakasle-tutorearekin lankidetzan aritzea familiarekiko harremanetan.

Orientatzaileak, ikaslearen ebaluazio psikopedagogikoa egiteaz gainera, zuzenean egiten du lan irakasleekin. Eginkizun horretan, helburuak lehenesten, edukiak eta estrategia metodologikoak hautatzen eta ebaluazio eta promozio irizpideak finkatzen parte hartu behar du.

Egokitzapen dokumentuari koherentzia emateko, profesional guztien jardutea koordinatua izan dadin lortzea ere langile honen eginkizuna izanen da. Horretarako, Curriculum Norbanakoari Egokitzearen garapena bermatuko duten jarraipen-saioak ezarriko ditu.

Curriculum-egokitzapena bilduko duen dokumentuan txosten psikopedagogikotik hartutako informazio egokia emanen du. Informa-

zio horrek argia eta CNEean ari diren pertsona guztiek ulertzeko modukoa izan beharko du.

Balioespenerako ezezik eskuhartzearekin loturiko beste alderdi batzuetarako ere, ikastetxeko orientatzaileak NHBBZko Mugimendu- arazoetarako moduluko profesionalen laguntza ere eska dezake, ego- ki jotzen badu, fisioterapeutaren eskuhartze espezializatuaz gainera.

Ikusi dugun bezala, mugimenduzko ezgaitasuna duen haurrari arreta egiteak era askotako adituen lana eskatzen du. Praktikan, es- pezializazioa edo/eta lanbide-profil jakin batzuen eginkizunak gain- balioesteko arriskua egon daiteke. Eskuhartzeetan ez da atomizazio- rik edo independentziarik gertatu behar.

Adituen prestakuntza eta lanbide-gaitasunak ongi aprobetxatzea ez da oztoporik izanen ikasleak behar duen arreta modu integralean emateko. Talde-lan ona egin behar da eskuhartze egokia eskaini eta ikaslearekin erantzukizunez jarduteko. Garrantzitsua da lantaldeko kide guztiek gainerako espezialistek erdietsi nahi dituzten helburuak ezagutzea. Hala bada, profesional guztiek, beren eskuhartzea abia- puntu, gainerakoan lana indartu dezakete. Adibidez, ikasgelako jar- dueretan ikasleak duen jarrera fisikoa begiratzea oso ere baliagarria izanen da fisioterapeutaren tratamendua orokorragoa egiteko. Era berean, errehabilitazio ariketak egin bitartean ahozko estimulazioa erabiltzea onuragarria da tutorearen eta logopedaren lanerako. Bere- ziki garrantzitsua da tutoreak lantaldean daukan lekua. Profesional hau izanen da ikaslearekin eginiko lana gehien nabaritutako duena. Mugimenduzko ezgaitasuna duen haurrari arreta egiteko prozesuko giltzarria da tutorea. Hain zuzen ere, tutorea gogoan erabaki dugu dokumentu hau egitea, bertan eguneroko lanerako informazioa eta irtenbideak aurkituko dituelakoan.

3.2. Curriculumaren oinarrizko elementuetako egokitzapenak

Curriculumaren oinarrizko elementuak, helburu-edukia, metodo- logia eta ebaluazioa, egokitzerakoan, zer, nola eta noiz irakatsi behar den aipatzen da; izan ere, mugimenduzko ezgaitasuna duen ikaslea- ren premia berezietara egokitzeko. Normalizazioaren printzipioa iza- nen da eskuhartzean asmatzeko egin beharreko aldakuntzen buruan.

“Mugimenduzko ezgaitasuna duten haurrek aldakuntza gutxi be- har dituzte beren programetan” (Hegerty, 1986). Baieztapen honen oinarrian zera dago: oinarrizko elementu horiek gutxitan aldatu be-

harko dira, baldin eta aurretik ikastetxean eta ikasgelan doikuntzak egin badira curriculumera iristeko elementuetan, mugimenduzko urritasuna duten ikasleen premietara erantzun ahal izateko moduan.

Hala ere, zenbaitetan –ikaslearen ezaugarri bereziengatik eta soilik beharrezkoa bada–, aldaketa batzuk egin ahal izanen dira curriculumaren oinarrizko elementuetan. Elementu horiek egokitzerakoan, aurrena ebaluazioa aldatu beharko da; gero, aldaketa batzuk egin beharko dira estrategia metodologikoetan; azkenik, helburuak eta edukiak ikaslearen ezaugarrien arabera doituko dira. Horrela, mugimenduzko ezgaitasuna duen haur baten curriculumak ondoko aldakuntzak izan ditzake oinarrizko elementuetan:

3.2.1. Ebaluazioa

Mugimenduzko ezgaitasunaren eremuan, ebaluazioaren egokitzapenak erabili beharreko teknika eta tresnak hautatzeari dagozkio, funtsean. Ebaluazio jarduerak aurkezteko moduan edo ikasle gehientzat aurreikusi ez diren estrategiak sartzerakoan eragiten duten aldaketa sinpleak izanen dira. Praktikan, ebaluatzekeko moduak mugimenduzko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen berezitasunetara egokitzea ekarriko du berekin. Egokitzapen hori egiteko, dokumentu honetako I. kapituluaren aipaturiko estrategiak erabil daitezke; hona haien laburpena:

- Ahozko laguntzak, laguntza fisikoak edo/eta laguntza materialak hautatu eta erabiltzea ikaslearen hurbileko garapen-eremuari egokitzeko.
- Ikaslearen erantzun-denborak errespetatzea ebaluazio lanetan.
- Ikaslearen komunikazio-ahalmenetara egokitzea, ebaluazio jarduerak aurkezteko garaian.

3.2.2. Metodologia. Estrategiak

Mugimenduzko urritasuna duten ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan erabiliko dugun *metodologia* gainerako ikasleekin erabiltzen dena izanen da. Orokortzearen, banakatzearen eta ikasketa kooperatiboaren printzipioak –ikasgelan erabiltzen direnak– erraztasun berezia dira mugimenduzko ezgaitasuna duen haurarentzat.

Horrela, mugimenduzko urritasuna duen ikaslearekin eginiko *jardue-
ra orokorrek* aukera handiagoak ematen dituzte ondokoak egiteko:

- Haren ezgaitasunari hobekien egokitzen zaizkion edukietara iristeko bideak erabiltzea.
- Unitate didaktikoetan integraturiko informazio bide alternati-
boak erabiltzea.
- Zentzua ematea ikaslearen jarduera guztiei.

Banakatzearen printzipioak errazago eginen du ikaslearen ikas-
kuntza; hain zuzen ere, ondokoetarako bidea ematen duelako:

- Haren ikasteko erritmoari egokitzea.
- Material eta jarduera anitzak erabiltzea.
- Laguna - tutorea harremana sustatzeko balio dezake, talde-ego-
eratan.
- Gizarteratzearen printzipioaren osagarria da.
- Laguntzak ikaslearen gaitasunen arabera erabiltzea.

Hona *ikasketa kooperatiboaren* onurak:

- Taldekideekiko harremanak ezartzen laguntzen du.
- Taldekidea den aldetik, ikasleak dauzkan erantzukizunak bere
bizkar hartzeko balio du.
- Bere kasa egin ezin zezakeen lan bat burutua ikusten du ikasle-
ak.
- Besteren laguntza onartzen ikasten du ikasleak.
- Bere buruaren irudi erreala -bere muga eta ahalmen guztiekin-
izaten laguntzen dio.

Metodologia mailako aldakuntzak estrategia didaktikoak hauta-
tzeari eta irakaskuntza-ikaskuntza jarduerari dagozkienak dira.

Ondokoak dira, besteak beste, mugimenduzko ezgaitasunak di-
tuzten ikasleekin erabili beharreko *estrategia didaktikoak*:

- Ikasleak egun dituen gaitasunetatik abiatu behar da; horretara-
ko, aintzat hartu behar da ebaluazioan deskribaturiko la-
guntza maila.
- Lana aztertzea, alde zuzenetik eskatzen dituen baldintzak ongi
ezagutzeko eta ikasleak dituen ezagutzetatik abiatzeko.
- Helburu eta edukiak ongi islatuko dituzten jarduerak hauta-
tzea.

- Jarduera orokorretarako jarduera alternatiboak sartzea. Adibidez: *Har dezagun ikasgelako une bat, non ikasle guztiak idazlan bat egiten ari diren. Mugimenduzko ezgaitasuna duen ikaslea irakurtzeko-idazteko jarduera bat egiten ari da, bere mailari egokitu-riko letra mugikorrek erabiliz.*
- Errefortzu eta laguntzarako jarduera osagarriak sartzea.
- Jarduera baten abstrakzio maila aldatzea. Adibidez: *Hitzen eta grafikoen bidezko aurkezpena. Ikaskideak idatziz emandako buruketa bat egiten ari diren bitartean, "J.L."ri lan bera emanen zaio, manipulaziorako laguntza edo/eta laguntza grafikoa emanez.*
- Jardueren zailtasun maila aldatzea, haien osagai batzuk kenduta edo haien pausuz pausuko antolaketa eginez. Adibidez: *Taldeari ondoko buruketa aurkeztu zaio: "Mutiko batek 60 PTA ditu aurreztuta, eta amak 25 PTA ematen dizkio. Guztira bildu duen dirutik 45 PTA gastatu ditu, gero, gozokietan. Zenbat diru gelditzen zaio?"*

J.L.ri honela aurkeztu zitzaion:

"ARRETA HANDIZ IRAKURRI: Mutiko batek 60 PTA ditu aurreztuta, eta amak 25 PTA ematen dizkio. Zenbat diru bildu du?:

SEGI AURRERA: Guztira bildu duen dirutik -alegia, _____ PTA-, 45 PTA gastatu ditu gozokietan. Zenbat diru gelditzen zaio?: _____".

- Garrantzi handiagoa ematea, batzutan, lana egiteari, alde batera utzita haurrak jarrera fisiko zuzena duen.
- Lan egiteko aukera ezberdinak ematea, norberaren ekimenei tokia egiteko.
- Behar den denbora ematea lanak egiteko. Ohi dena baino gehiago behar izaten dituzten ikasle hauek. Haien erritmoari egokitu beharko da irakaslea: ez du erantzuna aurreratuko.
- Irakurtzen ikasteko orduan, metodo fonetiko hobestea. Miguel Poyuelo Sanclementek garun-paralisia duten haurrekin izandako eskarmentuak argi erakusten du hori. Irakurtzen ikasteko bestelako estrategia batzuk ebaluazioari buruzko I. kapituluan aurkituko dituzu.
- Eskolako material egokiak hautatu eta egokitzea.
- Komunikaziorako sistema alternatibo bat ezartzea.

- Laguntza teknikoak erabiltzea.
- Komunikatzeko zailtasunak dituzten ikasleekin, galdera itxiak erabiltzea, zenbait jardueratan.
- Mahaiko eta zoruko jardueretan, bidea ematea ikasleak jarrera zuzena izateko, horretarako behar diren laguntza guztiak erabiliz.
- Haurrak etekin onena ematen duen jarrerak erabiltzea jardueretan.
- Esperientziak haurrarengana hurbiltzea edo alderantziz, haurrak ibiltzeko autonomiarik ez duenean.
- Ikaslearekin hitz egiterakoan, aurrez aurre eta begien parean hitz egitea.
- Kontrol zefaliko gutxi duten haurren kasuan, plano bertikala erabiltzea lanak aurkezteko orduan.
- Haurrak alde batera joateko joera badu, komenigarria izaten da jarduerak kontrako aldean aurkeztea.
- Hautemate arazoak dituzten haurren kasuan:
 - Haurrak hobekien hautematen duen mahaiko aldean aurkeztea lanak.
 - Hitzez, haurra gonbidatzea bere eskuei eta manipulatzeko dituen gauzei erreparatzeko.
 - Tamaina ertaineko marrazkiak eta laminak aurkeztea haurrari; eskematikoak izanen dira, funtsezko xehetasun guztiekikoak, eta fondo konplexurik gabeak.
 - Koloreen kontrastea duten marrazkiak aurkeztea.
 - Ahoz, helduaren jarraibideak erabiliz, haurrak hautematea nahi ditugun laminako elementuak erakusten joatea.
 - Horma-irudiak erabiltzen direnean, ikasleak haren berdina bat, txikiagoa, edukiko du mahai gainean.
- Jarduerak prestatzerakoan, aintzat hartzea mugimenduzko ezgaitasuna duen haurraren lehentasunak eta motibazioak.
- Hitzezko errefortzu positiboa, batez ere, eta beste batzuk erabiltzea.
- Kontu izugarria eduki behar dugu GPa duen haurrari buruzko atribuzio-mezuak ematerakoan; izan ere, haur horiek bere buruz duten iritzi eskasari loturiko arazo emozionalak izaten dituztelako. Halako oreka bat gorde beharko da barneko eta kan-

poko atribuzioen artean, alde batetik ikasleak bere buruaz duen iritzi eskasa hobetzeko, eta bestetik ikasleak bere ahalmenei buruzko irudi erreala izan dezan.

Adibidez: *Barneko atribuzioa: "Lan handia egin duzunez, bukatu egin duzu"*

Kanpoko atribuzioa: "Ez dizu denborarik eman lana bukatzeko; bihar bukatuko duzu"

- Banakako autonomia lantzeko, behar duen laguntza fisikoa ematea haurrari, eta laguntza hori kentzea ahal duen autonomia guztia lortzeko bidean arrakasta edukitzen ari den heinean.
- Jantzi eta tresna egokituak erabiltzea. Aproba egitea modu askotako egokitzapenak erabiliz.
- Komenigarria izaten da haurrari neke handiena sorraraziko dioten jarduerak etekin handieneko uneetan egitea.
- Haurraren mugapenak ezezik, haren ahalmenak ere aintzat hartzen baditugu, kontziente izan gabe ere, haurrak bere buruaz duen iritzia hobetuko dugu.
- Ikaskideekin duen harremana areagotzeko, tutoreak haren parte-hartzea nabarmen dezake:
 - Erantzukizunak emanez.
 - Haren laguntza eskatuz, laguntza behar duen arren.
 - Haren gaitasunak eta lanak nabarmenduz, eredu gisa aurkeztuz taldearen aurrean: *"Lan handia egin du..." "Ahalegin handiak egin ditu..." "Arreta handia jartzen du..."*
 - Haurra jolas egoeretara hurbiltzea, taldearekin aritu dadin, laguntza fisikoaren beharrik badu ere. Adibidez *"Zapiaren jolasean ari dira lehen mailako haurrak. Taldean, gurpil-aulkia duen haur bat dago. Ikasle horri zapiari eusteko ardura emanen zaio. Hezkuntzako laguntzaileak aulkiari eutsiko dio"*.
- **Laguntza mota** ezberdinak erabiltzea.

Ikasle bati lan bat egiten irakasten zaionean, beharrezkoa izaten da laguntza mota eta laguntza modu ezberdinak ematea. Laguntza hori jarduera pausuz pausu sekuentziatzeko eta helburu bat lortzeko erabili ohi da.

Hiru multzotan bana ditzakegu laguntza motak: laguntza fisikoa, hitzezko laguntza eta ikusizko laguntza.

Laguntza fisikoa esaten dugu irakasleak ikaslearen jarduerari fisikoki eusten edo hura bermatzen, gidatzen ala ordeztu ere egiten duenean. Maiz askotan, motrizitate lanak ikasteko erabiltzen da. Adibidez:

- Haren eskuari eustea margotzen duenean margotu beharreko eremutik atera ez dadin
- Hemiplegia duten haurren kasuan, asaldatutako eskuari eustea ibilkera hobetzeko.

Hitzezko laguntza esaten dugunean ikasleari lana egiten lagunduko dion zerbait esaten diogunean, hitzak erabiliz. Lanak egiten ikasteko garaian erabiltzen da, curriculumaren eremu guzti-guztietan. Laguntza eredu baten moduan aurkez daiteke:

Adibidez: *“Irakasleak hauxe dio: hau zirkulu bat da. Gero, hauxe galdetzen du: Zer da hau?”*

“Ikasleak errepikatu egingen du: Zirkulu bat

“Irakasleak hauxe dio: hau lauki bat da, hau zirkulu bat eta hau hiruki bat”.

“Irakasleak hauxe galdetzen du: Zer da hau? (irudietako bat seinalatuz)”.

Hitzezko laguntza instrukzio jarraitu baten moduan erabil daiteke, ikaslea gidatuz jarduera batean ari den bitarte guztian. Laguntza mota horrek berdindu egiten du, nolabait, GPa duen haurrak informazioa prozesatzeko daukan zailtasuna.

Adibidez: *“Lauki bat marrazteko lana. Irakasleak hauxe dio: Marraztu goitik beherako marra bat; orain, beste bat leiho alderantz beste bat; orain, gora aldera...”*

Ikusizko bizigarri batzuk lagungarri gerta daitezke GPa duten ikasleek leku-denborazko hautemate-zailtasunak gainditu eta lan bat ongi buru dezaten.

Adibidez: *“Hiruki bat marrazteko, hiru puntu eginaraztea”.*

“Denborazko sekuentzia bat duten txartelak erabiltzea pasadizo bat kontatzeko”.

Laguntza fisikoak, hitzezkoak edo ikusizkoak modu ezberdinez graduatu ahal izanen dira: pixkanaka gutxitzea, elkarri hurbiltzea eta kateatzea.

Laguntzak **pixkanaka gutxituko dira** haurraren lorpenen arabera gutxitzen ditugunean.

Laguntzak elkarri hurbiltzea: ikaslearen produkzioa erantzun zuzenetik hurbil samar izan arren, ontzat ematea.

Adibidez: Idazteko zailtasun handia daukan GPdun ikasle bati bere izena idazten irakastea.

Hasieran, izenaren grafiaren antzekoa den edozein trazu emanen da ontzat. Errefortzu positiboak erabiliko dira produkzioak hobetzen joan ahala.

Zenbait pausutan erraz xehekatu daitezkeen trebetasunak irakatsi nahi ditugunean, gomendagarria izaten da **kateatzeko prozedura** erabiltzea. Trebetasuna deskonposatu eta pausuz pausu ikasteen datza.

Kateatzearen bidez irakasteko, ondoko sekuentziak begiratu beharko dira:

1. Egin beharrekoa zehatz definitu.
2. Pausu sinpleagotan xehekatu.
3. Ikasleak bere kasa ematerik ez duen pausua irakasten hastea.
4. Errefortzuak ematea edozein aurrerakuntzarengatik, txikia izanda ere.

Adibidez: Ate bat heldulekuari eraginez irekitzea.

1. *Ikaslearen eskua zuzen jartzea heldulekuan. Irakasleak bere eskua jarriko du ikaslearen eskuaren gainean.*
2. *Irakasleak ikaslearekin batera atea irekitzeko egin beharreko mugimenduak egiten ditu; zanpa behera egin eta tira egiten du.*
3. *Irakasleak beheranzko presioa ikaslearekin batera egiten du, eta tira egiteko mugimendu ikasleari uzten dio, eskua, artean, haren eskuaren gainean duela.*
4. *Irakasleak eskuarekin kontrolatuz, ikasleari uzten dizkio presio mugimendua eta tira egitekoa.*
5. *Ikasleak atea berak bakarrik irekitzen du.*

3.2.3. Helburuak eta edukiak

Azkenik, curriculumaren oinarritzko elementuetan egin beharreko egokitzapenei dagokienez, helburu eta edukien aldakuntzak aipatu behar ditugu. GPa duten haurren kasuan, bestelako urritasunik ez badute, eta sarrera, ebaluazio eta metodologi elementuetan egokitza-

penak egin badira, ez da ikasgelako programako (zikloa) helburu eta edukirik *kendu* behar izaten.

Komenigarria da azpimarratzea mugimenduzko ezgaitasun larria duen ikasleari besterik gabe esleitu ohi diogula adimen ahalmen mugatua izatea. Egia esan, mugimenduzko ezgaitasuna duten haurren kognitiboa ez dago mugimenduzko asalduren menpean. Akats horrek, praktikan, itxaropen eskasak ekartzen ditu ikaslearekiko, eta, beraz, eskakizun-maila txikiagoa helburu eta edukiei dagokienez.

Eskarmentuak erakutsi digu ikasle hauei beren ahalmen eta aukera errealean arabera exijitu behar zaiela lanean.

Helburu-edukiak kendu beharrik ez badago ere, elementu horiek maiz haiek egokitu beharko ditugu, hezkuntza-erantzuna banakatu eta doitzeko.

Bide horretan, Haur Hezkuntzaren etapan *denborak* egokitu daitezke. Adibidez: *Bost urteko neska bat, ahalmen kognitibo onekoa. Ebaluazioaren arabera, etapako helburu batzuk bereganatzeko ala ez bereganatzeko prozesuan dago. Lantaldearen iritziz, Haur Hezkuntzan beste urtebete bat egoteak bidea emanen liokeela helburu gehienak bereganatzeko. Haurrak etapa horretan beste urtebete egotea erabaki da.*

Askotan, egokitzapen modu hori erabiltzen da haurrak irakurtzen eta idazten Lehen Hezkuntzako lehen zikloan ikas dezan. Helburu hori lortzeko denbora hiru ikasturtetan banatzen da, bitan banatu beharrean.

Askotan, ikaskuntza hierarkizatuko prozesuak eskatzen dituzten helburuak eta edukiak sekuentziazten ahal dira. Horrela, mugimenduzko asaldura larriak dituzten haurren kasuan, *Oreka estatikoa mantentzea (zutik mantentzea)* bezalako helburu bat hona sekuentziaztu daiteke:

- Kontrol zefalikoa mantentzea.
- Enborrharen kontrola mantentzea.
- Eserita egotea bi aldeetan eta aurreko aldean euskarriak erabiliz.
- Eserita egotea euskarririk gabe.
- Lau hankatan oreka mantentzea.
- Belauniko oreka mantentzea, euskarriekin eta euskarririk gabe.
- Laguntzarik gabe eser dadin lortzea.
- Bi hanketan euskarri batekin egon dadin lortzea.
- Bi hanketan euskarririk gabe egon dadin lortzea.

Beste batzutan, beste batzuk lortzeko oinarrizkoak diren helburu-
eduki batzuei lehentasuna eman beharra iritzi dezake lantaldeak.
Adibideak: *KSA bat erabili behar duten haurren kasuan, lehentasuna
ematen ahal zaio KSA ezartzen hasteari, komunikazioak gainerako
ikaskuntzak baldintzatuko baititu, izan ere.*

Ahozko produkziarako zailtasun larriak dituzten GPdun haurren
kasuan, maiz ahozko lengoia erabiltzeko aurrebaldintzei buruzko
helburuak *sartu* ohi dira (erlaxatzea, arnasa handitzea, zenbait pra-
xia bereganatzea...).

Kasu horietan, ahozko adierazpenari buruzko terminoetan finka-
turiko helburuak *birformulatu* beharko dira. Birformulaturiko helbu-
ru berria komunikazio-ahalmenari buruzko terminoetan adieraziko
dugu, ahozko komunikazioa izan gabe ere.

4. IKASTETXEA-FAMILIA ELKARRERAGINA

Eskolak toki garrantzitsua du, baina ez bakarra, haurraren hez-
kuntzan. Ezin dugu ahaztu familia eta ingurunea direla garapen eta
gizarteratze prozesuan eragiten duten lehenbiziko eragileak. Maiz as-
kotan, GPa duen haur baten gurasoek haurraren ezgaitasunaren
onarpen-mailari dagozkion etapak iragan beharko dituzte: pena, bel-
dur, urduritasun sentimenduak, itxaropena eta ondoren depresio
uneak, emozio kontraesankorrak eta antsietate egoera batzuk. Hau-
rra den bezala, bere ahalmen eta muga guztiekin, onartzeko prozesu
bat behar da. Haurraren ahalmen eta mugapen horiek neurri handi
batean gurasoen eta haurraren harremanaren araberakoak izanen
dira.

Eskolak laguntza eman diezaieke gurasoei onarpen prozesu ho-
rretan, eta orientabide zuzenak eman diezazkieke haurrari bere gara-
penean laguntzeko gauza izan daitezen.

Era berean, eskolak gurasoen laguntza behar du. Lehenbizi, infor-
mazioa behar du haurra ulertu eta ezagutzeko, eskolaz kanpoko ego-
erei nola erantzuna ematen die, zer-nolako faktoreek izan dezakete
eragina ikasgela barruan.

Familia-eskola lankidetza informazio-aldatze hutsa baino askoz
ere gehiago da: bi aldeek zenbait helburu elkarrekin lantzeko inplika-
zio handiagoa ere adierazi nahi du.

Ez da erraza lankidetzaren mailarik onena lortzea. Horrexegatik, lantaldeak lortu beharreko helmuga txikiak planifikatuko ditu gradualki.

Tutorea familiarekin komunikatzeko bidea dela ezartzea garrantzi handiko pausua da. Zehaztu egin beharko da, halaber, noiz behar den eta noiz den egokia tutoreak aditu baten laguntza eskatzea. Horrela, profesional ezberdinekiko elkarrizketa gehiegizkoak saihestuko dira; izan ere, elkarrizketa gehiegi izateak harremana aberastu ordez nahasmena ere ekar dezake.

Eskolaren eta GPA duten haurren familiaren arteko harremanak bi alderdi nagusi izan beharko ditu:

a) *Eskolaren aldetik:*

- Laguntza ematea gurasoei egoera emozional batzuk gainditzeko.
- Informazioa ematea ikaslearen ikasteko ahalmen eta zailtasunei buruz eta erdietsitako helburuei buruz.
- Orientabideak ematea etxean egin daitezkeen lanari buruz, ikasteko ahalmenak hobetzeko eta ikaskuntzak orokorragotzeko.
- Gurasoei ikaskuntzak orokorrak izan daitezkeen errazteko estrategiak irakastea. Era askotakoak izan daitezke estrategia horiek: hasi material egokia adierazte hutsetik eta jarduera bat egiteko adibideak emateraino –adituek eman beharko dituzte horrelakoak–.
- Orientabideak ematea materiala, altzariak, lekuak eta abar haurraren ezaugarrietara egokitzeko moduari buruz.

b) *Familiaren aldetik:*

- Haurraren diagnostikoa eta txosten medikoak ematea.
- Etxean haurra nola moldatzen den jakinaraztea: autonomia, batetik bestera nola ibiltzen den, jarrerak, komunikazioa, interesak...
- Ikastetxetik egiten dizkieten dei guztiei erantzutea.
- Adituek proposaturiko ariketa eta jarduerak egitea.
- Laguntza ematea haurrak behar dituen egokitzapen txikiak egiteko.
- Haurrak parte hartzen duen eskolaz kanpoko jolas-jardueretan parte hartzea: jaiak, txangoak...

III. ADIBIDEAK

Ugari izaten dira mugimenduzko ezgaitasuna daukaten hurrekin lan egiten duten irakasleek irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan edukitzen dituzten zalantza eta beldurrak. Hori dela eta, dokumentu honek eguneroko hezkuntza praktikarako kontsultako material erabilgarria izan nahi du, ikastetxeetako profesionalentzat.

Egokia da, beraz, dokumentuaren aplikagarritasuna demostratzea Curriculuma Norbanakoari Egokitze baten adibidea jarrita, izan ere garun-paralisiak sorturiko mugimenduzko hezkuntza premia bereziak dauzkan ikasle batekin. Lehenago azaldu dugun bezala, ezgaitasun honek eragin handia dauka eskoletan eta ikasteko zailtasun eta arazo ugari ekarri ohi ditu berekin. Dokumentu honetako adibidea emateko, GP tetraparetikoa duen neska batekin eginiko hezkuntzako eskuhartze prozesua hautatu dugu. Ikasle honekin eginiko erantzun eta egokitzapen asko eta asko GPa duten beste haur batzuei ere aplikatzen ahal zaizkie, bai eta bestelako patologien ondoriozko mugimenduzko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei ere.

CNEa prestatzeko prozesuak dokumentu osoan ezarritako hurrenkerari jarraitzen dio. Hasi GPa duten hurrek mugimenduzko arazoak direla-eta eremu ezberdinetan izan ohi dituzten zailtasunak balioetsiz hasiko gara. Erabateko ebaluazio horrek bidea eman die profesionalei ikasleak zeuzkan beharrian erreal eta zehatzak finkatzeko, bai Haur Hezkuntzako curriculumeko hiru eremuetan, eta bai sarrera-beharrizanei dagokienez ere.

Beharrian horien azterketak modua eman zuen ikaslearen zailtasunetarako lehenbiziko erantzun bat doitu eta egokitzeko. Zenbait berariazko programa eta bestelako egokitzapenak egin ziren. Hori guztia dokumentu bakar batean finkatu zen: CNE.

Adibide hau jarraipenei buruzko 3.5. atalean sartu dugu. Adibideak bidea emanen digu CNEa nola prestatu zen ezezik helburuak erdietsi ahala geroko ikastaroetan eginiko doikuntzak ezagutzeko ere. Horrela, curriculum-egokitzapen baten izaera dinamikoa egiazta daiteke.

Adibideen zatiari amaiera emateko, kasu bakoitzean erabili diren protokoloak, beterik, erantsi ditugu.

XX Kasua

Haurren garun-paralisia duen neskatok bat da, fetuak jasan zuen sufrimendu larriak sortua; tetraparesia dauka (arazoak ditu lau ataletan).

Zortzi urte ditu eta Lehen Hezkuntzako 2. mailan ari da, herri bateko ikastetxean.

Urtebete zuenean bere herritik hurbil dagoen zentro terapeutiko batera joaten hasi zen, lau urterekin eskolara joaten hasi zen arte. Zentro terapeutiko hartan, fisioterapiako tratamendua eta psikomotrizitateko estimulazioa eman zizkion.

1. ESKU HARTZEKO PROZESUA

1.1. *Kasua identifikatzea*

Ikastetxeko orientatzaileak, 1993ko martxoan, Mugimendu-arazotarako moduluaren laguntza eskatu zuen mugimenduzko ezgaitasuna zuen haur bat eskolaratu behar zuelako.

Moduluko orientatzaileak ikastetxeko orientatzailearekin bildu eta eskura zuten informazioa aztertu zuten:

- Familiarekin izaniko aurreneko hartu-emanak.
- Txosten medikoak.

- Urtebete zuenetik, XXek fisioterapiako tratamendua eta psicomotrizitaterako estimulazioa jaso zituen udaleko zentro terapeutikoaren txostena.

Familiak ekarritako txosten medikoen arabera, anoxia neonatal baten ondorioz fetuan izaniko sufrimendu larriarengatik garun-paralisi tetraparetikoa dauka haurrak.

Zerbitzu terapeutikoaren txostenek honelako ezaugarriekin deskribatzen dute XX:

Mugimenduaren eremua

- Ez du erabat lortzen kontrol zefalikoa izatea.
- Laguntza behar izaten du esertzeko (kuxina behar du bizkarrezurra bermatzeko, beso-euskarridun aulkia eta oin-euskarria).
- Zutik jartzen hasi da, gerritik behera bitutoreak erabiliz.
- Gai da zenbait jarrera-aldaketa egiteko.
- Goiko gorputz-adarren kontrolik gabeko mugimenduek manipulazio zuzena eragozten dute.

Komunikazioa eta lengoaia

Fonazio eta artikulazio organoak mantso dihardute, eta haren produktzioa oso eskasa da. Bokal bereiztezinaren soinuak egiten ditu, eta "ma", "pa" eta "ti" bezalako silabak, hitzen ordeztuz erabiltzen dituenak. Oso komunikatiboa da. Aurpegiko mimikaren laguntza erabiltzen du.

Ahozko ulermena eta irudien ulermena onak ditu.

Autonomia

Ez ditu esfinterrak kontrolatzen, eta heldu baten laguntza behar du jantzi eta garbitzeko; eginkizun horietan laguntza pixka bat ematen hasia da.

Garapen kognitiboa

Garapen egokia du bere adinerako.

Informazio hau osatzeko, Moduluaren orientatzailea eta ikastetxekeoa zentro terapeutikora joan ziren haurraren curriculum-gaita-

sunak xeheki ezagutzeko. Datuak erregistratzeko, "Haur Eskolari buruzko datuak" izeneko II. eranskina erabil daiteke. Datu horiek aztertu eta balioetsi ondoren, erabaki bat hartu zen: XX eskolaratzeko modurik egokiena bere herriko ikastetxe arrunta da, behar diren laguntza eta egokitzapen guztiekin. Horren ondorioz, langile adituak edukitzeko eskaria egin zitzaion Hezkuntza Bereziko Unitate Teknikoari: logopeda, fisioterapeuta eta hezkuntzako laguntzailea. Halaber, herriko udaletxean, fisioterapia egiteko areto bat egokitzeko eskatu zen. Mugimendu-arazoetarako moduluak bere gain hartu zuen areto hori ekipatzeko ardura.

1.2. Ebaluazioaren eta emaitzen plangintza egitea (1. laukia)

Mugimendu-arazoetarako modulukoak irailean joan ziren ikastetxera, eta lan saio bat egin zuten HLUarekin, zer ebaluatu, nola, nork eta noiz erabakitzeko.

Moduluak ikastetxearen baldintza fisikoei buruzko eta sarbideei buruzko aurreneko ebaluazio bat egin zuen, arkitektura-oztoporik dagoen ala ez zehazteko. Fisioterapeutak balioespen puntual bat egin zuen tratamenduak eskatzen dituen saioen kopuruari buruz eta eskolak hasten direnerako altzarietan lehenbiziko egokitzapen batzuen beharra aztertzeke. Halaber, behar diren langile espezializatuak eta ikastetxean daudenak aztertu zuten.

Azterketa-egileek egiaztatu dute eraikina beheko solairu bat dela, arkitektura-oztoporik gabekoa, baina aldaketa batzuk behar dituela fisioterapiako saioak egiteko areto bat egokitu eta ekipatzeko.

Altzariei dagokienez, fisioterapeutaren iritziz, beharrezkoa da eskolarako aulki bat egokitzea, hartan oin-euskarria eta beso-euskarria jarritz, eta mahai bat ere egokitzea, gaineko oholean puska bat moztuta, ilargi erdi baten itxuran.

Ondokoak dira neskari arreta egiteko behar diren adituak: fisioterapeuta, logopeda eta hezkuntzako laguntzaile bat.

Ordutegien aurreneko antolamendu bat prestatu da, bai eta ikasgelaz kanpoko laguntzak zehaztu ere: hiru ordu fisioterapeutarekin eta bi ordu logopedarekin.

Kontuan hartu da saioen banaketa alternoak izatea, eta ez izatea jarduera kolektiboen ordu beretan.

Ebaluazioaren eta emaitzen plangintza (1. laukia)

ZER	NOLA	NORK	NOIZ	EMAITZAK
<ul style="list-style-type: none"> • Arkitektura oztupoak • Altzariak • Espezialistak eta saiokak 	<ul style="list-style-type: none"> • Behaketa • Fisioterapiako esplorazioa • Txostenak 	<ul style="list-style-type: none"> • Fisioterapeutaren modulua • Modulua eta ikastetxeko orientatzailea 	Ikasgelara sartu baino lehen	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago arkitektura oztoporik • Ez dago fisioterapia aretorik • Ez dago egokituriko altzaririk • Ez du ahozko hizkuntzarik • Ez du banakako autonomiarik • honako langileak daude: pt irakaslea, fisioterapeuta eta logopeda • Ez dago hezkuntzako laguntzailearik
<ul style="list-style-type: none"> • Mugimenduaren arloa: <ul style="list-style-type: none"> - M. Larria - Fina 	<ul style="list-style-type: none"> • Fisioterapiako balorazioa • Adierazleak behatu eta erre-gistratzea • Eskuzko funtzio-ari buruzko gida 	<ul style="list-style-type: none"> • Tutorea • Fisioterapeuta • Ptko irakaslea 	93/94ko Lehen hiruhilekoa	<ul style="list-style-type: none"> - Ez buruaren, bizkarrezurraren kontrolrik ez du lortu - Laguntza behar du zutik egoteko eta esertzeko - Bittoarek behar ditu ibiltzen hasteko - Pintza gordinararena egiten du - Garabatoak egin dezake, margotu dezake eta papera urra dezake, laguntza fisikoarekin
<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Adierazleak behatzea • Hizkuntza ikas-teko protokoloa 	<ul style="list-style-type: none"> • Logopeda • Tutorea 	93/94ko Lehen hiruhilekoa	<ul style="list-style-type: none"> - Aho-mihi-aurpegiaren motrizitatea oso mugatuta du - Ez du putz nahikorik - Ulermen ona - Ahozko produkzio oso eskasa
<ul style="list-style-type: none"> • Banakako autonomia 	<ul style="list-style-type: none"> • Adierazleak behatzea • Autonomiari buruzko gida 	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntzako laguntzailea eta fisioterapeuta 	93/94ko Lehen hiruhilekoa	<ul style="list-style-type: none"> - Ez ditu esfinterrak kontrolatzen - Laguntza gutxi ematen du janzteko, jateko eta garbitzeko lanetan
<ul style="list-style-type: none"> • Sozioafektiboa 	<ul style="list-style-type: none"> • Adierazleak behatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Tutorea eta lantaldea 	93/94ko Lehen hiruhilekoa	<ul style="list-style-type: none"> - Ongi txertatuta dago. Laguntza onartzen du - Akitiboa, langilea eta euskorra da - Eginbehar guztiak gustatzen zaizkio
<ul style="list-style-type: none"> • Eskolako arloa 	<ul style="list-style-type: none"> • Behaketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Tutorea eta modulua 	93/94ko Lehen hiruhilekoa	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasgela zabala da eta ongi antolatuta dago - Ez dago egokituriko materialik. (ordutegiak?) - Koordinazioa dago langileen artean
<ul style="list-style-type: none"> • Familiaren arloa 	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Tutorea eta fisioterapeuta 	93/94ko Lehen hiruhilekoa	<ul style="list-style-type: none"> - XX ongi hartzen dute besteek. Babeskeria - Haren jarrekin ongi kontrolatuta daude - Komunikazio ona dago familian - Jarrera ona

Hezkuntzako laguntzaileak, ikasleari ibiltzen, janzten eta garbitzen laguntzeaz gainera, ikasgela barruan ere XXri laguntza fisikoa emanen dio halakorik behar duen jarduera didaktiko guztietan.

Ikastetxeak eta Moduluak izandako bileran erabaki bat hartu da: 93-94 ikasturteko lehenbiziko hiruhileko osoa uztea ebaluazioa egiteko, eta ebaluazioa nortzuk eta nola egingen duten ere planifikatu da. Lehenik, tutorea da zailtasun eremu guztiei buruzko informazioa biltzeko ardura izanen duena, III. eranskinen adierazleei jarraituz. Informazio hori osatu, zabaldu eta sakondu egingen da mugimendu eremuko adituaren (fisioterapeuta), komunikazio eremuko adituaren (logopeda) eta autonomiaren eremuko adituen (hezkuntzako laguntzailea eta fisioterapeuta) azterketekin.

Fisioterapeutak mugimenduaren eremuko balioespen espezifikoa egingen du, motrizitate larria eta motrizitate xeheari dagokienez. Fisioterapeutek erabiltzen dituzten protokoloez gainera, VI. eranskinen gida ere erabiliko du, “Esku-funtzioa balioesteko gida” izenburua duena. Pedagogia terapeutikoko irakaslearen eta tutorearen laguntza izanen du. Hona azpimarra daitezkeen emaitzak:

- Ez du erabat lortu kontrol zefalikoa izatea.
- Ez du lortu bizkarrezurra kontrolatzen.
- Laguntza behar izaten du esertzeko.
- Laguntza behar izaten du zutik egoteko.
- Pelbiseko bitutoreak eta helduaren laguntza behar ditu ibiltzen hasteko.
- Hatz atestosikoak ditu (gihar-tonuaren aldaketa, zurrun izatetik bigun izatera pasatzen dira).
- Sinzinesiak izaten ditu (nahi duen mugimendu bat egitean nahi gabeko mugimenduak edukitzen ditu).
- Ez ditu hatzak bereizten.
- Gai da pintza gordinarena egiteko.
- Gauzak hartzen ditu, eta batzutan kostatzen zaio haiek askatzea eta beste batzuetan haiei eustea.
- Laguntza fisiko handia emanez gero, gai da zirriborroak egiteko eta papera marraztu eta urratzeko.

Logopedak lengoaiaren eta komunikazioaren eremuko ahalmenak sakonago eta era berezituagoan ebaluatuko ditu, tutoreak eremu horretan eginiko lana osatuz.

Lantaldeko gainerakoen laguntza ere eskatzen du, XXekin komunikatzeko moduaren berri izateko. Horretarako profesional guztiek “Komunikazioa Behatzea” izenburuko IV. eranskina beteko dute.

- Ahoaren, mihiaren eta aurpegiaren motrizitatea oso mugatua da. Gai da ondokoak egiteko.
 - Ahoa ireki eta ixteko.
 - Mihia atera eta sartzeko; ez da gauza mihia goratu edo jaisteko.
 - Musuak emateko. Irribarre egiteko.
 - Begiak ireki eta ixteko.
 - Ez du lerre-jarioa kontrolatzen.
- Putz egitea:
 - Ez da aski duen ahalmena.
 - Gai da luma bat edo paper tira bat mugitzeko.
 - Paja batez burbuilak egiteko.
 - Ez da gauza txilibitua jotzeko.
- Ulermena:
 - Bere inguruko gauzen hiztegia ezagutzen du (Peabody, 3 urte eta 9 hilabete).
 - Adierazpenak ulertzen ditu.
 - Gai da istorio bat eta ipuin bat jarraitzeko.
 - Aginduak, galderak, jarraibideak ulertzen ditu.
- Adierazpena:
 - Ahozko adierazpena oso mugatua da. Haren produkzioak bere ingurukoak ulertzen ez dituzten soinu bokalikoak dira. Jardueraren testuinguruaren arabera uler daitezke.
 - Mugapen hori gorabehera, XXek besteak ulertzen duten adierazpen orokor handia du; desioak eta beharrak adierazten ditu, funtsean aurpegiko espresioen eta keinuen bitartez.

Hezkuntzako laguntzaileak, fisioterapeutarekin batera, sakonago aztertuko dute ikaslearen autonomia; “Banakako autonomia ebaluatzeko gida” izenburuko V. eranskina erabiltzen dute horretarako. Hona balioespen horren alderdi garrantzitsuenak:

- Ez ditu esfinterrak kontrolatzen.
- Hezkuntzako laguntzailearen laguntza behar du janzteko eta jantziak kentzeko, elikatzeke eta garbiketa egiteko. Hala ere, gauza izaten da ondokoetan laguntzeko:

- Komuneko paperetik tiratu eta tolesteko (topea jarri zaio hura mozteko).
- Zapi bat ateratzeko kutxa batetik.
- Iturri batean zanpa egiteko. Eskuak bildu eta iturriaren azpian jartzeko.
- Yogurrari eusten laguntzen du. Gai da lehendik ebakitako janari puskak ahora eramateko.
- Besoak jartzen ditu bata eta kazadora jantzi eta kentzeko.

Hiru urteko ikasleen taldearentzako ikasgelako programa curriculum-erreferente gisa hartuta, **tutoreak** balioetsi du taldeko gainerako kideen erritmoari jarraitzen diola curriculumeko eremuetan; izan ere kontzeptuak ongi ulertzen ditu (gorputzaren atalak ezagutzen ditu, koloreak sailkatzen ditu, irudiak elkarrekin lotzen ditu, formak bereizten ditu...). Ikusizko hautemateari dagokionez, ez da zailtasunik antzeman. Laguntza fisikoa behar izaten du, soilik, motrizitate larri nahiz xeheko alderdiak behar diren jardueretan.

Kontzeptuak bereganatzen ote dituen balioesteko zailtasunik handiena ahozko adierazpenean dago, artikulatzeko gauza ez delako. Hala ere, keinuen bidezko lengoia eta elkarrekin loturiko soinuen intonazioa erabiltzen ditu esaldi gisa; horiek emanen digute bidea balioespen horretara hurbiltzeko.

Tutoreak ere beste eremu batzuetako ebaluazioaren emaitzak ematen ditu: eremu sozio-afektiboa eta eskola eta familiaren eremuak. Balioespen hori egiteko, III. eta IV. eranskinetako tresnak erabiliko ditu: “Eremuak ebaluatzeko gida” eta “Familia- eta gizarte-inguruari buruzko datuak”.

Tutorearen esanetan, ongi txertatu da taldean. Haren lagunek bera han egotea gauza arrunt bat bezala ikusten dute, eta laguntza ematen diote halakorik behar duenean, batez ere nagusixeagoak direnak. Haren txanda errespetatzen dute, jarduera kolektiboetan itxaron behar badute ere.

Haur zabal aritzen da helduekin; hala ere, hasierako halako gogor egite bat gaingitu beharra dago.

Jolasean aritzea gustatzen zaio, neskato aktiboa da eta ongi erantzuten die jolas bezala planteatzen zaizkion jardueri. Gustukoak ditu ikasgelako “txoko” guztiak.

Jarduera batean hasten denan, ahaleginak egiten ditu emaitza onak lortzen. Hala aritzen da motrizitate ariketetan zentratutako lanetan –motrizitate larria eta fina–, interkomunikaziozko jolas tes-tuinguruan gertatzen badira.

Oso adierazkorra da afektu kontuetan. Pozik egoten da, nahiz batzutan burugogor eta mainatsu ere portatzen den.

Laguntza onartzen du, eta behar duenean ere eskatzen du, baina gauzak bere kasa egitea gustatzen zaio.

Eskola eta ikasgelako ingurunea

Haur hezkuntzako gela honetan, hiru eta lau urteko 14 ikasle daude. Erabiltzen duen aulkitxoa erabiltzeko bezain zabala da. Txokoak ongi antolatuta daude, ongi bereizirik, material egokitua sartzeko toki nahikoarekin.

Ez dago manipulatzeko egokitutako material didaktikorik.

Ikasgelako materiala altuera egokian dago, baina ibiltzeko autonomiarik ez duenez ez da iristen materiala hartzera.

Psikomotrizitatearen ordutegia eta antolamendua ez dira egokiak.

Beste laguntza batzuetarako euskarako hiru saioak erabil daitezke, neskatoa ez baita eskola horietara joaten.

Ikastetxeko orientatzailea bi astez behin biltzen da XXekin lanean ari diren profesionalekin.

Familiaren ingurunea

XX alaba bakarra da. Gurasoekin bizi da. Aita garraiolaria da, eta etxetik kanpo egoten da ia aste guztian. Ama da egunero neskari arreta egiten diona.

Errealismo eta onarpen nahikoak antzematen dira alabaren egoera dela eta, eta ez dago antsietate handirik; kezkarik bai, ordea. Nola baiteko babeskeria eta "hari guztia egiteko" joera.

Etxean, Igeltsuzko karkasa batez eta beso-euskarri batez egokitu-riko aulki bat erabiltzen dute, eta lagungarria zaio ongi eserita egoteko; beste batzutan, sofán etzanda egoten da. Batetik bestera eramateko besoetan hartzen dute edo aulkitxoan eramaten dute.

Familia barneko komunikazioa gurasoek egiten dituzten galdera itxien bitartezkoa izaten da. XXek intonaziodun keinuak eta soinuak egiten ditu. Elkarrizketak hasi ere egiten ditu, batzutan. Adierazpen horiek eta ohiko testuinguruak ematen duen erraztasunak bidea ematen dute familian onartzeko moduko komunikazioa egoteko.

Elikadura, janzkera eta higieneari buruz ikastetxean bildutako informazioa alderatu eta zabaldu zen. Ama da ia lan guztiak egiten dizkiona, neskatoaren laguntzarik itxaron edo eskatu gabe.

Ez ditu esfinterrak kontrolatzen eta haur-oihalak erabiltzen ditu. Ahaleginik ere ez da egin kontrol hori izan dezan lortzeko.

Gurasoek aulkitxoan paseatzera ateratzen duten haurra, herriko plazara; herriko jaietan ere parte hartzen dute.

Etxean, amarekin jolasten du batez ere. Besteek ipuinak irakurtzea eta eraikuntza txikiak, puzzleak eta margoekin betetzeko ziluetak betetzen "laguntzea" gustatzen zaio.

Ebaluazioan erabilitako estrategia batzuk

- XXen erantzun denboretara egokitu beharra izan zen, ebaluatzeke lanak egiterakoan.
- Eskuarekin eginiko seinaleak erabili ziren erantzunak emateko.
- Erantzuteko, burua mugitzea edo zenbait hitz esatea eskatzen zuten galdera itxiak erabili ziren.
- Alde banatik ebaluatu zen adierazteko gauza dena eta ulertzeko gauza dena.
- Batzutan, lehentasuna eman zitzaion lan bat egiteari, kontuan hartu gabe jarrera erabat zuzena mantentzen zuen ala ez.
- Ibiltzeko autonomiarik ez duenez, batzutan materiala eskuratu egin zitzaion, beste batzutan, berriz, neska ikasgelako txokoetara eraman behar izan zen.
- Hitzeko errefortzu positiboa erabili zen.

1.3. Beharrak balioestea (2. laukia)

Lehen hiruhilekoa bukatzerakoan, HLUaren eta Mugimendu-ara-zoetarako moduluko baterako lan saio batean, profesional guztien informazioa aztertu eta alderatu zen. Ondokoen beharra antzeman zen:

- Fisioterapiako laguntzak berrantolatzea.
- Lurrerako altzariak.

- Ikasgelako manipulazio material gehiago behar da, zenbait egokitzapen eginda, XXek erabiltzeko modukoa izan dadin.
- Irudikapen plastikoetarako materialak eta tresnak (fitxak, margoak, plastilina, guraizeak, plantillak, puntzoiak...) egokitzea.
- Laguntza fisikoa behar da aurreko lanak egiteko.
- Nortasun eta Banakako autonomiaren eremuko zenbait jarduerak kendu eta egokitzea.
- Helburu berriak sartzea eremu horretan.
- Berariazko mugimendu-gaitasunak ikasi eta garatzea.
- Komunikazio eta Irudikapenaren eremua egokitzea: beste helburu batzuk sartu behar dira.
- Beste estrategia batzuk behar dira.
- Familiaren laguntza eskatu behar da.

Laburbilduz, ondokoak dira XXen hezkuntza premia nagusiak:

- Ikasgelako programako ordutegiak laguntza orduetara egokitzea.
- Materialak egokitzea.
- Jardueretan, laguntza fisikoko estrategiak erabiltzea.
- Berariazko laguntza behar du fisioterapia eta logopedia ikasgelatik kanpo.

1.4. Erantzuna (2. laukia)

Beharrak aztertuta, argi ikusten da XXentzat egin beharreko curriculum-egokitzapena ez dela handia; izan ere, ez da helburu eta ez etapako edukirik kendu behar.

XXen beharrei erantzuteko egokitzapen nagusiak irispide-elementuetan eta curriculum-eremuetako zenbait alderditan egin ziren. Irispidetuei dagokienez, honako erabakiak hartu ziren:

- Fonatzeko aulki bat jartzea zoruan egoteko.
- Ikasgelarako aulki bat egokitzea, oin-euskarria eta beso-euskarria jarrita.
- Ilargi erdi baten itxurako ebaki bat egitea ikasgelako mahaian.
- Mahai horretan material labainezina jartzea.

93/94 ikasturtea (2. laukia)

BEHARRAK	ERANTZUNA
<ul style="list-style-type: none"> • Fisioterapia aretoa • Ikasleak manipulatzeko egokituriko materiala • Lurrean egoteko egokituriko altzariak • Laguntzako ordutegiak berrantolatzea • Laguntza fisikoa 	<ul style="list-style-type: none"> - Fisioterapiarako areto bat eraiki da - Material labainezina mahaian, loditutako tresnak, pibotedun puzzleak, egokitutako guraizeak, belkroa... - Foanezko aulki bat lurrerako, oin-euskarria eta beso-euskarria dituen aulikia, ilargi erdiaren itxurako ebakia duen mahaia - Fisioterapeuta (3), logopeda (2) eta hezkuntzako laguntzailea
<ul style="list-style-type: none"> • NORTASUNAREN ETA BANAKAKO AUTONOMIAREN ARLOA: <ul style="list-style-type: none"> - Jarduerak kendu eta egokitzea - Helburu berriak sartzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Fisioterapia jarraiko berriazko programa bat; astean hiru saio - Esfinterrak kontrolatzeko programa - Jantzen, garbitzen eta jaten ikasteko berriazko programa - Korrika eta jauzi egiteko jarduerak kentzea - Psikomotritzitatea berrantolatzea
<ul style="list-style-type: none"> • KOMUNIKAZIOAREN ETA IRUDIKAPENAREN ARLOA: <ul style="list-style-type: none"> - Jarduerak egokitzea - Helburu berriak sartzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Logopediako berriazko programa; astean bi saio - Lerde-jarioa kontrolatzeko eta aurrerabaldintzen programa - Eskolako materialak eta tresnak egokitzea - Laguntza fisikoa eskuak erabili behar diren jarduerak egiteko
<ul style="list-style-type: none"> • INGURUNE FISIKO ETA SOZIALA DESKUBRITZEAREN ARLOA: <ul style="list-style-type: none"> - Jarduerak egokitzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Esperientziak ikasleari hurbiltzea - Haurra esperientziak gertatzen diren egoeretara eramatea - Lanak egiteko behar duen laguntza fisikoa

- Margoak eta pintzelak gomazko tutuekin loditzea.
- Piboteak jartzea puzzle eta enkajeetan, eta belkroa eraikuntza blokeetan.
- Egokituriko guraizeak erostea.
- Fisioterapiako hiru saio eta logopediako bi saio egitea.

Laguntzako orduak antolatzeko, jarduera kolektiboen ordu berdinetan ez ziren eskola saioak erabili ziren.

Haur hezkuntzako hiru eremuak ardatz hartuta, ondoko egokitza-penak egin ziren:

Nortasun eta banakako autonomiaren eremua. Eremu honetan ez dira etapako helburu-edukirik kendu, baina zenbait jarduera egokitu eta kendu dira. Beste helburu batzuk ere sartu dira.

- Fisioterapiako programa bat prestatu da ondoko helburuak lortzeko: oinarrizko jarrerak, ibiltzea, manipulaziorako trebetasun xeheak (uztaiak sartu eta ateratzea, gauzak hartu eta askatzea, gauzak bota eta jasotzea).
- Esfinterrak kontrolatzeko programa bat prestatu da; hezkuntzako laguntzaileak eta familiak eraman beharko dute aurrera.
- Hona jantzen eta jantziak kentzen, garbitzen eta jaten ikasteko programaren helburua: XXek laguntza gehiago ematea lan horietan eta autonomia gehiago izatea, zenbait material egokitu ondoren.
- Psikomotrizitate saioak antolatu dira. Taldearekin batera izaten dituen bi saioetatik bat berarentzat egokituko da; XXek laguntzarekin egin ditzakeen jarduerak eginen dira saio horretan. Beste saioa fisioterapeutaren laguntza saioa izan daiteke.
- Korrika eta jauziekin loturiko jarduerak kendu dira.
- Batetik bestera ibiltzea eskatzen duten jarduerak egokitu egin dira; hezkuntzako laguntzailearen beharra izaten da haietan.

Komunikazioa eta irudikapena. Eremu honetan, jarduera batzuk aldatu eta ondokoei buruzko beste helburu batzuk sartu ziren:

- Hitz egiteko aurrebaldintzak:
 - Artikulazio giharrak erlaxatzea.
 - Arnasa hartzea.
 - Putz egitea.
 - Aho eta artikulazio mugimenduak (praxiak).

- Lerde-jarioa kontrolatzea.
- Hezkuntza fonetikoa.

Ingurune fisiko eta soziala deskubritzea. Eremu honetan, zenbait jarduera egokitu ziren, eta esperientzietarako materialak ikasle-arengana hurbiltzeko estrategiak erabili ziren; material haiek ikertzeko laguntza fisikoa eman zitzaion. Beste batzutan, ikerketa egoerak hurbildu zitzaizkion.

1.5. Jarraipena (3. laukia)

Curriculumua Norbanakoari Egokitzean, argi islatu zen hiruhilekoan behin jarraipen saioak eginen zirela Mugimendu-arazoetarako moduluko lankideekin.

Bilera horietan, aurrerakuntzak eta behar berriak balioetsi eta erantzuna doitzen joan ziren.

CNEean beharren arabera eginiko aldakuntza nagusiak, honela laburbil daitezke:

94/95 ikasturtea (XXek 5 urte ditu)

- Lehengo taldean jarraitu zuen. Lau urtekoen gela.
- Mugimenduaren garapenean izan duen aurrerakuntzarengatik, eta autonomia gehiago izateko, zaldi ibiltari batekin ibiltzen hasi zen.
- Ez dago aurrerakuntzarik motrizitate xehean.
- Ahozko produkzioan aurreratze nabarmenik ez dagoenez, irudien bidezko komunikazio sistema alternatibo (KSP) bat sartzen hasi zen, komunikazioan inhibiziorik gerta ez zedin.
- Logopedia programarekin jarraitu zen. Ez du larde-jarioa kontrolatu.
- Ikasturte horretan, haurrak esfinterrak kontrolatzea lortu da.
- Ikaslea laguntza ematen hasi zen janzten eta jantziak kentzen, jantzi egokituak erabiliz (belkroak, uztaiak...).
- Lorpen gutxi izan ziren garbiketa jardueretan.

Jarraipenak (3. laukia)

IKASTURTEAK AMBITOS	94/95 (5 urte) HAUR HEZKUNTZA	94/95 (6 urte) HAUR HEZKUNTZA	96/97 (7 urte) LEHEN HEZKUNTZA	97/98 (8 urte) LEHEN HEZKUNTZA
MOTROZITAT Larria Fina	<ul style="list-style-type: none"> - Jarrerak kontrolatzen izan duen aurreratzea - Zaldi itxurako ibiltaria - Aurrerapen gutxi - Laguntza fisiko handia behar du gauzak eskuekin egiteko 	<ul style="list-style-type: none"> - Mugimenduen jarrera-kontrollean eta orekan aurrera egin du - Laguntzarekin ibiltzea lortu da - Manipulatzeko zailtasunak beren horretan diraute - Laguntza fisiko handia behar du 	<ul style="list-style-type: none"> - Motrizitate larria hobetzen jarraitzen du - Ibiltari arrunta - Hobekuntza txiki bat hatzak bereizten - Laguntza fisikoa 	<ul style="list-style-type: none"> - Makuluak erabiltzen ditu - Bitutoreekin jarraitzen du - Funtzionaltasuna hobetu du, baina ez idazteko nahikoa - Pintza finarena egiten du
HIZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> - Ez du berde-jarioa kontrolatzen - Sac bat sartu da - Logopediako programa 	<ul style="list-style-type: none"> - Berdea kontrolatzen zerbait hobetu du - Artikulazioan aurrera egin du - Saca eta logopedia - Letren eta zerbakien oholtxoak erabiltzen ditu 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko produktzioa hobetu du - Saca kendu da - Logopedia saioetan jarraitzen du - Berdearekin zertxobait jarraitzen du - Karkasa duen ordenadorea 	<ul style="list-style-type: none"> - Lengoaita dezente argiagoa - Logopedia saioetan jarraitzen du - Berdea kontrolatu du - Ordenadorean idazten du - Eskuzko aurreidazketan hasi da
AUTONOMIA	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleak esfinterrak kontrolatzea lortu da. - Jantzeko laguntza ematen du, egokitutako jantziak badira. - Aurrerapen gutxi garbiketean 	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia du egokitutako jantziekin - Nolabaiteko autonomia jateko (yogurra) 	<ul style="list-style-type: none"> - Eskuak garbitu eta lehortzen ditu - Bera bakarrik esertzen da komunean - Laguntza behar du jantzeko eta garbitzeko 	<ul style="list-style-type: none"> - Ondokoak landu dira: - Jantziak lotu eta askatzea - Korapiloak egin - Orraztea - Monomandoak erabiltzea
CURRICULUMA	TALDEKO GAINERAKOEN ANTZERA ARIDA CURRICULUMAREN GAINERAKO ALDERDIETAN			

95/96 ikasturtea (6 urte)

- Lehengo talde berean jarraitzen du (5 urtekoen gela), Haur Hezkuntzako 3. mailan.
- Jarrerren kontrolari, mugimendu distonikoen kontrolari, orekari eta laguntzarekin ibiltzeari dagokienez, aurrerakuntza jarraitua gertatzen dela iritzi zen.
- Zoruko aulkia kendu da.
- Manipulatzeko zailtasunek bere horretan dira. Egokitzapen materialak eginda eta laguntza fisikoa izanik, nolabaiteko funtzionaltasuna lortu da.
- Pibotedun oholtxoak erabiltzen hasi da, zenbakiekin eta lehenbiziko letrak ezagutzen lan egiteko.
- Ondoko fonemak dituzten silabak artikulatzen hasi da: b,p,m, t,s,z,gu. Silabak elkarrekin lotzea ere lortu du, nahiz eta ulertezinak izan osatzen dituen hitzak.
- KSA-a erabiltzen jarraitu zen, logopedaren laguntzarekin.
- Egokituriko jantziekin (bata, kazadora, zapatilak), autonomia izatea lortu du.
- Yogurrari bere kasa eustea lortu du; ura edatea ere lortu da, zerbait erorita ere. Gai da bere burua garbitzeko.
- Aurten, lan egiteko garaian daukan iraunkortasuna azpimarratu behar da.

96/97 ikasturtea (7 urte)

- Lehen hezkuntzako lehen zikloa hasi zuen. Etaparen aldaketa prestatzeko, aurreko mailaren bukaera aldean, Lehen Hezkuntzako lehen mailako irakaslea XXekin lan egin zuen taldearen amaierako koordinazio eta ebaluazio saioetara joan zen.
- Hobekuntza handia lortu du motrizitate larrian; beraz, ibiltari arrunt bat erabiltzen hasi zen.
- txiki bat izan zuen hatzak bereiztearen arloan. Artean, laguntza fisikoa behar izan du.
- Izugarri egin du aurrera ahozko produkzioan, nahiz eta zenbait fonemaren distortsioa ez duen gainditu. Ez du erabat lortu lende-jarioa kontrolatzea.

- KSA-aren erabilera baztertu zen. Logopedaren laguntza izaten jarraitu zuen.
- PTko irakaslearen laguntza sartu zen, irakurtzen eta idazten ikasteko arloa gehiago lantzeko.
- Idazketa, artean, oholtxoekin baizik ez du egiten.
- Aurreidazketako trazuak lantzen jarraitu du.
- Ordenadorearen erabilera sartu da, betiere karkasa teklatuaren arabera egokituz.
- Bakarrik esertzen da komunean. Eskuak xaboiak garbitzen ditu. Eskuak lehortzen ere ikasi du.
- Ogitartekoa berak bakarrik jaten du.

97/98 ikasturtea (8 urte)

- Aurrera jarraitu du motrizitate larria lantzen.
- Makuluak erabiltzen hasi da; bitutoreak erabiltzen jarraitzen du.
- Haren ahozko lengoaia argiagoa da, eta ikaskideek hobeki ulertzen dute hark esaten duena.
- Logopedaren laguntza izaten jarraitzen du. Lerde-jarioa kontrolatzen lortu du.
- Idazketa ordenadoreaz egiten du; matematika-eragiketak, berriaz, kalkulagailuarekin, nahiz eta eguneroko eta eskolako jardueretan eskuaren funtzionaltasuna lantzen jarraitzen duen. Nolabaiteko hobekuntza izan du funtzionaltasun horretan, baina ez aski idatzi ahal izateko.

Ikasturte honetan, eskuzko funtzioa gehiago lantzen ari da, tutorearen, hezkuntzako laguntzailearen eta fisioterapeutaren laguntzarekin. Eguneroko jardueretan lantzen du; izan ere, jantzi, jan eta garbitzeko kontuetan ez baitu gehiegi aurreratu.

Hezkuntza-erantzunean erabiltzen diren estrategia batzuk

- Urtebete gehiago egon zen Haur Hezkuntzan; izan ere lau urteekin hiru urtekoen taldean sartu zen.
- Harekin lan egin duten profesionalak ikasleak erantzuteko duen erritmora egokitu dira.

- Edukiei dagokienez, jarduera ohikoenak hautatu dira.
- Galdera itxiak erabili dira ikasketak balioetsi ahal izateko, XXek hitzik egiten ez duen bitartean.
- Ikasleari laguntza fisikoa eman zaio, bere kasa egin ezin zituen gauzak egiteko. Laguntza hori gradualki kentzen joan da, lorpenetan aurrera egin ahala.
- Lehentasuna eman zaio lanak egiteari, batzutan, kontuan hartu gabe haurrak jarrera erabat zuzena izaten duen.
- Esperientziak hurbildu egin zaizkio, haurrak ibiltzeko modurik izan ez duen bitartean.

Gida honetan azaldutako guztiaren laburpen gisa, zenbait oinarri ematen dira mugimenduzko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako curriculum-egokitzapenak egiteko:

- Mugimenduzko ezgaitasuna duten ikasleentzako curriculum-egokitzapenak egiterakoan prozesu jakin bati jarraitu behar zaio: hasi, haurraren *beharrak* argi finkatzeko balioko duen *ebaluazio* zehatza eginez hasiko gara; gero, horri eman beharreko *erantzuna* finkatuko da. Ez dugu ahaztu behar prozesu honetan *jarraipen saioak* egin behar direla erantzuna ikaslearekin lortzen dugunaren arabera moldatzeko.
- Ahal den CNE gutxien egin behar dira. Horretarako, honelako neurriak hartu behar dira:
 - Ikastetxe eta ikasgela mailako egokitzapenak.
 - Curriculumera iristeko materialak egokitzea.
 - Curriculum-elementuak egokitzea: ebaluazioa, estrategia metodologikoak eta, azkenik, helburuak eta edukiak aldatzea.
- Hasteko, argi eduki behar da mugimenduzko ezgaitasuna duen haurrak ez du zertan ahalmen kognitibo gutxiago eduki.
- Ebaluazio prozesua errazteko balioetsi beharreko zazpi eremu ezarri dira. Horietan, arazoak izan ohi dituzte mugimenduzko ezgaitasuna duten ikasleek. Hona eremu horiek:
 - Mugimendua
 - Komunikazioa

- Autonomia
- Ikusizko hautematea
- Sozio-afektiboa
- Eskola
- Familia
- Aurreko eremu horiek ahal den eta zehatzen ebaluatzea, erantzuna erraza, doitua eta eraginkorra izan dadin.
- Curriculumaren gainerakoa ikasgelako (zikloa) programan ezarritakoaren arabera ebaluatuko da, beste aurrekin egiten den bezalaxe.
- Ebaluatzea bai bera bakarrik egiteko gauza dena eta bai laguntzarekin egiteko gauza dena, laguntza maila eta mota zehaztuz, garapen-hurbileko aldera hurbiltzeko.
- Erantzuna haurrak uneoro daukan ahalmen mailari abiatu behar da.
- ez da aldaketarik sartzen curriculumaren oinarritzko elementuetan, nahiz eta batzutan beharrezkoa izan ebaluazioa eta metodologia egokitzea. Batzutan, helburuak eta edukiak ere alda daitezke, egokitasun handiagoa emateko ikaslearen erantzunari. Hona mugimenduzko ezgaitasuna duten haurrentzako egin ohi diren egokitzapenak:
 - Aldakuntzak materialean.
 - Estrategia ezberdinak erabiltzea.
 - Hizkuntzaren helburuak birformulatu eta Gorputz Hezkuntzako helburuak deuseztatu eta egokitzea.
- Funtsezkoa da ikasleak manipulatu duen materialaren zenbait egokitzapen probatzea, haurrak hobekien lan egiteko balio duena lortu ahal izateko.
- Ikasleak autonomia lortzea da lan talde guztien jarduketaren helburu nagusia.
- Haurrarekin lanean ari diren guztien eskumena da CNEa egitea. Lan batzuk ordeztu eta koordinazioak ezarri beharko dira.
- CNEa haurrarekin lan egiten duten guztiek prestatuko dute, eta agiri bakar batean gauzatuko da. Agiri hori jarraipenetan agertzen diren emaitzen arabera moldatuko da.

EBALUAZIOARI
BURUZKO ERANSKINAK

I. eranskina

familiarekiko
elkarrizketa

IKASLEAREN DATUAK

IZENA: _____

ABIZENAK: _____

JAIOTZE DATA: _____

IKASTETXEA: _____

MAILA: _____ IKASTURTEA: _____

HERRIA: _____

PROBA EGIN DEN EGUNA: _____

ARDURADUNA: _____

1. FAMILIARI BURUZKO DATUAK

Aitaren izena _____ Adina _____ Lanbidea _____

Amaren izena _____ Adina _____ Lanbidea _____

Zenbat anai-arreba _____ Zenbatgarrena den _____

Haiekin bizi diren beste pertsona batzuk: _____

Gurasoan jarrera: _____

Anai-arreban jarrera: _____

Beste pertsona batzuen jarrera: _____

2. DATU MEDIKOAK

Diagnostikoa: _____

Tratamendu: _____

Botikak: _____

Errebisioak: _____

3. GARAPEN PSIKOMOTOREA

Kontrol zefalikoa: _____

Esertzea: _____

nola?: _____

karkasak?: _____

aulkiak?: _____

besterik?: _____

Katuka: _____ nola? _____

Bi oinen gainean jarri: _____ nola? _____

Ibili: _____ nola? _____

Batetik bestera joateko beste modurik: _____

Eskailerak igo eta jaitsi: _____ Laguntzarik behar al du? _____

4. KOMUNIKAZIOA

Ahozko hiskuntzarik ba al du?: _____

Noiz hasi zen hitz egiten?: _____

Zailtasunik izan al zuen?: _____

Zein hitz erabiltzen dituen: _____

Komunikatzeko beste biderik: _____

Agindu errazak betetzen al ditu?: _____

5. AUTONOMIA

- Elikadura: _____
Haurraren jarrera: _____

Elizadura mota (biberoia, solidoa...): _____

Bakarrik jaten al du?: _____
Zein tresna erabiltzen ditu?: _____
Besterik: _____

- Janztea eta jantziak kentzea: _____
Bakarrik janzten al da?: _____
Laguntzen al du janzerakoan?: _____

Egokitutako jantzirik erabiltzen al du? (belkroa, ixtekoak...): _____

- Higienea: _____
Esfinterrak kontrolatzen?: _____ egunez/gauez _____
aktiboki/pasiboki _____
Hasi al da horretan?: _____
Haur-oihalik ibiltzen al du?: _____
Laguntzen al du garbiketa pertsonala egiten? (eskuak, aurpegia, hortzak): _____

6. JOLASAK

Norekin jolasten du haurrak?: _____

Zein jolas nahiago dituen: _____

7. BESTELAKO INFORMAZIOAK

II. eranskina

haur eskolari
buruzko datuak

IKASLEAREN DATUAK

IZENA: _____

